

Jakin155

uztaila-abuztua
2006



*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen
Normalkuntzako Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



ZENBAKI HONETAN

7

AGURRA

9 *Jakin*: 1956-2006

TXILLARDEGI

GAIAK

15 Autodeterminazio eskubidea:
teoriak eta auziak

IÑAKI SOTO / JULEN ZABALO

37 Olentzero, non zaude?

Gogoeta bat Iruña-Veleiari buruz

PRUDEN GARTZIA

61 Martzelina, Iholdi, Teresa...

Pertsonaia femeninoa euskal eleberrigintza
garaikidean (1975-2000)

GEMA LASARTE

85 Eskola-liburutegien egoera
Hego Euskal Herrian

K. SANTIAGO / J. F. LUKAS / O. JIMENEZ

EGUNEN GURPILEAN

123 JON BENITO

PABLO SUBERBIOLA

PATXI GAZTELUMENDI

© Jakin

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria

Jakin

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia

Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07

jakin@jakingunea.com

www.jakingunea.com

2006ko PREZIOAK

| BARRUAN | HARPIDEDUNA | EZ HARPIDEDUNA |
|-------------|-------------|----------------|
| Harpidetza | 45 € | — |
| Ale arrunta | 7,50 € | 9,50 € |
| KANPOAN | | |
| Harpidetza | 48 € | — |
| Ale arrunta | 8 € | 11 € |

S U M M A R Y



THE RIGHT OF SELF-DETERMINATION: THEORIES AND PROBLEMS

Iñaki Soto, a graduate in Philosophy, and Julen Zabalo, a Doctor of Geography, provide us in the first part of the article with different theories about the right of self-determination: choice theories, just-cause theories, national self-determination theories and self-determination as a means of resolving conflicts. In the second part, they summarize three major debates deriving from these theories. **IÑAKI SOTO / JULEN ZABALO**

OLENTZERO, WHERE ARE YOU?

Pruden Gartzia, the Director of the Azkue Library, provides us with a reflection on relations between the Basque language and Basque and Spanish nationalism. According to the author, there has been a tacit agreement since the Spanish Civil War between liberal Spanish nationalism and Basque nationalism which has enabled the Basque language to survive and develop. However, this model, this political alliance, has been broken. The recent discovery of Iruña-Veleia may constitute the sign of a change of paradigm. **PRUDEN GARTZIA**

MARTZELINA, Iholdi, Teresa...

Gema Lasarte, a graduate in Philology, carries out a study on the presence and importance of the female character in the production of contemporary Basque novels (1975-2000). In doing so, the author focuses on an analysis of the leading female characters in different novels by Mariasun Landa, Arantxa Urretabizkaia, Joan Mari Irigoien, Anjel Lertxundi, Laura Mintegi, Pello Lizarralde, Aingeru Epaltza, Itxaro Borda, Bernardo Atxaga, Yolanda Arrieta, Pako Aristi, Lourdes Oñederra and Ixiar Rozas. **GEMA LASARTE**

THE STATE OF SCHOOL LIBRARIES IN THE SOUTH BASQUE COUNTRY

The professors Karlos Santiago and Jose Francisco Lukas and the researcher Olaia Jimenez provide us with the context, methodology, results and conclusions of a field study carried out during the school year 2004-05 in different schools from the four territories making up the South Basque Country, regarding the state of school libraries. **KARLOS SANTIAGO / JOSE FRANCISCO LUKAS / OLAIA JIMENEZ**

NEWS TODAY

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following sociolinguistic, communication and literary-related matters. This section draws on various specialists: Pablo Suberbiola, Patxi Gaztelumendi and Jon Benito. **VARIOUS AUTHORS**

ZENBAKI HONETAN



Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 155. zenbakia da eta 2006. urteko laugarrena.

Zenbaki honetan ez da gai nagusirik lantzen. Horren ordez, *Gaiak* sailean, elkarren artean lotura zuzenik ez duten lau artikulua aurkezten dizkizugu. Honako gaiak lantzen dira, hain zuzen, artikulua hauetan: autodeterminazio eskubidearen teoriak eta auziak; euskararen, euskal nazionalismoaren eta espainiar nazionalismoaren arteko harremani buruzko gogoeta bat; pertsonaia femeninoa euskal eleberrigintza garaikidean; Hego Euskal Herriko eskola-liburutegien egoerari buruzko azterketa.

Lehenengo artikuluan, bada, Iñaki Soto eta Julen Zabalok autodeterminazio eskubidearen inguruan dauden teoria ezberdinak aurkezten dituzte: aukeraren teoriak, kausa zuzenen teoriak, nazio autodeterminazioaren teoriak eta autodeterminazio eskubidea gatazkak konpontzeko bitarteko gisa ulertzen duen teoria. Ondoren, autodeterminazioari buruzko teoria horietatik eratorzen diren lau eztabaida garrantzitsu laburbiltzen dira.

Bigarren artikuluan, Pruden Gartziak, Iruña-Veleiako aurkikundeen kariaz, euskararen eta euskal eta espainiar nazionalismoen arteko harremanari buruzko gogoeta bat egiten du. Gartziaren iritziz, Gerra Zibiletik hona ezkerreko espainiar nazionalismo progresistaren eta euskal nazionalismoaren artean akordio politiko bat egon da, sentimendu konpartitu bat, besteak beste euskararen iraupena eta berpizkundea sustatu dituenen. *Paradigma* hori, dena den, egun agortuta dago. Baina Iruña-Veleia, funtsean, euskararentzako diskurtso berri baten posibilitatea izan daiteke.

Gema Lasartek, hurrengo artikuluan, pertsonaia femeninoek euskal eleberrigintza garaikidean (1975-2000) duten presentziaz dihardu. Horretarako, hainbat nobelatako protagonista femeninoak aztertzen ditu. Nobela horiek idazle hauenak dira: Mariasun Landa, Arantxa Urretabizkaia,

Joan Mari Irigoien, Anjel Lertxundi, Laura Mintegi, Pello Lizarralde, Aingeru Epaltza, Itxaro Borda, Bernardo Atxaga, Yolanda Arrieta, Pako Aristi, Lourdes Oñederra eta Ixiar Rozas.

Laugarren artikuluan, azkenik, Karlos Santiago, Jose Francisco Lukas eta Olaia Jimenezek Hego Euskal Herriko lau herrialdeetako eskola-liburutegien egoerari buruz 2004-05 ikasturtean egindako ikerketa baten testuingurua, metodologia, emaitzak eta ondorioak eskaintzen dituzte.

Egunen gurpilean saila dator azken orrialdeetan. Ohi denez, azken hila-beteotako berrien iruzkin labur eta biziak dakartzate Jon Benitok Literaturan, Pablo Suberbiolak Soziolinguistikan eta Patxi Gaztelumendik Telepolis atalean.¶

Jakin: 1956-2006

50 urte horretan *Jakin* zer izan den, eta gaurdanik aitzina zer izan daitekeen, lerro gutxitan azaltzeko eskatu dit *Joan Mari Torrealdei* lankide eta adiskideak.

Eta lehenengo 25 urteetan (1956-1981) zer idatzi genuen berrirakurtzea bururatu zait. (Ikus horretarako 21. zenbaki ezin mamitsuagoa, 1981, «25 urte Euskal Kulturean».)

Eta orduan finkatutako ideiek gaur ere balio osoa dutela iruditu zait.

«Talde-bateragilea izatea» proposatu zen aldizkariaren ezauzgarri nagusitzat. Eta, geroari buruz mintzo, «etorkizuna eginkizun» denez, «eginkizun» orokor horretan laguntzaile jokatzeari.

Oso garai desberdinak gainditu ditu *Jakinek* bost hamarkada horietan. Eta, hein batez bederen, bere bidea egokiro aurkitu duela esango nuke.

Frankismoaren amaierako lehenengo hogeietan (1956-1975) oso problematika desberdina ezagutu zuen. Euskal arazoaz arduratzen zirenek (eta euskararen alorrean zihardutenek berdintsu) ezin zezaketen inolako «sari»rik espero: ez ekonomikorik, eta ez gizarte osperik ere. Egurra eta debekuak ez ziren urrun!

Euskara Batuaren gorabeheretan murgiltzen zenak, adibidez, ez zuen inolako ordainik bere ikus-ertzean.

Bide beretik, kapitalismo/sozialismo dikotomian; marxismoa-ri bai/ez, edo zein kondiziotan; edota independentzia/autonomia bikotean, hitzerdika mintzatu edo idatzi behar zuen; eta jipoia noiz iritsiko zitzaion beldurrez.

Franco hiltzean, gauzak ez ziren batzuen ustez behar edo nahi adina aldatu. Baina beste fase batean sartuak ginela ezin zen ukatu.

Eta *Jakinek*, gainerako euskal elkarte eta instituzio guztiek bezala, bere aldaketa sakona burutu behar izan zuen.

Eskuragarri gerta zitezkeen alorretan argi-emaille eta laguntzaile izatea erabaki zuen. Eta gai monografikoak ugaltu ziren, datuz eta ideiaz erruz hornituak.

Zerrenda osoa eskaintzea, alfer lana litzateke. Urte oparoak. Liburu sail gordegarri bikaina osatu du *Jakinek*.

Eta horrela iritsi gara 155. ale honetara.

Eta galdera ziplo dator: «eta orain zer?».

Eta nik neure irizpidea emango dut: *2006ko Euskal Herri honen zerbitzuko saiatu behar lukeela ondoko 25 urteotan*.

Praktikak erakutsi du ongienik mendeбетetsu honetan zertan ibili ginen xuxen, eta zertan desbideraturik edo moden morroi. Hau jator eta zehazki erakustea izango da mesedegarri.

Espainiar naziokeria guk uste baino sendoago eta erasokorrago agertzen da bazterretan. Batera dator Espainia ia-ia osoa euskaltasuna maiseatzeko, mehatxatzeko, kolpatzeko eta zigortzeko. Erdal kultur asimilakuntza aurrera doa begi-bistan. Eta berriro ere euskaltzaletasunak militantzia eta ausardia eskatzen dizkigu sail askotan.

Jakinek daraman borroka zaildu egin da.

Alde batetik, 18-98 epaiketa amaigabea ikusi denez, anti-terrorismoaren aitzakian, *euskal kulturgintza* xehatu nahi da. Epaiketa famatu horretan *euskara* da helburua.

Preso abertzaleekiko jarrera basati eta iraunkorra (sakabana-keta, zigorren luzaketa) izan daiteke seinalerik larriena. Eta ez da motelagoa kale-borroka kale-terrorismotzat epaitzea.

Honetan guztian etendura bat sortzen ari da; eta ausarki behar da ikertu eta plazaratu. Etsaiaren joko abilaren ondorioz:

TXILLARDEGIREN AGURRA

borroka daramaten pertsonen multzoa, medien lan etengabeaz, *herri arruntetik at* utzi nahi da.

Gose-greba dramatikoetan ageri izan da gailen haustura hori.

Zer jokabide hartu behar lukete *Jakinek* eta *Jakinen* idazten duten intelektualek?

Ene uste apalez, *intelektualen sinesgarritasuna* dugu balio gorena.

Berriro ere, beste askotan bezala, *Bertrand Russell* eta *Jean Paul Sartre* dauzkat eredu. Hauek bezala, herri honek jasaten duen eraso hazkorraren aurrean, euskal intelektualak, luma duen iskilua baliatuz, bere herriaren defentsan altxatu behar du.

Nolabait «jaitsi» egin behar du herrira, abstrakzio estratosferiko alienatzaileen erreinu erosoan amets egiteko tentazioari ihes eginez.

Horra nire irizpidea.



- 15** IÑAKI SOTO
JULEN ZABALO
Autodeterminazio eskubidea:
teoriak eta auziak
- 37** PRUDEN GARTZIA
Olentzero, non zaude?
Gogoeta bat Iruña-Veleiari buruz
- 61** GEMA LASARTE
Martzelina, Iholdi, Teresa...
Pertsonaia femeninoa euskal eleberrigintza
garaikidean (1975-2000)
- 85** KARLOS SANTIAGO
JOSE FRANCISCO LUKAS
OLAIA JIMENEZ
Eskola-liburutegien egoera
Hego Euskal Herrian

Autodeterminazio eskubidea: teoriak eta auziak

IÑAKI SOTO
JULEN ZABALO

Iñaki Soto Filosofian lizentziatua da, eta doktorego tesia idazten ari da nazionalismoaren etikari buruz.
Julen Zabalo Geografian doktorea da.

2. artikulua.- Txina bakarra dago munduan. Bai kontinentea bai Taiwan Txina bakar baten zatiak dira. Txinaren burujabetzak eta lurralde-batasunak ez du banaketarik onartzen. Txinaren burujabetza eta lurralde-batasuna babestea txinatar guztien betekizuna da, taiwandarrak ere barne hartuta.

Txinaren sezesioaren aurkako legea (X. Herri Biltzar Nazionalerako III. saioan onartua, 2005eko martxoaren 14an)

Ahal den bezainbatean, herri bakoitzak bere erakunde politikoak izan beharko lituzke, herri horretako kideen kezka nagusiak denen artean erabaki ahal izateko.

David Miller, *On Nationality* [Nazionalitateari buruz]

Maiz, autodeterminazioari buruzko kezka euskaldunon kezka partikularra dela ematen du, gutaz aparte, autodeterminazioaren auzia apenas inor interesatzen duen gaia balitz bezala¹. Inpresio hau areagotu egiten da, jakin-minak bul-tzaturik, gaiaz dauden iritzi eta ikerketak aztertu nahi ditugunean, auzi honi buruz ezer gutxi idazten eta hausnartzen dela ere ematen du eta. Hori dena iritzi okerra da, ordea, autodeterminazioa interes handiko gaia baita munduan, es-

painierara eta frantsesera itzultzen diren liburu apurrek bestelako itxura eskaintzen badigute ere. Aitzitik, urtero dozenaka artikulu eta liburu argitaratzen da autodeterminazioaren inguruan, eta azkeneko urteotan, nabari denez, berpiztu egin da interes hori.

Artikulu honetan interes horren isla utzi nahi dugu, eta horretarako, idatzi diren liburuen eta gaien hautapen bat eskaintzen dugu². Bi atal bereizi ditugu. Lehenean, autodeterminazioaren zilegitasuna da ardatza, eta horretaz jardun duten hainbat teoria aztertzen da, Margaret Moorek eginiko sailkapenaren arabera (Moore 1998): Aukeraren teoriak, Kausa zuzenaren teoriak eta Nazio autodeterminazioaren teoriak. Hiru teoria multzo horiei laugarren bat gehitu diegu: autodeterminazio eskubidea gatazkak konpontzeko birtarteko gisa ulertzen duena. Bigarren atalean, autodeterminazioari buruzko teoretatik eratoritzen diren hiru eztabaida garrantzitsu laburbiltzen dira.

Autodeterminazio eskubideari buruzko teoriak

Autodeterminazio kontzeptua modu desberdinean ulertu da bere ibilbide laburrean, eta hortik noizbehinka erdi ahazturik egotea, eta noizbehinka entzute handikoa izatea. Lehenengo formulazio entzutetsuak oso bide desberdinetatik datoz. Ildo sozialistaren barruan, austriar-marxismoa deituriko joerak proposatu zuen, Austria-Hungariako inperioaren nazio anabasari konponbide gisa, sesesio eskubidea euren asmoan ez bazegoen ere. Formulazio erradikalagoa eta estatu independenteak osatzeko eskubidea, ordea, argiago onartu zuten Leninek eta Sobiet Batasunak. Ildo liberarlari dagokionez, Estatu Batuetako Wilson presidentearen eskuetik zabaldu zen, baita praktikara eraman ere Lehenengo Mundu Gerraren ostean, eta Austria-Hungariako inperioko nazio batzuei egokiturik, hain zuzen ere.

Nazioarteko legeriak ere islatzen ditu gorabehera horiek. Diane F. Orentlicherrek, adibidez, hiru fase bereizten ditu.

Lehena Mundu Gerren arteko aroari dagokio, eta *nazionalitateen irizpideak* markatzen du, zeinaren arabera Ekialdeko eta Erdialdeko Europako hainbat estatu berri sortu baitzen. Hala ere, autodeterminazioa ez zen bihurtu lege irizpide orokor, eta bere eragina gutxituz joan zen. Bigarrena deskolonizazio prozesuari dagokio. Irizpide izatetik eskubide bihurtu zen, eta hala jaso zuen Nazio Batuen Erakundeak, baina koloniei bakarrik aplikatzeko, eta ez errebindikatzen zuten guztientzat. Hirugarrena, azkenik, XX. mendeko amaierari dagokio, eta autodeterminazioa eskubide gisa agertzen da (Orentlicher 2003: 20-25).

Teoria mailan Gellner da, ziurrenik, autodeterminazioaren eztabaida gehien baldintzatu duen autorea. Gellnerrek zeharka landu zuen gaia, *nazionalismoaren printzipioarekin* harremanetan jarriz. Bere ustez, nazionalismoa printzipio politiko bat da, zeinaren arabera mundua naziotan banatua dagoen eta nazio horietako bakoitzari estatu propio bat eratzeari dagokion. Bere ustez, printzipio hori bideraezina da praktikan, munduan dauden nazio potentzialen kopurua kontuan hartuz, horietatik bakoitzari estatu bat ematea politikoki ezinezkoa delako (Gellner 1983). Hala ere, aipatu bezala, Gellnerren belaunaldiko autoreek autodeterminazio eskubidea zeharka lantzen dute. Autodeterminazioa nazioari, etnizitateari eta nazionalismoari buruzko ikasketen testuinguruan kokatzen dute. Kedourie, Connor eta Horowitz dira, besteak beste, euren idazlanetan autodeterminazioari buruzko kezka teorikoa azaldu zuten lehendabiziko autoreak (ik. Hutchinson eta Smith 1994).

Sobietar Batasunaren eta Jugoslaviaren zatiketarekin, autodeterminazioari eta sezesioari buruzko teoriak bultzada izan zuten. Aurrerantzean landuko ditugun teoriak eta paradigmatikak Allen Buchananen *Secession. The Morality of Political Divorce. From Fort Sumter to Lithuania and Quebec* liburuan dute jatorria (Buchanan 1991). Liburu horrek piztu zuen autodeterminazioari buruzko interes akademikoa, eta haren ondotik landu da auzia era sistematiko eta zorrotzean.

Liburu horrek irekitako ikuspuntuari erantzun borobilena, nolabait, lau urtera etorriko zen, David Miller Oxfordeko irakaslearen eskutik. *On Nationality* liburua, ordea, erantzun soil bat baino zerbait gehiago da: autodeterminazioaren auzia nazionalismoaren ikuspuntu liberaletik aztertzen duen irakurketa berritzailea da.

Oro har, autodeterminazioari eta sezesioari buruzko teoriak eskubidearen justifikazioaz eta horren aplikazio praktikoaz arduratzen dira. Teoriok, bada, bi zentzutan dira normatiboak: batetik euren adiera etikoan, zer egin behar dugun esaten digutenean; eta bestetik, legedietan isla eduki behar duten heinean.

Aipatu dugunez, autodeterminazio eskubidea arrazoitze-ko jarrera bat baino gehiago dago, eskubidea onartua izateko jartzen diren baldintzen arabera. Batzuentzat, baldintzak oso zurrinak izan behar dira; eta besteentzat, berriz, oso malguak. Margaret Moorek (1998: 5) hiru joera bereizten ditu: aukeraren teoriak (*choice theories*); kausa zuzenaren teoriak (*just-cause theories*); eta nazio autodeterminazioaren teoriak (*national self-determination theories*). Horiez gain, gure ustez bada aztertu beharreko laugarren joera bat: autodeterminazioa gatazkak konpontzeko tresna gisa, alegia. Azter ditzagun jarraian.

Aukeraren teoriak

Daniel Philpottrek demokraziari loturik ikusten du autodeterminazio eskubidea. Hala aldarrikatzen du ezin nabar-menago ‘In Defense of Self-Determination’ artikuluan. Lan horretan autodeterminazioari buruzko hiru ikuspuntu ageri ditu. Lehena, nazioartekoa; Nazio Batuena, hain zuzen ere: autodeterminazioa onartu bai, baina gero, eraikitako estatuen integritatea zaintzen da. Bigarrena, liberal batzuen eskubidea onartu bai, baina arrazoi batzuen pean, eta arrazoi nahikorik baduela frogatzen duenak bakarrik omen dauka errebindikatzeko eskubidea. Eta hirugarrena, berak

aurkezten duen teoria, demokraziari lotua, John Stuart Mill eta Woodrow Wilsonen ildotik (Philpott 1995: 353-355; 1998). Philpotten hirugarren ildo honetan, autodeterminazioa, demokrazia kontzeptuarekin gertatzen den bezala, autonomiarekin dago harremanetan.

Izan ere, autodeterminazioa onuragarria da demokrazia-rako, eta berez duen balio positibo hori azpimarratu behar da. Hori dela eta, autodeterminazio eskubidea aldarrikatu ahal izateko ez litzateke inolako eskakizunik beharko, eskubide hori eskatzen duten herritarrak autonomoagoak izango baitira, horrek euren gaiez gehiago arduratzea dakarrelako (Philpott 1995: 363). Horretan oinarriturik, bere ustez,

bere burua modu independenteago batean gobernatu nahirik, lurralde mugatu batean ari den edozein norbanako taldek badu, *prima facie*, autodeterminatzeko eskubiderik. (Ibidem: 353)

Autodeterminatzeko modua zabalik uzten du, ordea, egoera bakoitzak irtenbide desberdina eska dezake eta.

Irizpide objektiboak ukatuta, Philpotték nahikotzat jotzen du nahia. Subjektuaren lurralde tamainuak ere ez du ardurarik: hiriek, adibidez, autodeterminatzeko eskubidea edukiko lukete, Monakok edo Singapurrek erakusten duten bezala.

Non ipintzen du Philpotték muga? Salbuespena egiten du eskubide hori auzo batek edo familia batek errebindikatu nahiko balute, estatu batek bete behar dituen funtzioetako batzuk (oinarrizko betebeharrak) ezin izango bailituzkete bete (ibidem: 366). Baldintzak ere ipini beharko litzazkioke injustizia nabariak (ekonomikoak, politikoak) ekarriko dituen banaketari. Kasu horretan, nolabaiteko konpentsazioak beharko lirateke. Ildo berean, baina beste esparru batean, pertsona bakar batek ere ezin izango luke nahi duen estatuarekiko loturarik aukeratu, ezen «eskubide indibiduala izan arren, autodeterminazioa taldeka erabiltzen da» (ibidem: 369).

Azkenik, bereizketa nahi duenak aurreko estatuarekiko inolako betebeharrak ez ote duen ere galdetzen da, ikuspun-

tu demokratiko eta liberal batetik, batez ere. Baina Philpotten ustez, argitzeke geratzen da zergatik zor behar zaion betebeharrori estatu zehatz horri, eta ez beste bati. Autodeterminazio eskubidea, hortaz, osorik eduki liteke kasu horretan ere (ibidem: 367).

Balorazioetara joanik, teoria hauen arazo nagusia fenomeno sezesionista errealak azaltzeko dituzten mugak izaten dira. Izan ere, nazio autodeterminazioaren teorien aldekoek leporatu dietenez, historian zehar sezesio prozesuak gatazka nazionalen testuinguruan gauzatu dira, gehienbat. Demokraziari buruzko eztabaida teorikoan autodeterminazioari buruzko gogoeta txertatzea egokia izan badaiteke ere, sezesio fenomenoak azaltzeko ikuspuntu honek dituen mugak agerikoak dira.

Kausa zuzenaren teoriak

Teoria mota hauek sezesiorako eskubidea justifikatzeko aurrekoek baino baldintza zorrotzagoak ezartzen dituzte. Lockeren iraultzarako eskubidearekin paralelismo bat eginenez, teoria hauen defendatzaileek sezesiorako eskubidea injustiziak konpontzeko bide bezala ulertzen dute soilik. Injustizia hauek zehazteko orduan autore batetik bestera desberdintasun nabarmenak daude: batzuen ustez, sezesioa eskatzen duen lurraldean giza eskubideen bortxaketa nabarmenak existitu behar dira (genozidioa, kasu); beste batzuentzat, ordea, nahikoa dira estatuak eragindako diskriminazioak sezesioa justifikatzeko. Injustizia hauek argitzeko prozedurak ere eztabaidak eragin ditu adituen artean.

Esan bezala, Allen Buchanan da joera honetako autorerik erreferentzialena, eta berak markatu du joera honen barruko zein kanpoko eztabaiden dinamika. 1991ko sezesioari buruzko bere liburua mugarri izan da autodeterminazioari buruzko hausnarketa teorikoan (Buchanan 1991). Jasotako kritiken ondorioz, bere diskurtsoa moldatuz joan baldin bada ere, lau baldintza nagusi aurreikusten ditu sezesiorako

eskubidea legitimoa izan dadin (zuzenagoa da «hiru baldintza + beste aukera bat» esatea, aukera hori akordioz egindako sezesioa baita):

- a) Giza Eskubideen urraketa sistematikoa (Buchanan 1991: 37).
- b) Lurralde baten bortxa-bidezko anexioa (ibidem).
- c) Autogobernurako iraganeko akordioen urraketa sistematikoa (Buchanan, 2006: 2. atala).
- d) Adostasunez eta negoziazioaren bitartez aldeen artean onartutako sezesioa.

Hala ere, azken aukera hau (Txekoslovakia, kasu) bere azterketetatik kanpo utzi du (Buchanan 1997: 304). Bi aldeen akordioaren bidez lortutako sezesioari nazioarteko komunitatearen aldetik jar dakiokkeen muga bakarra aldeetako bategen sezesio horren ondoren edota ondorioz eragindako giza eskubideen bortxaketatik etor liteke, Buchananen iritziz.

Aukeraren teorien indarra autodeterminazio eskubidearen eta demokraziaren arteko loturan kokatzen zen, eta kausa zuzenaren teorikoek, ordea, giza eskubideetan kokatzen dute indar hori. Nolabait esateko, autodeterminazio eskubidea injustizien kontrako erresistentzia politikoki eta juridikoki egituratzeko saiakera litzateke.

Kasu honetan, eta aurrekoan ez bezala, frogaren zama sezesioa bilatzen duen komunitatearen gainean erortzen da (ibidem: 313). Komunitate horiek (direnak direla: nazioak, herri indigenak... oro har, talde kultural bezala izendatzen dira) euren aldarria azaldu eta justifikatu behar dute, eta baldintza jakin batzuk betetzen badituzte soilik esan ahal izango dugu sezesio eskubidea gauzatzeko nor badirela. Ondorioz, berezko autodeterminazio eskubiderik edo sezesiorako eskubide primarioak existitzen denik ukatzen dute joesa honetako autoreek. Historikoki honela izan ez bada ere, nazioak ez daude baldintza hauetatik salbu. Buchananez 'What's So Special About Nations?' artikuluan azaldu bezala, ez dago ukatzerik nazioek sezesiorako eskubidea eduki

dezaketela, baina bai, aldiz, eskubide hori nazioei berez dagoela esatea, gatazka baten konponketa gisa ulertu gabe eta tartean inolako negoziatorik egon gabe (1996: 308).

Teoria hauen alderik ilunena praktikoa da, hainbat iritzik seinlatu duenez. Izan ere, sezesiorako eskubidea eskuratu ahal izateko ezartzen diren baldintzak ikusita, zenbat eta jipoituago eta xehetuagoa izan komunitate bat, are eskubide gehiago dituela esan daiteke; hala ere, errealitatean jazoera latz horiek (genozidioa, konkista...) herri edo komunitate horiek lehia demokratikoaren bidez erreferendum bat irabazteko ez-gai bihurtzen dituzte. Genozidioaren kasua argigarria da: garbiketa-politika baten ondorioz bere populazioaren ehuneko nabaria galdu duen herriak errazago beteko ditu kausa zuzenaren teorikoek ezartzen dituzten baldintzak, baina, arrazoi berberetatik, zail izango du lehia demokratikoaren bitartez sezesioa lortzea.

Nazio autodeterminazioaren teoriak

Nazio autodeterminazioaren paradigmen azpian sartzen diren autoreek, oro har, nazioa izaera politikoa eta esanahi etikoa duen komunitate gisa ulertzen dute. Nazioaren definizio minimoa dago teoriotan: nazioak moralki esanguratsuak diren entitateak dira edo, beste era batean esanda, nazioak komunitate etikoak dira.

Honek ez du esan nahi nazioak esentzia bati begira ulertzen direnik. Autoreontzat, hein batean, nazioek funtzio instrumentala dute: entitate kolektibo horiek norbanakoenzat esanahi eta garrantzi berezia dutelako justifikatzen da autodeterminazio eskubidea. Era berean, kosmopolitismoaren argudioei aurre eginez, komunitate horien kide izateak pertsonentzat duen esanahia azpimarratzen dute. Millerrek dioenez, kontuan hartu behar da mundua ez dela norbanakoz bakarrik osatzen, komunitatez ere baizik. Pertsona bakoitza kultura batean murgildurik ageri zaigu, eta kultura bakoitzak balioen ulermen desberdina ekartzen du. Norba-

nakoa kultura horiekin identifikatzen da, eta onartu egiten du kultura kolektibo horrek bere nortasun indibidualean duen eragina (Miller 2003: 124).

Ondorioz, nazionalismoa termino ez-esentzialistetan funtsatzeak ez du nazioaren balioa deuseztatzen: ez du nazionalismoa termino instrumental hutsetara murrizten, alegia. Millerrek eta Moorek argi adierazi duten bezala, jendearentzat nazioak entitate moral esanguratsuak dira, eta izaten jarraituko dute fase historiko honetan.

David Millerrek komunitate klase zehatz horiek (nazioak) onura jakin batzuk eskuratzeko bitartekoak direla defendatzen du, eta fenomeno honen garrantzi etikoa azpimarratzen du (Miller 1995, 1998). Haren ustez, nazio bat politikoki autonomoa denean eta botere politikoa bermatuta denean (estatu baten bitartez), justiziaren zentzu liberala garatzeko gauza da, kultura komuna babesteko gaitasuna du, eta bere buruaren jabe da etorkizuna nahi erara antolatzeko. Argudiaketa horren arabera, nazionalitate komunak herri-tarren arteko konfiantza eta elkarrekiko betebeharra ziurtatzen du, eta horrek komunitateen barruan birbanaketa politikak garatzen laguntzen du (Miller 1995: 92).

Nazioa definitzeko dauden arazoez jabeturik, egile hauek autodeterminazioaren irizpide orokorrari zenbait muga jartzen saiatu dira. Millerrek, adibidez, bi baldintza jartzen ditu: bestelakoak izatea bereiztu nahi duen nazioaren identitatea eta nazio handiarena; eta bereiztu nahi duen taldea gai izatea errebindikaturako lurralde guztian bere agintea onartua izateko (1998: 69).

Teoria hauen arazo nagusia nazio kontzeptuari lotua dago. Izan ere, 'nazioa' termino konplexua eta gatazkatsua da. Zailtasun handiak daude 'nazio' kontzeptuari erreferentzia argi bat emateko, zer den eta zer ez den argitzeko, alegia. Nazioak identifikatzeko arazorik ez dagoen kasuetan ere, 'nazio' izendapena gatazkaren parte izatera pasatuko da (Kataluniaren eta Euskal Herriaren kasuetan argigarriak dira).

Beste ikuspuntu bat: autodeterminazio eskubidea nazio arazoaren konponbide gisa

Ohiko hiru teoria nagusiak ikusi ditugu, eta denetan ager-tu da puntu ahulen bat, praktikari begira, gehienbat. Demokrazia, eskubideak, komunitateak eta antzeko kontzeptuak gurutzatzen dira etengabe, baina gure ustez, denetan bada-go azaltzen ez den elementu bat, eta aldiz, autodeterminazio eskubidearen defentsa egiten dutenen artean garrantzi bere-zia hartzen duena: autodeterminazioa gatazka historikoak eta politikoak konpontzeko bitarteko gisa ulertzen duena, alegia. Azkeneko urteotan frogatu ahal izan da ikuspuntu honek duen interesa, Irlanda, Montenegro eta Euskal He-rriko nazio gatazketan ikusi ahal izan denez.

Autodeterminazioa horrela ere ezaugarritzeko ikuspuntu hau, bestalde, ez datorkigu autodeterminazioaren ohiko teo-ri zatzaileen eskutik. Hortik aparte, giza eskubideez ari diren mugimendu eta pentsalarien ingurutik heldu zaigu. Ikus-puntu desberdin honen adibide argi bat 1998ko azaroan Bartzelonan egindako *The Implementation of the Right to Self-Determination as a Contribution to Conflict Prevention* konferentziatik har dezakegu. Haren ondorio nagusietan honela laburbiltzen da autodeterminazio eskubidearen in-plementazioaren beharra:

Nazioarteko komunitateak, komunitate horretako kide eta erakundeek, esku hartu beharra daukate nazioarteko arauak urratzen direnean. Urraketa horien barnean sartzen dira gi-za eskubideak eta, bereziki, autodeterminazio-eskubidea. Neurriak hartzeko unea oraintxe da beti, ez gatazka konpon-biderako «prest» dagoenean, batzuek nahiago luketen mo-duan. Gatazkak prebenitzeko, alde zurririk hartu behar di-ra neurriak estatuak nazioarteko legeak betetzera behartzeko beren herritarrekiko harremanean, beren mugen barruko he-rri eta komunitate berezituak dagokienez, besteak beste. Era berean, neurriak hartu behar dituzte autodeterminazio-esku-bidea gauzatzea galarazten duten neurriak saihesteko, hala nola, biztanleria leku batetik bestera eramatea edo nahitaez-ko asimilazioa. Estatuak ulertarazi behar zaie ezin dituztela bazter utzi herri eta komunitateen aldarrikapenak. (van Walt eta Serro 1999: 34-35)

Hegemonismoaren aurka nazioarteko komunitateak duen jarrera zorroztea planteatzen dute autoreok. Proposamen honetan *realpolitik* delakoa (nazioarteari eragiten dioten gatazken konponbide egonkorren bilaketa) eta printzipio moral sakonak (giza eskubideen eta kultur pluralismoaren defentsa) uztartzen dira. Euskal Herriko adibidera etorrira, nazio gatazka jakina da aspalditik, eta hura konpontzeko orain arte maila praktikokan planteatu diren alternatibek ez dute arrakastarik lortu. Azkeneko urteotan, ordea, norabide aldaketa igartzen da, eta gatazka baldin badago, gatazka horren gaindiketa herritarren erabakitik etorriko dela argudiatzen da. Autodeterminazio eskubideak, horrela, balio erantsia hartzen du, eta egituraketa politikoa aukeratzeko modu bat izateaz gain, aspaldiko gatazka politikoko bati amaiera emateko modura ere agertzen da.

Aurreko teoriak bezala, ordea, teoria hau ere ez da arazoe-tatik libratzen. Nagusia kanpotik dator: gaur egungo nazioarteko komunitatearen interes gatazka. Estatuak *partzuergo* modura funtzionatzen duten heinean, *nazioarteko komunitate* izendatzen den egituren multzo horrek arazo handiak ditu politika hau inplementatzeko. Bestea barruan darama, eta efektu gaizto posible bat da: zenbait komunitate gatazka areagotzeko joera piztu dezake, baita gatazka «faltsuak» ere.

Era batera edo bestera, ohiko hiru ikuspuntuak edo guk aurkeztu dugun laugarrena izanik, teoria guztiek ohiko beste arazo teoriko batzuk dituzte, orain ikusiko dugun bezala.

Autodeterminazio eskubideari buruzko teorien auziak

Eztabaida mahai gainean dago, eta arlo bat baino gehiago hartzen du. Lau multzo handitan sailka ditzakegu eztabaidok: zein da autodeterminatu beharreko lurraldea; nor da autodeterminazioaren subjektua; autodeterminazio eskubidearen instituzionalizazioa eta nazioarteko komunitatearen funtzioa

instituzionalizazio horretan; eta ea eskubide hori nazioen kasuetara mugatzen den, mugatu behar den, edo beste komunitateetara ere zabaldu behar den. Begira ditzagun.

Autodeterminatu beharreko lurraldeaz eta subjektuaz

Oso gai eztabaidatua izaten da, askotan, autodeterminatu beharreko lurraldea zein den eta autodeterminatzeko eskubidea nori esleitu behar zaion, estatu osoko herritarrei, estatuarekin gatazkan dagoen herrialdekoei, edo herrialde horretako batzuei bakarrik, egoera eta kontzientziario politiko maila desberdinak agertu izaten baitira herrialde batean. Estatuak, autodeterminazioa onartzekotan, estatuko lurralde osoari dagokiola esan ohi du; bereizketa nahi duen nazionalismoak, berriz, berak errebindikatutako lurraldeari dagokiola soilik. Kasu bietan nazionalismoaren ikuspuntu esentzialista ageri da; esentzialista, bere lurraldearen barruan bizi diren beste talde etniko edo nazioen izaera eta izana ukatzen dituen heinean. Praktika politikoak, ordea, eskubide hori autodeterminazio eskaera indartsu ageri den lurraldera mugatzera eramaten du. Bi mutur horien artean mugitzen da auzia.

Gure ustez, ez dira onargarri ez autodeterminazio eskubidea ukatzea, ezta eskubide hori *per se* onartzea ere, mugimendu politiko batek (nazionalista izan ala ez izan) hala errebindikatzen duelako bakarrik, alegia. Gure iritziz, garrantzi berezia eman beharko litzaioke, ordea, gatazka bat egonik, autodeterminazio eskubidea gatazka horren konponbide modura agertzeari. Ildo horretan, erabakitze eskubidea gatazkan dagoen herrialdeari dagokiola dio Philpotték, kontrakoa herritar horiei burla egitea izango bailitzateke, bere ustez, ikuspuntu demokratiko batetik (1995: 363). Eta gakoa demokrazian ere ipinita, Quebec eta Kanadaren arteko auzia dela eta, David Coppek uste du Quebecoko etorkizuna bertako herritarrei dagokiela, eta ez beste inori.

Kanadarrek ez lukete mespretxutzat hartu beharko eskurik ezin hartzea, baina aitzitik, Quebecoko herritarrentzat injustua izango litzateke kanadarrek eskubide hori eskuratzea. Hala ere, argi utzi behar da subjektua Quebecen bizi diren herritar guztiak direla, eta ez ezaugarri politiko edo kultural jakin batekoak bakarrik; frantses hiztunak, kasu (Copp 1997: 353).

Gure ustez ere, gatazka agertzen deneko herrialdeko biztanleek ebatzi beharko lukete norberaren auzia, eta hori zentzu bitan ulerturik, Euskal Herrian, batzuetan, ondo aditzen ez bada ere. Batetik, arazoa agertzen deneko lurraldetik at inork ezin duela eduki erabakitzeko ahalmenik; baina bestetik, arazoa agertzen deneko lurralde osoko biztanleek dutela eskubide hori, eta ez batzuek bakarrik. Lurralde horretako toki desberdinetan autodeterminazio eskubidea nola artikulatzen den negoziazioaren eta joko politikoaren parte da. Horri dagokionez, gure ustez, kasuan kasuko azterketa egin beharko litzateke, eskubidea era batean edo bestean gatazkaren parte den lurralde osoan onartu behar dela kontuan hartuz, betiere.

Gatazka ageri den lurralde osora autodeterminazio eskubidea zabaltzeak badu, gainera, balio erantsi bat: konponbidea sendotzen du, eta gatazka berriak erreproduzitzeko aukerak mugatu. Fenomeno irredentistak (dagoeneko eraikitako beste estatu batera batzeko borroka nazionalistak) printzipio hau ez onartzearen ondorio izaten dira askotan, beste arrazoien artean, lurralde zati bateko herritarrei euren erabakia adierazteko aukera ez zaie eman eta. Irlandaren kasua paradigmatikoa da, bere garaian Iparraldeko konterriei ez baitzitzaien iritzia eskatu Irlanda independentea osatzeko, ustez gehiengo batek Britainia Handiaren alde egingen zuelako. Hori egia izanda ere, iritzia ez eskatzeak inplikazioa murriztu zuen, eta jendea ez zen konprometiturik sentitu, horrek ekarri duen ondorio latzarekin. Honekin batera, gutxiengoaren trataeraren eta autodeterminazio eskubi-dearen arteko harremana agertzen da.

Zentzu horretan, ezin dira nahastu egonkortasuna eta behin betikotasuna. Ez dago estatus politiko definitiborik. Ondorioz, egonkortasuna herriei eta herri horiek osatzen dituzten komunitateei bideak irekitzen lortzen da, ez bideak ixten. Honek tresna politiko-juridiko berriak sortzeko beharra azaltzen du, eta datozen hurrengo eztabaidak hobeto ulertzeko aukera ematen digu. Alegia, autodeterminazioaren subjektuari buruzko eta autodeterminazio eskubidearen instituzionalizazioari buruzko eztabaidak kokatzeko balio digu.

Autodeterminazio eskubidearen instituzionalizazioaz eta nazioarteko komunitatearen funtzioaz

Autodeterminazioaz arduratu diren ikertzaile gehienek autodeterminazio eskubidea instituzionalizatzeko beharra azpimarratzen dute. Ideia horren arabera, teoria mailako printzipio moralek itzulpen juridikoa eduki beharko lukete, bi legedi-maila jakinetan gutxienez: estatuen mailan eta nazioarteko mailan. Buchananek sezesioari buruzko teoriaren helburu nagusia eta benetako funtsa nazioarteko legedian autodeterminazioaren instituzionalizazioa lortzea dela esaten du (ik., adibidez, Buchanan 1997: 303-4).

Estatu mailako legerian (konstituzioetan) autodeterminazio eskubidea txertatzeko egin diren saiakerek garapen desberdina izan dute. Gaur egungo bi adibide ezagun hartzearen, alde batetik, Etiopiako estatuak konstituzioan txertatu zituen sezesioa legezko egiten duten artikulua (Sobiet Batasuna joera honen aurrekaria da). Oso baldintza zorrotzak ezarri ziren, sezesioa legeztatzearen helburua efektiboki hura lortzeko aukerak zailtzea baita. Kontuan hartu behar da, ildo horretan, aurretik Etiopiak eduki duela fenomeno sezesionista bat, Eritrearen kasuan.

Beste alde batetik, 2003an, Belgradeko akordioen ondorioz, Serbiako eta Montenegroko Estatuaren Batasuna sortze-

rakoan, bi estatuek batasuna apurtzeko zuten aukera legeztatu zen, hiru urteko luzamendu-klausularekin, baina baldintza zehatzik ezarri gabe. Azkenean, *Venice Komisioaren* iradokizunak kontuan hartuz, Europako Batasunak bi baldintza ezarri zizkion 2006ko maiatzean egin zen autodeterminazio erreferendumari: batetik, %50ek baino gehiagok hartu behar zuela parte bozketan; bestetik, parte hartzen zutenen %55ek gutxienez egin behar zuela independentziaren alde, emaitzak legitimo izateko.

Ez dirudi, gainera, estatuen artean joera hori nagusituko denik. Izan ere, kasu batzuetan autodeterminazioa konstituzioan sartzearen helburua eskubidearen praktika zailtzea da, nekez lor daitezkeen baldintzak ezarrita. Beste kasu batzuetan, instituzionalizatutako autodeterminazio eskubidea eragin geopolitikoan menpe jartzen da, instituzionalizazioaren balioa bera zalantzan jarrita. Are gehiago, estatu zenbaitek kontrako norabidea ere hartu du, autodeterminazio eskubidearen debekua legedian sartuz. Txinak, adibidez, 2005ean Taiwanen sezesioa ekiditeko lege berria onartu zuen.

Beste alde batetik, Millerrek azpimarratu duen bezala, prozedurak, bere horretan, baliabide mugatuak dira gatazkak konpontzeko (1998: 64). Azken batean, prozedura horiek aplikatu ahal izateko, autodeterminazioaren subjektua izango den horrek komunitate politikoa osatzen duela onartu behar da aldez aurretik. Ondorioz, autodeterminazio eskubideak gaur egun legedi mailan dituen mugak gainditu nahi baldin badira, prozedurekin batera printzipio moral eta politiko argiak ezarri behar dira³.

Prozedurek bere horretan dituzten mugak kontuan hartuz, eta aipatu ditugun autoreon kritikei jarraituz, bere baitan nazio bat baino gehiago biltzen dituzten estatuek izaera multinazional hori onartu beharko lukete, lehenik eta behin. Egokitzapen hori luzaroan dirauten gatazkak konpontzeko onuragarria litzateke. Kontrakoa egiteak eta autodeterminazioa konstituzioetan ez instituzionalizatzek, ordea, hainbat gatazka iraunaraztea ekarriko luke, eta bestal-

de, estatuetakoko politikariek abertzaletasuna termino esentzialetan formulatzen jarraitzen dutela adieraziko luke. Gure ustez, nazio gatazkak konpontze bidean ipintzeko, esfortzua egin beharko litzateke baztertzaila den esentzialismoa diskurtsotik aldentzeko, bai estaturik gabeko nazionalismoen aldetik zein estatuetakoenetik.

Instituzionalizazioaren eta prozeduren eztabaidarekin harremanetan, demokraziaren estandar berriak ezartzeko joera aipatu behar da. Aipatu dugun bezala, Montenegroko kasuan *Venice Komisioaren* eta Europako Batasunaren jarrerak erakutsi dutenez, gehiengoaren formula klasikoa (erdia + 1) ez da herrialde baten estatusa aldatzeko nahikotzat jotzen. Joera orokor gisa, frogaren zama estatus hori aldatu nahi duen subjektuaren gainean jartzen dela esan dezakegu. Demokraziaren oinarriak eraldatzen dituen balio berriaren aldeko argudio nagusia egonkortasuna da. Baina agerikoa da gehiengo bati ezarritako betoak ezin duela prozesu baten egonkortasuna bermatu.

Nazioarteko sistemari dagokionez orain, gaur egun sistema honek duen antolakuntzaren ondorioz, nazioarteko komunitatea ez da gai sezesioari buruzko printzipio moralak juridikoki inplementatzeko. Connorrek salatu bezala, *nazioarteko* deitzen den egitura politiko orori *estatuarteko* deitu beharko genioke, errealitatean horixe baitira: estatuaren arteko harremanetan oinarritutako gainegitura politikoak (Nazio Batuen nahasmen kontzeptual horren adibiderik argigarriena da) (ik. Connor 1994). Hala, bada, sezesioa batez ere fenomeno nazionalistaren elementua den heinean (Moore 1998: 7), estatuaren arteko sistemak ezin du printzipio hauen aplikazio koherenterik egin. Europako Batasuna da arazo horren adierazpide bat.

Estatu-sistemaren berregokitzapen orokor baten bidetik baina, egingarriagoa dirudi autodeterminazioa gatazka zehatzen konponbidearen akordioen markoan ematea, era batean edo bestean. Nazioarteko legedia alda dadin, tamalez, adostasun teorikoa baino gehiago, fenomeno sezesionista-

ren adierazpen lazgarrien multzo handi baten metaketak ekar lezake balizko aldaketa hori.

Muga horiek kontuan hartuz, gaur egun, nazioarteko komunitatearen eta komunitate hori politikoki islatzen duten egitura transnazionalen funtzioa (Nazio Batuen Erakundea, Europako Batasuna...) sezesio prozesuen egonkortasuna bermatzea da, ondoko alderdietan zentratuz: Giza Eskubideak zaintzea, akordioen inplementazio juridikoa, aldean artean adostutako akordioak nazioarteko legediarekin eta egitura politiko transnazionalen garapenarekin bat datozela ziurtatzea, eta abar.

Hala ere, eskumen horietatik kanpo, nazioarteko komunitatea ezin da prozesua baldintzatzen saiatu, gure ustez. Herritarren aurrean bere zilegitasuna bermatzeko, neutral jokatu beharko luke, politikoki esku hartu gabe, eta estatu partaideen presioa onartu gabe. Euskal Herriari dagokionez, Europako Batasunak, adibidez, Europako herritarren babeserako egitura politikoa dela argi utzi beharko luke, estatuen interesak babesten dituen gainegitura politiko hutsa ez dela erakutsiz.

Autodeterminazioa nazioetara mugatzen, eta mugatuko, ez den eskubide gisa

Orain arte, autodeterminazioaren auzia identitate nazionalaren terminoetan ulertu da. Alegia, leialtasun identitario jakin bat sentitzen zutenek eskubide hori euren programa politikoan txertatzen zuten bezala, estatu bateko herritar ziren eskubide bera ukatu egiten zuten. Hala ere, ikusitako teorietatik bakarrak *mugatzen* du autodeterminazioaren auzia fenomeno nazionalistara; besteek demokraziarekin, justiziarekin eta gatazka politikoaren konponbidearekin harremanetan ulertzen dute.

Autodeterminazioa bigarren era horretara ulertzeak bide berriak irekitzen ditu. Alde batetik, programa politiko nazionalistatik at dauden joera politikoek erabakitzeko esku-

bidearen eta autodeterminazioaren formulazio berriak bere egin ahal izango dituzte aurrerantzean. Autodeterminazioaren defentsa termino nazionalistetan ez ezik, termino liberaletan, demokratikoetan edo kulturaletan egitea ahalbidetzen da horrela (ezkerreko mugimenduek geroz eta nabarmenago erakusten dute joera hau). Beste alde batetik, nazio ez diren komunitateentzat gatazkak konpontzeko eta euren biziraupena eta garapena ziurtatzeko tresnak sortu ahal izango dira, autodeterminazio eskubidearen parametroetan betiere. Era honetako lehendabiziko teorizazioak herri indigenen eta komunitate linguistikoen kasuan egiten hasi dira (Macedo eta Buchanan 2003: II. atala, 89-189).

Ondorioak

Oso zaila da (agian ezinezkoa) autodeterminazio eskubidearen inguruan teoria orokorrik eraikitzea. Noiz esan dezakegu herri batek autodeterminatzeko eskubiderik baduela? Zein ezaugarri eduki beharko luke herri horrek? Prozedurak finkatzearekin nahikoa da? Kasuistika bat egitera mugatu behar gara? *Indar* kontu hutsa da dena? Zalantzarik gabe, eman ditzakegun erantzunak baino borobilagoak dira galderak. Hala ere, gogoeta labur batzuk eginez amaitu nahi dugu.

Teoria multzoak ikusi ditugu, bakoitza bere ikuspegi interesgarriarekin eta baita bere puntu ahulekin ere. Bertan islatzen dira munduan eman diren, ematen ari diren eta eman go diren prozesu politikoetako elementu nagusiak. Horregatik, teoriez gain, oraindik eztabaidan dauden auziei buruz ere hitz egin behar da. Auzi horiek, gehienetan, autodeterminazioaren praktikan aurrez aurre jartzen diren alde bien interesak adierazten dizkigute: eskubidea errebindikatzeko duten estaturik gabeko nazioenak, eta estatua duten nazioenak.

Auzi horiek itxita ez egotea, ordea, ez da halabeharrez kaltegarria. Izan ere, autodeterminazio eskubideak herritarren

parte-hartzea sustatzen du, eta hori onuragarritzat jo behar da, edozein ikuspuntutik begiratuta ere. Autodeterminazio eskubidea onartzeak ireki egiten du proiektu politiko guztien gaineko eztabaida demokratikoa eta, bide batez, luzaroan useltzen utzita zeuden gatazkak konpontze bidean jar ditzake.

Hala izan dadin, gako batzuk daude, eta mahai gainean jarri ditugu: alde batetik, gatazka bizi duen lurralde guztia prozesuan txertatzea, eta lurralde horretako biztanle guztien parte-hartzea ziurtatzea; bestetik, nazioarteko komunitateak babestea eta estatu interesen aurrean neutral agertzea. Bada-kigu prozeduren eta instituzionalizazioaren mugak agerikoak direla, baina autodeterminazio eskubidea ziurta dadin, eta eraginkor izan dadin, hortik abiatu beharko litzateke, gure ustez.

Alta, ez dugu uste autodeterminazio eskubidea indar politiko guztiek, eta estatuak, tresna erabilgarritzat errebindikatuko dutenik. Alderantziz, praktikara ez eramaten ahaleginduko dira estatuak eta indar politiko batzuk. Aldiz, estatu eraiki nahi duten nazionalismoak izango dira autodeterminazioa eskatuko dutenak. Ez dugu uste, beraz, nazioei lotutako fenomeno izateari utziko dionik. Hala ere, funtsezkotzat jotzen dugu denek onartzea erabakitzekeo eskubidea herritarrei dagokiela eta autodeterminazioa eskubidea dela. Gure ustez, joera hori gara liteke etorkizunean.

Hori dela eta, amaitzeko, abertzaleen ikuspuntutik, azaldu ditugun teoretatik bat aukeratu beharrean, eta berezko eskubideez mintzatu beharrean, teoria guztiak kontuan hartzen dituen argudiatze integrala adostu eta garatu beharko litzatekeela uste dugu. Azken batean, erabakitzekeo ahalmenari buruz ahalik eta adostasun zabalena lortzea da garrantzitsuena.¶

1. Lan hau egiteko Iñaki Sotok Eusko Jaurlaritzaren doktorego aurreko beka baten laguntza izan du.
2. Artikulua gaiari hurbilketa modura planteatzen da. Helburu nagusia gaia zertan den erakustea da, joera eta eztabaiden nondik norakoak azalduz, baina horregatik ez diogu uko egiten gure iritzia plazaratzeari, edo noizean behin Euskal Herriko egoerara hurbiltzeari.

Hurbilketa izaera dela eta, ezinbesteko idazlanetara mugatzen saiatu gara. Gehiago sakondu nahi duenak idazlan horien bibliografian aurki dezake abiapuntu egoki bat.

Artikuluaren iturria, bestalde, 2006ko ekainean Oñatin egin zen Sovereignty, Secession and the Right to Self-Determination: Challenges to the International Law kongresuan aurkezturiko txostenean dago, eta zatiren bat bertatik hartuta dago.

3. Hemen ikus daiteke politikari buruzko eztabaida teorikoan, nazioari buruzko eztabaidak eta autodeterminazioari buruzko eztabaidak barne, termino politikoak ezin direla termino instrumental hutsetara erreduzitu. Ikusi dugun bezala, arazo zenbait saihesteko, instrumentalismo leuna erabilgarria izan arren, termino politikoek esanahi ez-formal bat eduki behar dute (berdin balio du honek demokrazia edo nazio terminoentzat). Horregatik, testuan zehar esentzialismoa salatzen dugunean beste aukeren eta interesen baztertzalea den esentzialismoaz ari gara. Instrumentalismoa esaten dugunean, halaber, esentziasun klase horiek ukatzen dituen ikuspuntu politiko leun horretaz ari gara. Hala ere, ez dago aukerarik artikulu honetan esentzialismoari eta instrumentalismoari buruzko eztabaida teorikoan sakontzeko.

Bibliografia

- Buchanan, Allen (1991): *Secession. The Morality of Political Divorce. From Fort Sumter to Lithuania and Quebec*, Westview: Boulder.
- (1996): 'What's So Special About Nations?', 283-309 orr., in Couture, J. / Nielsen, K. / Seymour, M. -zuz.-, *Rethinking Nationalism*, Supplementary Volume, *Canadian Journal of Philosophy*, University of Calgary Press.
- (1997): 'Self-Determination, Secession and the Rule of Law', 301-323 orr., in McKim, Robert / McMahan, Jeff -zuz.-: *The Morality of Nationalism*, Oxford: Oxford University Press (T. Fernández Aúz eta Beatriz Eguibarren gaztelaniazko itzulpena (2003): *La moral del nacionalismo* (vol. I y II), Barcelona: Gedisa).
- (argitaratzeaz): 'Secession', in Zalta, Edward N. -zuz.-: *The Stanford Encyclopedia of Philosophy*.
- Connor, Walker (1994): *Ethnonationalism. The Quest for Understanding*, Princeton: Princeton University Press.
- Copp, David (1997): 'Democracy and Communal Self-Determination', 277-300 orr., in McKim, Robert / McMahan, Jeff -zuz.-: *The Morality of Nationalism*, Oxford: Oxford University Press (T. Fernández Aúz eta Beatriz Eguibarren gaztelaniazko itzulpena (2003): *La moral del nacionalismo* (vol. I y II), Barcelona: Gedisa).
- Gellner, Ernst (1983): *Nations and Nationalism*, Oxford: Blackwell (Javier Setóren gaztelaniazko itzulpena (1988): *Naciones y nacionalismo*, Madrid: Alianza).
- Hutchinson, John / Smith, Anthony D. -zuz.- (1994): *Nationalism*. Oxford: Oxford University Press.
- Macedo, Stephen / Buchanan, Allen -zuz.- (2003): *Secession and Self-Determination*, New York: New York University Press.
- Miller, David (1995): *On Nationality*, New York: Clarendon Press (Angel Riveroren gaztelaniazko itzulpena (1997): *Sobre el nacionalismo*, Barcelona: Paidós).
- (2004): 'National Responsibility and International Justice', 123-143 orr., in Chatterjee, Deen K. -zuz.-: *The Ethics of Assistance*, Cambridge: Cambridge University Press.
- Moore, Margaret (1997): 'On National Self-Determination', *Political Studies* XLV, 900-913.
- -zuz.- (1998): *National Self-Determination and Secession*, Oxford: Oxford University Press.
- Nielsen, Kai (1998): 'Liberal Nationalism and Secession', 103-133 orr., in Moore, Margaret -zuz.-: *National Self-Determination and Secession*, Oxford: Oxford University Press.
- Orentlicher, Diane F. (2003): 'International Responses to Separatists Claims: Are Democratic Principles Relevant?', 19-49 orr., Macedo, Stephen / Buchanan, Allen -zuz.-: *Secession and Self-Determination*, New York: New York University Press.
- Philpott, Daniel (1995): 'In Defense of Self-Determination', *Ethics* 105, 352-385.

— (1998): 'Self-Determination in Practice', 79-102 orr., in Moore, Margaret -zuz.-: *National Self-Determination and Secession*, Oxford: Oxford University Press.

Van Walt, Michael / Seroo, Onno -zuz.- (1999): *The Implementation of the Right to Self-Determination as a Contribution to Conflict Prevention*, Barcelona: Centro UNESCO de Catalonia.

Olentzero, non zaude?

Gogoeta bat Iruña-Veleiari buruz

PRUDEN GARTZIA

Azkue Bibliotekako zuzendaria

I

Zer da euskara? Galdera horrek erantzun azkar eta erraz bat du, autoebidientea: euskara hizkuntza bat da, beste edozein bezalakoa. Baieztapen horretan bermatuz pertsona ugari (eta ez nolana hikoak) euskararen despolitizazioa eskatu dute behin eta berriro, alegia, euskarari buruzko kontu ororen tratamendua oinarri horren gainean epaitzea, eta kitto. Adibidez, euskara komunikazio tresna bat da, ez besterik, ez dezagun politikarekin *nahastu*, edo, Iruña-Veleiako aurkikundeak direla-eta, mintza gaitezen *filologo gisa*, hots, gure komentario guztiak Zientziaren inperatibo metodologikoen arabera mugatuz. Eta kitto. Euskara hizkuntza bat da, beste edozein bezalakoa, beraz, zientziaren ordua da, eta isil bitez ezjakinak.

Baina errealitatea asmo zintzo guztiak baino harantzago doa eta, nahitaez, bere legea ezartzen digu: euskara, hizkuntza bat izateaz gain, bada ere beste zer bait, alegia, euskal nortasun politikoaren zurkaitz nagusia. Hau da, euskara euskal nazionalismo mota ororen osagai garrantzitsua da,

abertzaletasun erradikalenetik hasita autonomismo epele-neraino. Eta, ondorioz, debate politikoaren halabeharrezko osagaia da, geuk nahi ez izanda ere. Erronka, beraz, ez da euskara debate politikotik ateratzea, debate politikoa bera razionalizatzea baino. Ez besterik.

Zeren euskarari buruzko debate politikoa oso irrazionala izan ohi da, gure sentimendu primarioenek goitik behera kutsatua. Normala da. Zeren, ez dezagun ahanz sarritan gehiegizko zuzentasun politikoaren izenean aipatu gabe uzten ohi dena, hau da, espainiar nazionalismoaren helburu nagusietako bat Espainia linguistikoki uniformizatzea da, argiago esanda, euskara (katalana, galiziera, asturiera eta aragoiera) desagertaraztea. Helburu hori komuna da ezkerreko nazionalismo progresistenetik eskuineko nazionalismo klerikalenera. Aldatzen dena helburua erdiesteko bidea da (hots, taktika), ez helburua bera: batzuentzat euskara etsai zuzena da; beste batzuentzat, aldiz, aldarte onez soportatu behar dugun *kapritxo* absurdo eta garestia, zibilizazioaren aurrerabideak lehenago edo geroago ezabatuko duena. Normala da debatea gatazkatsua suertatzea.

* * *

Historiari begiratuta espainiar nazionalismoa Euskal Herriko abertzaletasuna baino lehenagokoa eta indartsuagoa da. Haren sorrera XIX. mende hasieran kokatu ohi da, Napoleonen inbasioaren aurkako gerratean. Hastapeneko une haietan eta mende osoan ia, batez ere jite liberalekoa izango da nagusiki, hots, nolabait progresista eta ezkertiarra, baina katolikotasunaren itzala atzetik segika duela, harik eta Espainiako Eliza bera nazionalismora osoki eta suharki konbertitzen den arte. XX. mendean, jakina denez, katolizismo klerikalista eta faxismozale baten garaitia ikusten dugu gerra zibilaren errautsen artean gotortzen, hain fanatikoki nazionalista ezen jatorrizko nazionalismo liberalaren oroitzapena bera ere ezabatu baitzuen gehienon gogotik.

Hurrengo hamarkadetan espainiar nazionalismoa frankismoarekin berdindu ohi zen eta, ondorioz, sustrai liberaleko nazionalista espainolak unibertsalismo antinazionalistaren zazpigarren zerura propulstatuak izan ziren; gaur egun gehienek oraindik han diraute, nazionalismo ororen (eta batez ere euskal nazionalismoaren) kontrako aldarrikapen barregarriak jaurtiz, beren guraso intelektualak lotsagorritzeko modukoak. Baina agian gure lana da beren inkoherentziak salatzea.

Zeren sustrai liberaleko espainiar nazionalismoaren guraso intelektualek ez baitzuten inolako lotsarik beren nazionalismoa lau haizetara zabaltzeko eta euskararentzako (adibidez) zeukaten mespretxua adierazteko. Intelektual hauei zor diegu XIX-XX. mende belaunean Espainiaren nortasun politikoaren birformulazio oso bat, klabe nazionalistan egina, mendean zehar eliteen artean izugarritzko arrakasta izan duena eta gizartearen sektore guztietara zabaldu dena. Hiru izen eman ditzagun: Unamuno, Menéndez Pidal eta Ortega y Gasset. Horiek hirurak dira gaurko Espainiaren guraso intelektualak, nahiz eta ez bakarrak, Historia beti oso konplikatua delako, eta paradoxaz josia.

Jakina denez, 36ko Gerra Zibila da gure historia hurbila ulertzeko gako nagusia. Bada, orain axola digun arazoari dagokionez, faxisten altxamenduak guztiz zigilatu zuen ordura arte franko problematikoa zen aliantza politiko-intelektual bat, alegia, bat-batean espainiar nazionalista liberalek kataluniar errepublikazaleekin eta euskal nazionalistekin ikusi zuten beren burua, guztiak itsasontzi berean, eta komunisten eta bestelako *iraultzale* batzuen eskutik. Aliantza hori (tazitoa edo esplizitua, orain berdindio) berez urte batzuk lehenago Errepublikak ezartzeko eta kudeatzeko abiatu bazen ere, gerrak halabeharrezkoa bihurtu zuen, baina, adi, ez zen erraza inorentzat. Horrek esplikatzen du sektore guztietatik etengabeko desmarkajeak, ñabardurak eta barne-borrokak gertatzea. Baina, finean, Francisco Francok dekretatu zuen guztiak zirela berdindin arriskutsuak Espainia *berriarentzat* eta,

ondorioz, neurri batean edo bestean elkarrengana bildu ziren antifrankismoan eta demokrazia berrezartzeko Trantsizio Politikoan. Eta, gure arazoarentzat garrantzitsuagoa dena, elkarrengana bildu ziren Autonomien Estatua sortu eta kudeatzeko, bai orain dela hogeita bost urte, bai azken bi urteotan abiatzen ari den estatutuen berregokitze fase berrian.

Beraz, Hego Euskal Herriari dagokionez aliantza taktiko iraunkor bat izan dugu espainiar nazionalista liberalen eta euskal nazionalisten artean. Prieto eta Jose Antonio Agirre. Gorabeheratsua izan arren, gaur egun arte iraun du eta, beharbada, hurrengo urteetan berriz ere sendotu egingo da. Bada, nire hipotesia da aliantza hori guztiz sustraitu zela Hego Euskal Herriko gizartearen sektore oso zabaletan, politikaz haratago, bereziki kulturari eta euskarari dagokionez sentimendu konpartitu batzuk sortuz. Sasoi batean esaten zen bezala, frankismoan *elkarrekin pasatutako sufrimenduak* izan dira euskal gizarte berriaren zinezko ingudea.

Ikuskera honek beharbada ñabardura batzuk beharko lituzke. Adibidez, ezaguna da Euskal Herrian (eta Espainian) sozialista autodeitzen diren askoren erreferente ideologiko eta intelektualak sozialismoan baino liberalismoan bilatu behar direla (horrek ez du esan nahi ez dagoela osagai sozialistarik). Edo, baita ere, euskal nazionalisten artean aspaldi gauzatu zela zatiketa sakon bat, ezker abertzalea sortuz; baina gizartearen baitan oraintsu arte bederen neuk ez dut zinezko zatiketarik sumatu (azken urteotan bai, jakina). Horretaz gain, azpimarratu beharko genuke Jose Antonio Agirrek, bere eskuindartasuna gorabehera (eta demokrata zen, jakina, baina eskuindarra), gai izan zela Alderdi Komunista bere gobernuan integratzeko, eta ildo hori gaur egun arte luzatzen dela.

* * *

Baina prolegomeno luze horien ondoren, bada ordua gaiari heltzeko. Zer da euskara, galdetzen genuen hasieran; bada, nire hipotesia da galdera horrentzat erantzun konpartitu bat

izan dugula 1936tik aurrera, bai espainiar nazionalista liberalek (Euskal Herrian erruz daude), bai euskal nazionalistek (beren adar desberdinetan), bai Euskal Herriko sektore iraultzaile/internazionalistek (komunistak, anarkistak...). Alegia, guztiok gutxi gorabehera antzeko erantzuna emateko gai izan gara, eta hori ez da kasualitatez gertatu, baizik eta 36an sortutako koalizio zabal batek gaur egun arte iraun duelako.

Erantzun horrek neurri bateko adostasuna biltzen du, berriro esango dut, neurri batekoa soilik, ez besterik. Baina adostasun hori oso erreala izan da euskal gizartean, gaur egun arte.

Baina aski luzamendu izan dugu; berriz ere galdetu behar dugu: zer da euskara?

Olentzero da euskara. Kitto.

Alegia, euskararen onarpen soziala Olentzeroren onarpen sozialaren berdina da. Ez gehiago, ezta gutxiago ere. Horixe. Besterik ez.

Gogora dezagun, beraz, nola sortzen den gaur egungo Olentzero. Jatorrian, Nafarroa iparraldeko eta Gipuzkoako zenbait herri txikietako pertsonaia mitiko bat da, hots, tradizio gutziz rural bat eta, hau bereziki garrantzitsua da, orain dela ehun urte ere marginala; euskaldunen artean ere rurala eta marginala. Bada, frankismorik gorriean, herriz herri eta auzoz auzo, guraso anonimo eta militante batzuek (gutxi, zergatik engaina), bereziki ikastoletan, tradizioa jaso, moldatu, kalera atera eta euskararen sinbolo bihurtzen dute. Gabonetan, gizarteak bere burua afirmatzeko urteko ospakizun kolektibo garrantzitsuenak antolatzen dituenean, guraso anonimo hauek plazara ekartzen dute arrazoi bategatik edo bestegatik frankismoaren uztarripen pozik bizi ez ziren guztiek sinpatiaz ikus zezaketen pertsonaia baten irudia: Olentzero.

Eta zer da Olentzero? Olentzero mendian bizi da, urrun, oso urrun, mundu zinez mitiko batean. Mundu horretan naturarekin bat eginda dago, ez dago ezer modernorik, ez dago ezer artifizialik. Gure sentimendu primarioenen mun-

dua da, zibilizazioak hondatu gabeko mundu bat, guk geuk galdu egin duguna baina, mirari baten bidez, urteko gaurik inportanteenean guregana datorrena, bereziki gure etxeko kiderik inozente eta garbienengana, umeengana. Olentzero umeen jeinu maitagarria da, eta ume txiki guztiek Olentzeroren laguntzaile izan nahi dute handitzean, maitasun hutsazko mundu zoragarrian bizi, hala nola Peter Panen Sekula Inoizko lurraldea. Olentzero da gure Peter Pan euskalduna. Utikan Errege Magoak, beren botere eta aberastasunekin! Utikan Santa Claus *hiritarra*! Olentzero *barruan daramagun* jatorrizko inozentzia da. Eta horixe besterik ez da izango euskara, *barruan daramagun* jatorrizko inozentzia.

Testuinguru horretan abiatu da euskararen berreskurapen prozesua frankismoan. Guraso militante eta hiritar batzuek uko egiten diote euskara galtzeari. Gehienak ez dira baserritarrak, areago, askok ez dakite euskaraz. Hirian bizi dira, baina euskara berreskuratu nahi dute, beraiantzat edo beraien umeentzat. Eskolak antolatzen dituzte, klandestinoak lehenago, nolabait legalak gero. Baina zerbait garrantzitsuagoa ere egiten dute: sinbolo bat sortzen dute, erregimenarekin identifikatzen ez ziren guztiek onar zezaketen sinboloa: Olentzero.

II

Euskarazko eskolen edo euskararen irakaskuntzaren kasuetan bezala, Olentzeroren sorrera eta jatorrizko hedapena frankismo denboran gertatu bazen ere, zinezko hedapen sozial eta geografikoa autonomien aroan gertatu da, hots, EAEn eta NFEn estatutu eta erakunde autonomiko berriak sortu eta mamitu diren aroan.

Baina horretan ere fase desberdinak ikus daitezke. Hasierakoa hedapen hutsaren fasea genuke: gero eta Olentzero gehiago, gero eta jendetsuagoak, Euskal Herriko gero eta toki gehiagotan, euskararen presentzia historikoki hutsaren hurrengo den lekuetan ere. Eta den-denak Olentzeroren alde, inor ez kontra, edo, kontra leudekeenak ere isilik. Alda-

ketaren lehen zantzu garrantzitsuak ziur aski Araban ikusi ziren, *Unidad Alavesa* alderdi berriaren sorrerarekin (1990). Ez da ahanztekoa zein gorroto bizia erakutsi zuten Olentzerori erasotzeko, biñeta eta komiki laburren bidez behin eta berriro haren irudia erabiliz beren proposamen politikoen ardatz gisa: Olentzero *kanpotik* etorritako *lapurra* zen, ez besterik, pertsonaia *siniestro* bat, arabar umeak *engainatzeko* xedea zuena asmo guztiz ilun eta gaiztoekin. Alternatiba Errege Magoak ziren. Proposamen horren arabera Erregeak ez ziren frankismoan sortu eta hedatutako figura batzuk (zinez hori da beraien jatorria) baizik eta *betiko tradizioa*. Beraz, Olentzero *asmatua* eta *kanpokoa* zen; Erregeak *berezkoak* eta *bertakoak*. Inkonpatibilitatea erabatekoa zen. Ez goaz orain laburtzera borroka ideologiko horren etapak, emaitza orokorra besterik ez: Gasteizen Erregeen desfilea berriz ere indartzen hasi zen eta Olentzerorena moteltzen; bereziki, PPK alkatetza eskuratu zuenetik oso garbi egon da zein izan den erakunde horrek bultzatu nahi izan duena. Eta, egia esan, gizartearen zati handi-handi baten babesa lortu du.

Esango nuke bilakaera oso antzerakoa izan dela bazter guztietan, hots, azken urteotan Erregeen desfileek indar handia hartu dutela eta Olentzerorenak, aldiz, ahulduz joan direla. Bereziki aipagarria iruditzen zait Iruñeko kasua, non eta PPren alkatetzaren eskutik (tira, Nafarroan PPren izen ofiziala UPN da) Olentzeroren desfileak debekatzearaino iritsi diren, isunak jarriz. Eskuin espainolistak berriz ere agerian erakusten du euskarari dion gorroto bizia eta jarrera horrek, azken hamarkadetan ez bezala, gizartearen zati baten babesa lortzen du.

Baina, poetak esaten zuen bezala, agian *geurea dugu erru guztia*, *geurea dugu osoa*. Edo, behintzat, zati bat. Adibidez, ez da ahanztekoa ere orain dela urte batzuk Gipuzkoako herri txit euskaldun eta txit abertzale batean gertatua: Olentzeroren arrakasta bestelako eskakizun batzuk sustatzeko erabili nahi izan zen, zehatz-mehatz esanda, euskal presoen auzia. Ondorioz, urte batean Olentzero kaiola baten barruan

atera zuten kalera, bera ere preso. Bai, ondo irakurri duzue. Imajina ezazue herriko umeek hartu zuten shocka eta guraso asko eta askoren haserrea. Ez dakit historiatxo horren xehetasunik, baina bai ondorioena: handik urte bat edo bira, herrian Olentzero bat eta bakarra egon beharrean, bi sortu ziren, bata *instituzionala* eta bestea *popularra*. Herri bat, bi Olentzero. Bapo.

Baina ez ziren penak hortxe amaitu, ez. Hurrengo etapa bi Olentzeroren arteko borroka izan zen, desfilearen ordutegia eta ibilbidea zirela-eta. Finean, urte batean behintzat, herriko plaza bakarrean (herri horrek plaza bakarra du) umeek bi Olentzero ikusi ahal izan zituzten batera, bata izkina batean, bestea bestean. Ez dakit posible ote den hondamendi handiagorik imajinatzea, baina zinez diotsuet, hau ez da txiste txar bat, hau benetan gertatua da. Pentsa ezazue herri horretako umeengan eta beraien gurasoengan.

Azken ondorioak ez luke inor harritu behar: herriko gazte batzuek Errege Magoen desfilea berpiztea erabaki zuten, Olentzeroren sorreraren lehen urteetatik bertan behera utzitako desfilea hain zuzen ere. Ez dut uste kasu honetan inolako kalkulu politikorik sartu zenik tartean. Ez, esplikazioa askoz ere errazagoa da: leporaino zeuden Olentzeroren borrokarekin, guztiz nazkatuta.

Gaur egun, herri horretan, EAEko toki gehienetan bezala, Olentzeroren desfilea eta Erregeena, biak ospatzen direla uste dut. Orobat, esango nuke ume askok eta askok (gehienek?) bai Olentzeroren eta bai Erregeen opariak jasotzen dituztela, batzuk etxean, besteak amamarenean, eta abar. Olentzerok ez du lortu Errege Magoak ordezkatzeta, osatzea baizik. Une honetan esango nuke horixe dela gure benetako egoera: nolabaiteko oreka.

* * *

Baina gure gizartean euskararen eta gaztelaniaren arteko oreka oso hauskorra da. Eta hori batez ere arrazoi batenga-

tik: gorago esan dugun bezala, espainiar nazionalismoaren helburua euskara desagertaraztea da. Eta presio hori etengabe dago gure gainean.

Dena dela, espainiar nazionalismo eskuindarrean helburu hori ia-ia ageriki planteatzen den arren, ez da berdin gertatzen espainiar nazionalismo liberalean. Egoera hobeto ulertzeko baliagarria izan daiteke frantses nazionalismo progresistarekin pentsatzea. Alegia, ez da batere dudarik frantses ezkertiarren ideologiaren osagai jakobinoa eta, ondorioz, helburu garbitzat izan dute, eta dute, Frantziako hizkuntza guzti-guztiak desagertaraztea (frantsesa salbu, jakina). Baina helburu hori erregimen politiko demokratiko baten baitan proposatu (eta ia-ia gauzatu) dute. Espainian, aldiz, gerra zibil baten ondorioz eta diktadura faxista baten baitan, hau da, espainiar liberal eta ezkertiarrek ere kolpatzen zituen erregimen batean. Ondorioz, garbi badago ere espainiar nazionalismo liberala eta frantses nazionalismo jakobinoa anaia ideologiko bikiak direla, 36ko gerra zibilak bestelako aliantza batzuk sortu zituen, bai politikan, bai gizartean.

Berez, garbi dago 36ko gerra euskararentzat hekatonbe bat izan zela, baina, paradoxikoki, luzera izan zuen ondorio onuragarrikerik ere, Frantzian ez bezala. Alegia, 1960tik aurrera Hego Euskal Herrian bigarren industrializazio handitik eta espainiarren immigrazio masibotik sortzen den gizarte berriak *osagai konpartitu* bat zeukan euskararen berreskurape-na ahalbidetuko zuena: antifrankismoa, elite politikoen artean ez ezik gizartearen sektore zabal-zabaletan konpartitua.

Zeren antifrankismo horren baitan euskarak bazeukan toki bat, aski atsegina: barne sentimenduen mundua. Horren arabera, Euskal Herriko espainiar nazionalista liberalek ere txoko bat egin zioten euskarari beraien bihotz eta asmoetan eta, haren etorkizunaz guztiz eszeptikoak baziren ere (*progresoak* desagertaraziko zuen euskara, Frantzian bezala), prest agertu ziren euskararen aldeko politika bat onartzeko; pragmatismo politikoak eraginda, lehenengo eta behin, baina baita ere errepresio frankistak hunkituta, ziur aski. Bes-

talde, euskal abertzaleak ere gai izan ziren beren ideologia eta asmoak berrizteko, dela demokrazia kristauaren bidez, dela munduko *ezker berriaren* ildotik.

Baina, ororen buru, antifrankista horiek guztiak kultura berri bat sortzeko gai izan ziren: Pio Baroja, Unamuno, Sabino Arana, Azkue eta Barandiaran, adibidez, guztien ekarpenak sintesi bakar eta guztiontzat onargarri izan zitekeen batean sortzeko eta zabaltzeko. Arantzazuko santutegia da, ziur aski, kultura horren seaska. Salvatore Mitxelenaren eta Txillardegiren Arantzazu. Gandiagaren eta Oteitzaren Arantzazu. Gabriel Arestiren eta Joxe Azurmendiren Arantzazu. *Jakinen* Arantzazu. Koldo Mitxelenaren, Villasanteren eta Euskaltzaindiaren Arantzazu. Eta beste hainbat eta hainbatena. Nabari-nabaria da kultura berri horretan abertzaleek zeukaten pisu hegemonikoa baina, halaber, nabarmena da ere sasoi horretan abertzaleek espainiar nazionalista liberalak erakartzeko eta beraiekin asmo berriak konpartitzeko zeukaten ahalmena: Blas de Otero, Julio Caro Baroja, Gabriel Celaya, Agustin Ibarrola...

Demokrazia Espainian berriz ere ezarri zen unetik gauzak nahikoa aldatu ziren. Edozein hizkuntza-politika, daitekeenik moderatuena izanik ere, beti irudituko zaie gehiegizkoa espainiar liberalei, ia-ia definizioz. Baina prest zeuden zenbait neurri onartzeko. Honela ikusten zuten beraiek euskara: hizkuntza primitiboa, rurala, garapen eta arnas gutxikoa, baserriari lotua eta, gehienez ere, sentimenduen barne mundua espresatzeko erabil zitekeena, beti ere pribatua, jakina. Hala ere, prest agertu dira hezkuntza munduan sartzeko, poliki-poliki, eta administrazioan eta komunikabideetan nolabaiteko sarrera izateko; beti ere, hau da oinarritzko baldintza, *nahi dutenentzat*, alegia, gaztelaniaren erabateko hegemonia zalantzan jarri gabe.

Jarrera hori sustengatzeko Ramón Menéndez Pidak mendeko hasieran sortutako zenbait mito historiografiko erabili dituzte. Oinarritzkoena hauxe da: Euskal Herria *beti* izan da *elebiduna*, alegia, Euskal Herrian beti egon izan dira bi

hizkuntza. Baina, kontuz, hizkuntza bi horiek inoiz ez dira egon maila berean: beti egon izan da *kultur hizkuntza bat* (latina lehenengo, gaztelania gero) eta *bigarren mailako bat* (euskara). Beraz, euskara euskaldunen hizkuntza da, bai, baina euskaldunek eurek soilik bigarren mailako kontuentzat erabili izan dute beti: adibidez, euskaldunek zerbait idatzi behar zuten guztietan latinera edo gaztelaniara jo izan dute; bereziki literaturan, inoiz ez da zinezko literaturarik egin euskaraz. Euskara beti izan da rurala, baserriarekin lotua edo, gehienez ere, erlijio kontuekin (eta badakigu liberalentzat erlijioa beti *ilunkeria atzerakoia* dela). Eta, azken mitoa, eta ziur aski garrantzitsuena: hiriak dira Kulturaren gortorlekuak, zibilizazioa hedatzeko guneak, eta hirietako hizkuntza gaztelania da (lehenago, latina), inolaz ere ez euskara. Hitz batez, euskarak baserri usaina du edo, gehienez ere, iraganeko mundu mitiko baten oihartzun maitagarria da. Maitagarria baina hutsala, denboraz desagertuko dena.

Mito horiek gaztelaniarekiko goresmen hanpatuekin osatu ohi dituzte, baina ez dugu bide horretatik segituko. Hau xe bai interesatzen zaigu azpimarratzea: oro har, abertzaleek ere ontzat eman izan dituzte mito horiek. Alegia, ontzat eman da euskararen izaera rurala baina, eta hortxe zegoen aldea, Historiaren kontra borrokatu beharra predikatu da: euskara, jalgi hadi plazara; bihur dezagun euskara kultura hizkuntza; egin dezagun zinezko literatura bat; sar dezagun euskara bizitza urbanoan; finean, Bernardo Atxagak berriki plazaratu duen bezala, sor dezagun Euskal Hiria. Edo Euskal Herri euskalduna? Edo biak?

Edo, beste modu batean galdetuta: zer da elebitasuna abertzaleontzat? Espainiar liberalentzat ez dago dudarik: bi mailako hizkuntza elkarren ondoan bizitzea, bakoitzari dagokion mailatik ateratzen saiatu gabe. Eta badakigu zein den euskarari esleitzen dioten maila.

Baina zer nahi dugu abertzaleok? Gaztelania ordezkatzeara parekatzea? Zein da Bernardo Atxagaren proposamenaren sakoneko esanahia?

III

Euskarari dagokionez, azken bost bat urteotan abiatu ezin den iraultza baten erdian bizi gara. Zantzu asko daude hori baieztatzeko baina Iruña-Veleiako aurkikundeak *de facto* erabakigarriak bihurtu dira.

Lehenengo eta behin, 1989an Berlingo Harresia erori zenetik mundua asko aldatu da. Kapitalismoaren erabateko nagusitzeak Santa Clausen hegemonia mundialaren areago-tzea ekarri du eta, zertarako engaina, Olentzerorena bezalako proposamenak mundu *globalizatu* honetan ez dira lehen bezain erakargarriak. Gainera, Erregeek malgutasun handiagoa erakutsi dute kultura *komertzial* berrian integratzeko, beren desfileak Rio de Janeiroko ihauterien kopia bihurtuz. Eta harrera ona dute gizartean.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak bultzatutako hizkuntza politikaren mugak gero eta nabarmenagoak dira: nola pentsa euskarari gizarte mailan duintasuna emango diola bere administrazioa bera, zerotik sortu arren, euskalduntzeko bidean erabateko porrotik mingarriena jaso duenean? Eta ez etorri koplatan: Lakuak goitik behera gartzelaniaz funtzionatzen du, goitik behera. Hori sintoma bat baino zerbait gehiago da.

Nafarroan, berriz, UPNren hegemoniak hankaz gora bota ditu urte luzeetako lanak. Eta ez dirudi alternatiba garbirik dagoenik. Baina okerrago daude gauzak Iparraldean, non eta zaila egiten den euskararen etengabeko galeraren tune-laren bukaeran argirik ikustea.

Baina, bereziki, Hegoaldeko euskal gizartean azken hamarkadetan euskarari buruz zegoen oinarrizko *sentimendu konpartitua* arrakalaz josia dago. Izango da honegatik, horregatik edo hargatik, baina ez azken lekuan ETAREN jardueraren armatuaren ondorioz. Bai, egia begitantzen zait Bernardo Atxagaren esana, Joan Mari Torrealdai etxetik preso ateratzen ikustea aro baten zinezko bukaera izan zela. Garbi dago, nire irudiko, Francisco Tomás y Valienteren, Miguel An-

gel Blancoren eta Fernando Buesaren hilketen ondoren (1996, 1997 eta 2000), amildegi bat zabaldu zela espainiar liberalen eta euskal abertzaletasun ororen artean, eta, lehenengo aldiz Errepublikaren denboretatik, amildegi hori mailaz maila gizartearen sektore zabaletara hedatu zela. Ondorioz, espainolismoaren sektore gogorrenek bidea libre ikusi zuten euskararen kontra ageriki jotzeko, *Euskaldunon Egunkaria* itxiz eta bere sortzaileak atxilotuz terroristak izatearen akusaziopean. Eta, tamalez, ez da egia Euskal Herri osoa altxatu zela haien defentsan. Ez, lagunok, Euskal Herriko abertzaleok altxatu ginen, ez beste inor.

Zeren, zer duzu, Arantzazu, espainiarren gorrotoa pizteko? Ez al da oraindik izugarriagoa jakitea, bazterrotan entzun den bezala, gau horretan bertan Guardia Zibilaren Land Roverrak Arantzazura bidean zihoazela gelditu omen zituztela Burgos parean, oraindik ere Madrilen burua guztiz galdu ez zuen norbaitek aginduta? Zertara zihoazen Arantzazura? Basilika ixtera, egunkaria bezala? Ez al da zentzuzkoa eta egiazkoa esatea euskararen bihotza jotzea zutela helburu? Eta nola erreakzionatuko zuten orduan euskaldunek? Egunkaria ixteagatik egin zen manifestazioa ikusi ondoren, beldurra ematen du pentsatzeak Arantzazun sartu izan balira zer gertatuko ote zen hurrengo egunetan. Badirudi Madrilen ere norbait konturatu zela eta atzera egin zuela. Esker-rrak.

Arantzazu da euskararen bihotza esan dut, euskararen sehaska. Hala izan zen euskaldunentzat frankismo denboran. Hor sortu zen euskal kultura berria, euskal berpizkundea. Baina orain, ia sinbolo hutsa da; fraideak guztiz zahartuta daudelarik, ez dago erreleborik eta garbi dago Arantzazuk iraun nahi badu aldaketa latzei aurpegi eman beharko die-la. Fraideak eta eliztarrak ere aspaldi konturatuta daude. Baina euskaltzaleok? Konturatzen ote gara euskarari dago-kionez aro baten bukaeran gaudela? Konturatzen ote gara Arantzazun Gandiaga eta Oteitza artean sortutako diskurtso euskaltzalea guztiz zahartuta geratzen ari dela? Kontura-

tzen ote gara gure Olentzero maitea kinka larrian dagoela?
Olentzero, non zaude?

* * *

Luze mintzatu gara nazionalismoaz. Orain gatozen Veleiara, bada ordua eta. Zeren Veleia, funtsean, euskararentzat diskurtso berri baten posibilitatea da. Jantzi zaharrak bota eta berriak egiteko aukera.

Esan dezadan, beste ezer baino lehen, oraindik ez dagoela guztiz argi Iruña-Veleiako aurkikundeak guztiz egiazkoak izatea. Adibidez, euskaltzainen artean ere iritziak banatuta daude: Henrike Knörrek argi eta garbi sustengatu du aztarnen egiazkotasuna, baina Xabier Kintana lehen-lehen momentutik ageri izan da guztiz uzkur. Unibertsitatean Joaquin Gorrotxategi eta Santos Yanguas garbi mintzatu dira prentsan aztarnen egiazkotasunaren alde, baina beste asko isilik daude. Gutxi dira erabateko iritzi bat emateko gai sentitzen direnak. Garbi dago Lazarragaren eskuizkribuaren aurkikundeak lehen momentutik lortu zuen erabateko adostasuna kasu honetan ez dela errepikatu. Espezialisten esparrutik irtenda ere, Jon Juaristi eta Antonio Rivera bezalako intelektualek iritzi desberdinak agertu dituzte, baina biek aipatu dute kontua oraingoz aidean dagoela.

Normala da. Alde batetik, gogora dezagun berria nahi baino lehenago atera zela prentsan, filtrazio baten ondorioz. Hau da, txosten teknikoak oraindik bukatu gabe daudenean. Eta prentsan baino jasotzen ez diren berriak ez dira aski izaten espezialistentzat. Gogora dezagun Lazarragaren eskuizkribuaren kasuan hasiera-hasieratik internet bidez kontsultatzeko moduko kopia faksimile bat paratu zela eta, beraz, edozeinek ikus zezakeela zuzenean eta bere ondorioak atera. Oraingoan ez, jatorrizko piezak ez dira jende aurrean aurkeztu eta espezialista gehienek nahiago dute zuhur jokatzea.

Baina, bestalde, Iruña-Veleian euskarazko inskripzio batzuk aurkitzea egundoko iraultza izan bazitekeen ere, ins-

kripzio *hauek* aurkitzeak kontuari dimentsio berri eta erabat ezezaguna eman dio. Zergatik? Hitz batez esanda, zinezko iraultza bat dakarkiotelako euskarari buruz orain arte genekienari, alegia, Menéndez Pidalek sortu eta haren atzetik guztiek gutxi gorabehera ontzat emandako paradigmari: euskara eta hiriak antitetikoak izan dira, euskara rurala da.

Jakina, esan daiteke, abertzaleen artean bederen, azken hamarkadatan inork ez duela inoiz paradigma hori ontzat eman erradikalki eta bere osotasunean, baina garbi dago ere ez dela modurik egon paradigma alternatiborik eskaintzeko. Ondorioz, euskal literaturaren egilerik distirantenak, hots, argi eta garbi ruralak ez zirenak (Etxepare, Leizarraga, Oihernart...) *salbuespen gisa* tratatu izan dira sistematikoki. Beste hamaika kontu ere aipa daitezke ildo berean, baina orain bat interesatzen zaigu bereziki: Araba.

Eta Arabaren ildotik zenbait kontu elemental gogoratzea komeni zaigu. Lehenengo eta behin berriro ere azpimarratuko dugu zein den espainiar nazionalismoaren helburu estrategikoa: Espainiaren uniformizazio linguistikoa, hots, euskara (besteak beste) desagertaraztea. Xede horren aurka paratu den indar nagusia euskal nazionalismoa izan da; ondorioz, Espainiazaleek balizko Euskal Herri beregain baten aurkako diskurtso desberdinak landu dituzte, guztiak ezauzgarri komun bat dutenak, *zaticatu eta menperatu* adagioaren bidez deskribatzen den taktika klasikoa. Honela, lehenengo eta behin, Nafarroa eta Hegoaldeko beste hiru probintzien batasuna ukatu da: historikoa, kulturala, soziala, politikoa... baina baita linguistikoa ere.

Kontu horretan une batez pausatuko gara. Gaur egungo ikuskeran harrigarria badirudi ere, XX. mendearen hasieran Menéndez Pidalek mendebaldeko hiru probintzien euskaltasuna ukatzen zuen, baieztatuz nafarrak zirela zinezko euskaldun (baskoi) bakarrak; Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba Gaztelaren parte *naturala* ziren. Teoria horri segituz Pidalen ikasle batek, Sánchez Albornozek, urrats berri bat egin zuen: euskara nafarrek eraman zuten hiru probintzietara, Antzinate Be-

rantiarrean edo Erdi Aroaren hasieran gauzatutako hedapen fase batean; beraz, erromatarren garaian Araba, adibidez, ez zen euskalduna, Errioxa bezala. Teoria horrek izan zezakeen oinarri zientifikoa alde batera utzita (eta ez da txantxetakoa, nahiz eta gaur egun ia inork ez duen defenditzen) nabarmena da Menéndez Pidalek eta Sánchez Albornozen teoria *zientifikoek* helburu *politiko-ideologiko* garbi bat zeukatela: euskal lurraldeen arteko batasuna zatikatzea eta, ondorioz, ideologikoki menperatzea. Istorio honen alde barregarria Francoren heriotzaren ondoren hasten da, espainiar nazionalistek zientifikoki nahikoa sendo irauten zuen planteamenduari buelta ematen diotenean, alegia, aldarrikatzen hasten direnean zinezko euskaldun bakarrak hiru probintzietakoak direla eta nafarrak ez direla euskaldunak (UPNk dixit). Menéndez Pidalek burua altxatuko balu sorpresa ederra hartuko luke (nolako bueltak ematen dituen bizitzak!) baina ez dut us-te harrituko zenik. Finean, helburua beti berbera da: euskal lurraldeen arteko zatiketa areagotzea eta justifikatzea.

Zatiketaren joko horretan Arabak bigarren mailako pape-
ra jokatu izan du beti, baina momentu batzuetan oso ga-
rrantzitsua izan da. Honela, espainiar nazionalismoa beti
saiatu izan da alabesismoa sustatzen eta Araba kostaldeko
probintzien kontra paratzen. Berriz ere zatitzea eta menpe-
ratzea da helburua. Ildo horretan *Unidad Alavesa* alderdia-
ren historiak laburbiltzen du azken episodua, baina ez de-
zagun ahantz alderdi hori formalki deseginda badago ere,
bere diskurtoaren zati handi batek bizirik dirauela han-he-
menka. Topikoak nabarrismoarenaren berberak dira: eus-
kara *kanpoko* da, hemen ez da *inoiz* euskaraz hitz egin, eta
abar. Sánchez Albornozen teoria oso goraki aipatzen ez ba-
zen ere (ez da erraza nabarrismoaren diskurto berriarekin
bateratzea) garbi aitortu behar da funtzionatzen zuela eta
arabar gizartearen zati handi baten babesa lortu duela.

Testuinguru horretan Lazarragaren eskuizkribuaren aurki-
kunda lehen kolpe handia izan zen paradigma tradizionala-
rentzat. Bi tabu handi bota zituen: euskarazko Ernazimentu

baten aukera zabaldu zuen eta euskal eliteen euskaltasuna azpimarratu, XVI. mende inperialean ere, bereziki, Araban. Baina oraindik bigarren mailako kontuak dira. Bene-beneta-ko iraultza une honetan hasten da, alegia, Iruña-Veleian ondoko inskripzioa aurkitzen denean: *Jesus, Jose aita eta Miriam ama*. Eta zergatik? Bada, horrek goitik behera porrokatzen duelako ordura arteko paradigma zientifikoaren zutabe nagusia: euskara eta hiriaren arteko bateraezintasuna.

Kontura gaitezen: IV-VI. mendeko euskal hiri nagusian (Iruña-Veleian), ez bakarrik euskaldunak bizi ziren, ez bakarrik euskaraz hitz egiten zuten, baizik eta baita ere euskaraz idazten zuten sasoi horretako gauzarik modernoena eta kultur mailarik altuena eskatzen zuena: erlijio kristaua. Beraz, hiriak ez dira jada latinaren, Kulturaren eta Zibilizazioaren (biak maiuskulaz) hedapenerako guneak; hiriak ez dira euskaldun baserritar, baldar eta ezjakinak zibilizatzeko behikuluak. Ez, jaun-andreok, hiriak euskal kulturaren gortorlekuak dira. Horra iraultza.

IV

Euskal filologoentzat eta antzekoentzat egindako internet leku batean (*Filoblogia*) aipatu zen lehen aldiz, nik dakidala, Iruña-Veleiako aurkikundeak paradigma aldaketa baten seinale zirela. Handik oso gutxira Jon Juaristik berariaz ukatu zuen planteamendu hori, tartean Unamunori helduz. Azken urteotan Arabako PSEren erreferentzia intelektual nagusia bihurtzen ari den Antonio Riverak ere ukatu egin zuen aurkikunde horiek zinezko aldaketarik zekartenik, kasu honetan elebitasuna aipatuz. Bada aldea Juaristiren eta Riveraren artikuluen artean, besteak beste ez da berdina inbokatzea Unamunoren topikoak edo elebitasuna. Beldur naiz errigore historikoa berdina dela kasu batean zein bestean, baina ondorio politikoak, erran nahi baita, gure gaurko egoerari buruzko ondorioak, ez dira inola ere berberak. Ukaezina den arren kasu bietan oinarrizko adostasuna da-

goela aurkikundeei garrantzia kentzeko orduan eta euskarentzako inolako aldaketarik ez aitortzeko orduan.

Baina ba ote dago muntazko aldaketarik? Izan ere, modan dago *paradigma* aldaketei buruz hitz egitea. Adibide hurbil bat jartzearen, Eusko Ikaskuntzako lehendakari den Javier Retegik berriki erakunde horren batzar nagusian egindako hitzaldian kontzeptu hori erabili zuen mundu mailan gertatzen ari diren aldaketa sozioekonomikoei buruz jarduteko (tira, berak «*crisis de paradigma externo*» dio, beste batzuek nahiago izaten dute *globalizazioa*). Ez dut uste lan handirik beharko litzatekeenik frogatzeko duela berrogei bat urte Zientziaren Historiaren baitan sortu zen kontzeptu horrek (*paradigma aldaketa*) egundoko arrakasta izan duela, bere esanahia alor askotara zabalduz. Baina kontua ez da orain matizazio eruditoetan galtzea, beste hau baizik: Veleiako aurkikundeak ekarri ote dio benetako aldaketarik euskal kulturaren panoramari?

Bada, nik esango nuke baietz. Bai horixe. Aurkikunde horrek auzitan jarri du euskal kulturaren oinarrian zegoen paradigma nagusia, alegia, euskara eta hiria antitetikoak direla. Orain arazoa mahai gainean dago, argi eta garbi.

Baina, esan daiteke, kontu hori aspaldian zegoen auzitan, ez dago ezer berririk horretan. Analisi okerra da hori. Frantziako monarkia ere auzitan egon zen hamarkada luzetan, alde guztietatik erasotua, baina ez zen zinezko aldaketarik lortu harik eta herritar olde kontrolaezin batek Bastillako gotorlekua porrokatu zuen arte. Ustekabeko gertakari horrek adierazi zuen aldaketa ezinbestekoa zela, atzeraezina, onean edo txarrean, txarrean edo okerreanean, horrela ez zegoela segitzerik. Eta handik lau urtera erregearen burua jausi zen, Errepublikak sortuz. Gaurko hizkeran esateko, *paradigma aldatu* zen.

Baina, esan daiteke baita ere, ezin dira zientzia eta politika modu horretan nahastu. Eta nik erantzungo nuke galdeztzen zer izan ote zen Galileoren auzia, afera zientifikoa ala politikoa? Alegia, badira itxuraz zientifiko hutsak diren

kontu batzuk karga politiko handia daramatenak gainean, adibidez, Iruña-Veleiako aurkikundea.

Bernardo Atxaga da ziur aski arazoa modurik erradikalean formulatu duena, Euskal Herriari izena aldatzea proposatuz, hots, Euskal Hiria deituz. Proposamen horren atzean dudarik gabe egonezin handi bat dago. Ez da alferrikakoa izango haren obrari buruzko gogoeta labur bat: abangoardismorik gorrienean jaio zen euskal letretara, poema hipermodernoak idatziz, hala nola hamarkada bat lehenago Arantzazuko santutegia abangoardia artistikoaren erakusgarri bihurtu zen (urte gutxi batzuk lehenago *monasterio zahar bat* besterik ez zenean). Aresti izan zen gainera Atxagaren aita-ponteko eta eredu, hots, Arantzazuko poeta bat, Bilboko bezain (ikus *Maldan behera* edo *Harri eta herri*, eta abar). Alegia, urte horietan posible izan zen *hiriaren* eta *mendiaren* arteko sintesi bat asmatzea, aldi berean modernoa eta tradizioari atxikia, Joseba Zulaikak berriki azpimarratu duen bezala. Baina Atxagaren beraren idazlanen bilakaerak erakutsi du paradigma hori ez zela betiko sortu. Laster, Olentzeroren indar telurikoak erakarrita, Bilbo utzi eta Obabara makurtzen hasi zen, hots, euskararen herri mitikora; hortxe lortu zuen gainera bere arrakastarik handiena. Hor bazka zitekeen ederto, baina, hau da gure tragedia, poliki-poliki, ETAREN pisua gero eta astunagoa bihurtu zitzaion, gero eta jasanezina goa. Erantzun bat eman nahirik *Gizona bere bakardadean* idatzi zuen lehenengo eta, ildo berean sakonduz, *Soinujolearen semea*, aldi berean ETAREN historiaren laburpena eta epaia izan nahi duen nobela *behin betikoa*. Eta hortxe agortu zen. Azken urteotan behin eta berriro adierazi du azken nobela hori idatzita bere izena ere aldatu nahi lukeela, jaiotzatikakoa berreskuratuz. Edo, finean kontu bera, Euskal Herriaren izena ere aldatu beharra. Hots, nola edo hala, aldatu beharra, euskal kulturaren egoera insoportablea baita. ETAK Olentzero antipatikoa bihurtu du jende askorentzat.

* * *

Alta, ez dut uste zuzena denik ETArri gehiegizko itzala aitortzea. ETAk esplika dezake neurri handi batean Bernardo Atxagaren idazlanen bilakaera, baina inola ere ez euskal kulturarena bere osotasunean. Aitzitik, uste dut pisu gehiago dutela Retegik aipatzen dituen fenomeno sozioekonomikoek, ETaren itzaletik oso kanpo egon direnak beti, hala nola badirudien erraz froga daitekeela ETAk eragin handia izan duela Euskal Herriko politikagintzan, baina oso txikia gure ekonomiaren bilakaeran azken hamarkadatan.

Ekonomia, politika, kultura. Munduko egoera, Europakoa, Frantzia eta Espainiakoa, gurea. Eta abar. Faktore asko eta askotarikoak dira analisi bakar batean integratzeko.

Baina, bat-batean, euskarazko hitz labur batzuk buztin zati egosi batzuetan, mila eta bostehun urtean lurperatuak, gaur argitara jaulkiak. Eta horrek ETaren su-etena baino garrantzi handiagoa al du? Bada, barkatu atrebentzia, nire ustez bai, alde batetik bai.

Artikuluaren lehen zatian esan dugun bezala, euskararen iraupena (frankismoan) eta berpizkundea (autonomia aroan) Gerra Zibilean sortutako sentimendu konpartitu batzuetan oinarritzen da. Sentimendu horiek sinbolo bat dute, Olenzero, eta sehaska intelektual bat, Arantzazuko santutegia. Baina, oinarrian, aliantza politiko bat da, espainiar nazionalista liberalen eta euskal nazionalisten artekoa, gizartean sakon sustraitu zena eta gaur egun arte iraun duena, gorabehera handiak pairatu arren. Orain arteko lerroetan aletu ditugu aliantza horren deuseztapenaren alderdi batzuk eta beraz, ez goaz ezer errepikatzeraz. Hori bai, krisia zabalik dago, ageri-agerian. Aliantza politikoak bere mugak izan ditu beti eta hortik sortu zen paradigma intelektuala agortu egin da. Arrazoiak asko izan dira, baina Iruña-Veleiako aurkikundeak den-denak bildu eta mahaigaineratu ditu batera. Horregatik, ETaren su-etena baino garrantzitsuagoa da, adierazten baitigu, ETarekin edo ETA gabe, euskal kulturaren paradigma berri egin behar dela. Ezinbestean.

Eta paradigma berritzeko lehenengo eta behin oso garrantzitsua litzateke oinarrizko akordio politiko bat egotea, baina ez da nahikoa izango. Horretaz gain sehaska berri bat beharko da, Arantzazu berri bat. Euskarari buruzko sentimendu konpartituak bildu eta bateratzeko gune berri bat. Denontzako balioko duten sinboloak sortu eta hedatzeko *aitaren etxe* berria. Eta hori, ziur aski, akordio politikoa baino zailagoa izango da.

Zeren, ez naiz nekatuko errepikan, espainiar nazionalista liberalen zinezko helburua euskara desagertaraztea da, *progresoari* ateak zabalduz. Frankismoaren presiopean prest egon ziren beren jarrera leuntzeko eta euskarari txoko bat uzteko, baina inoiz ez dute sinistu benetako normalizazio batean, hau da, euskara eta gaztelania maila berean jarriko zuen politika batean, gutxiago oraindik euskara gailentzean. Aitzitik, gaztelaniaren hegemonia ziurtatzea izan da beti beren kezka bakarra. Muga horretatik gora egin dituzten kontzesio guztiak beti horixe besterik ez dira izan, unean uneko kontzesioak. Finean, beti pentsatu izan dute euskararen aldeko grina (euskal) nazionalisten seta ulertezin bat besterik ez zela eta, lehenago edo geroago, *progresoak* gauzak bere lekuan jarriko dituela. Olentzero ondo dago Gabonetan, baina eguneroko bizitzan ez. Kitto.

Azken urteotan, ordea, Olentzero ez dute soportatzen ezta Gabonetan ere. Erregeen aldekoak egin dira guztiz, non eta ez diren Santa Clausenak, edo agnostiko absolutuak. Caro Baroja batek Olentzero maite zuen, zinez, baina zer da Olentzero Fernando Savater batentzat? Eta hori da espainiar nazionalista liberalen lider intelektuala azken urteotan. Bada alderik Caro Barojarengandik Savaterrengana, bada alderik, eta hori inon baino hobeto ikus daiteke biei Olentzerori buruz susmatzen dieran iritzietan. Pertsonaia maitagarria batentzat, zinezko amodioa sortzen ziona, praktikotasun handirik ikusten ez zion arren bizimodu modernoan, baina bere tokia merezi zuena gure gizartean, toki mugatua izan arren; bestearentzat, txokokeria arlotearen erakusgarri barre-

garria, asko jota pazientziaz eta umorez soportatu beharreko xeblekeria, ume txikientzako bakarrik balio duena. Bada, Caro Baroja lasai eta patxadan mugitzen zen Arantzazuko santutegian, baina Fernando Savater bat? Nola gonbidatu Arantzazu berri batera? Horra gure arazo nagusia.

* * *

Azken tentaldia, euskara espezialisten esku uztea, dela filologo, dela teknokrata huts. Euskara debate politikotik ateratzea, espezialisten esku utziz. Dударik gabe hori da arris-
kurik handiena, hori baita espainiar nazionalista liberalek balizko akordio politiko berri batean errazen planteatuko dutena. Eta hori da ere, tamalez, euskal nazionalisten sektore indartsu batek begi onez ikusiko duen soluzioa.

Soluzio funestua. Euskararen marginazio egoeraren ondorioa eta hura betikotzeko modurik eraginkorrena. Paradigma berrian euskararen lekua hiria da, ez unibertsitatearen laboratoriora edo gobernuaren bulegoa. Eta euskarari buruzko ardura hartzea euskal komunitate intelektual osoaren eginkizuna da, ez espezialista batzuen.

Alegia, euskal gizartea ez bada gai Arantzazu berri bat sortzeko, euskararen paradigma berria sehaska gabe jaioko da. Eta sehaska gabe jaiotzen den umeak ezin du hazkunde normala izan, beti amaren titiari itsatsita biziko da, beregaintasunik gabe.

* * *

Bukatzeko, saiakera hau irakurri ondoren baten batek galde lezake ea Iruña-Veleiako aurkikundeari ez diodan gehiegizko garrantzirik ematen, areago espezialistek oraindik azken hitza esan ez dutenean eta, beraz, zuhurrago dirudienean isilik irautea. Ez ote da guztia irudikeria bat izango? Nire ustez aurkikunde horretan dudazko ezer egotekotan haren alderdi *zientifikoa* da. Aldiz, haren inpaktu soziala

guztiz zalantzaz kanpo dago edozein hipotesitan eta, ziur aski, gora egingo du berri gehiago eta zehatzagoak sortu ahala.

Zeren orain arazoa mahai gainean dago: euskarari buruz izan dugun sentimendu konpartitua dagoeneko ez da aski haren normalizazioa gidatzeko. Paradigma aldatzeko ordua da.¶

Martzelina, Iholdi, Teresa...

Pertsonaia femeninoa euskal
eleberrigintza garaikidean (1975-2000)

GEMA LASARTE

«Pertsonaia femeninoen ezaugarri eta ahuleziak euskal narratiba garaikidean» doktorego tesia idazten ari da.

Sarrera

Pertsonaia femeninoek euskal literaturan duten presentziaren gaia ez da gaur goizekoa, aspaldian ere bazterrak astintzen ari dena baita, baina apenas astintzetik deus gehiagora pasatu denik azkeneko hamarkadetan. Halere, aitortu behar da gutxi horretan zertxobait mugitu dela, eta horretan aritu nahiko luke artikulu honek. Gaian sartu aurretik, euskal literatur sisteman emakumeak izan duen eta duen presentziaz bi hitz esango ditugu. Duela hilabete batzuk Jesus Mari Lasagabaster literatur kritikariak, euskal literaturaren osasun egoeraz mintzo zela, alderik ahulenzat irakurle goa hartu zuen. Bere ustez, euskal literatur sistemaren ekoizpen mailak kalitatez nahiz kantitatez hobera egin du, gorakada apalena irakurle goarena izanik. Apaltasun honetan, ordea, irakurketaren feminizazioa gertatu da euskal literaturan¹: emakumezkoek orokorrean gehiago leitzen dute eta kritikoagoak dira gizonezkoak baino.

Emakumeek literatur sisteman irakurle gisa modu aktiboan parte hartzen dute eta datuek babesten dute hipotesi hori,

baina gainontzeko ataletan emakumearen presentzia oso xumea da. Mari Jose Olaziregik 1999an argitaratutako artikulu batean izenburuak berak ondo esaten zuen emakumezkoek idatzitako euskal literatura ahanzturaren kronika dela. Ahanzturarena edo isiltasunarena. Halaxe frogatu zuen Linda White-k euskal emakume idazleez argitaratu den doktorego tesi bakarrean². Renoko Unibertsitatean irakasle den honek azaltzen zuen Jon Kortazar, Koldo Mitxelena, Luis Mari Mujika, Ibon Sarasola eta Luis Villasanteren historietan aipatzen diren 261 idazleetatik sei bakarrik direla emakumeak (Mayi Ariztia, Katalina Elizegi, Lourdes Iriondo, Luisa de la Misericordia, Bizenta Mogel eta Arantxa Urretabizkaia). Jesus Mari Lasagabasterrek, Jon Kortazarrek, Mari Jose Olaziregik eta Iñaki Aldekoak aztertutako 1975etik 2000 bitarteko nobela garaikidean batez beste 51 nobelagile nabarmentzen dituzte, horietarik zazpi emakume azaltzen dira (Arantxa Urretabizkaia, Laura Mintegi, Yolanda Arrieta, Itxaro Borda, Lourdes Oñederra, Ixiar Rozas eta Arantxa Iturbe). Esan behar dugu Iturbe nobelagilea baino ipuingilea edota narrazio motzean aritzen den idazlea dugula. Aipatzekoa da nabarmentzen diren 51 idazle horiek beti ere ez direla berak, eta zer esanik ez emakume idazleen kasuan, Urretabizkaia, Arrieta eta Oñederra baitira literatur kritikari horien zerrendetan aho batez azaltzen diren bakarrak.

Argi dago erresonantzi kaxek ez diotela mesede handirik egiten emakumeari euskal literatur sisteman. Gaiari heldu aurretik, euskal literaturak sortu dituen pertsonaia femeninoak aztertzeari ekin baino lehen, esan nahiko genuke, halere, euskal literatur sisteman emakumearen presentzia indartuz doala. Emakume editore gutxi ditugu, baina baditugu batzuk (Eider Rodriguez, Miren Agur Meabe...); literatur kritikan, bi enbaxadore ditugu, Mari Jose Olaziregi eta Jon Kortazar; idazleetan ere gure aburuz beste bi enbaxadore ditugu, sarituenak eta itzulienak direlako: Bernardo Atxaga eta Mariasun Landa. Artikulu honen azken helburua euskal literaturan aurki ditzakegun pertsonaia femeninoak urriak

eta ahulak direla esatea da, baina teoria hori hankaz gora jartzen dutenak, hain zuzen ere, Mariasun Landa bera, eta kasurik gehienetan emakume idazleak ditugu: Urretabizkaia, Oñederra, Mintegi eta Rozas, beste batzuen artean.

Mariasun Landa eta pertsonaia femeninoak

Mariasun Landa Errenterian 1949 urtean jaioa dugu. Dagoeneko 28 liburu eman ditu argitara (ikus bibliografia www.idazleak.org webgunean). Bere lehendabiziko idazlana 1982an argitaratu zuen: *Amets uhinak* (Elkar). Urte berean bere lehen saria jaso zuen: Lizardi Saria. Geroztik sari garrantzitsuak jaso ditu Mariasunek: besteak beste, Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria 1991n *Alex* ipuinagatik; A. M. Labaien Narrazio Saria 2002an; nazioarteko White Raven saria 2002an *Elefante txori bihotza* (Anaya, 2001) liburuagatik, eta 2003an Haur eta Gazte Literaturako Espainiako Sari Nazionala, *Krokodiloa ohe azpian* (Alberdania, 2002) idazlanagatik. Gaztelerara, katalanera, galizierara, ingelese-ara, alemanera, bretoierara, frantsesera, grekerara, albanierara, arabierara nahiz korearrera itzuliak ditu hainbat ipuin (ikus bibliografia www.idazleak.org webgunean). M. J. Olaziregik (1999: 44) ondo esaten duen bezala, nazioartean hedapenik handiena duen literaturgilea dugu: «Mariasun Landa gaurko euskal idazlerik emankorren eta ezagunena da Bernardo Atxagarekin batera».

Mariasun Landaren poetika eta ondorioz pertsonaiak 28 idazlanetan zehar aldatuz joan dira, garaian garaira egokituz. Halere, bada zerbait urte horien joanean aldatu ez dena eta artikulu honek bere azken helburuan frogatuko duena, hau da, Mariasun umeentzako literatura euskaraz idazten duen emakumea dugula. Emakumea esan dugu, izan ere, Landak Parisetik Filosofiako lizentziaturaz gain irakurketa feminista ugari ekarri zituen, bere konpromisoa indartu zutenak: S. de Beauvoirren *Le deuxième sexe* (1949) edo *Mémoires d'une jeune fille* (1958) (Olaziregi 1999: 29). Emaku-

mearen kezka ugariak izango dira bere ipuinetan, baina emaitzarik garrantzitsuena ohiko estereotipo sexistak iraultzea izango da. Pertsonaia femenino ugari azalduko dira Landaren poetikan, eta azaltzen diren gizonezkoen maskulinitatea ezagutzen dugunetik oso bestelakoa izango dugu.

Datuak

28 liburuetan barrena 189 pertsonaia topatuko ditugu, horietarik 61 emakume, 60 gizon, 34 animalia, 19 pertsonaia kolektibo (haurrak, herria...), 8 natur izaki eta 7 objektu bizigabe azkenik. Hauetatik guztietatik 41 protagonista topatuko ditugu: 22 emakumezko, 9 gizonezko, 7 animalia eta 3 objektu ez bizidun.

22 protagonistetatik, bost pertsonaien hautua egin dugu, Landaren pertsonaia femenino protagonisten azterketa egiteko. Landaren poetikan, beraz, pertsonaia femeninoaren protagonismoa azpimarra genezake lehen ondorio bezala. Esan genezake, gainera, pertsonaia femenino horiek identitate alternatiboak eskaintzen dituztela, estereotipoak hautsiz eta alternatibak eskainiz. Bi emakume klase aipa genitzake: fantasiazko emakumea eta emakume baztertua, biak dira egokitu zaienari aurre egiten dakiten emakumeak.

Elisabete lehoi domatzailea, *Kaskarintxo* globo bidez zeruetatik barrena bidaiatu zena eta *Partxela* ahalmen magikoak dituen aipatuko ditugu fantasiazko eredurik garbienak bezala. Hirurek ere bidaia magikoak egingo dituzte eta ahalmen bereziak izateko gaitasuna erakutsiko dute; aldi berean, eskola eta etxeko lanak egiteko laineza erakutsiko dute. Fantasia eta abentura maite dituzte pertsonaia femenino horiek.

Arazoak dituzten pertsonaia femeninoen artean *Txan Fantasmako* neska koprotagonista dugu *Karmen txu autista*. Umezurtz hori jostailuekin eta inork ikusten ez duen Txan Fantasmarekin edo bere senideentzat lagun imajinarioa denarekin komunikatuko da bakarrik. Psikiatrikoa izango du bizileku, Landaren poetikan azaltzen den leku heterotopiko

(Foucault)³ bakarretakoa dugu berau. Ipuin honetan bi narrazio uztartzen dira, batetik Txan Fantasma dugu subjektua, fantasma munduan baztertuta sentituz umeen mundura zoriontasun bila doana eta han Karmentxu autista ezagutzen duena; Karmentxuri ere antzeko zerbait gertatzen zaio, inork ez baitu ulertzen eta inkomunikaziora behartuta baitago. Biek bat egingo dute. Gizakien munduan inkomunikazioaren subjektua Karmentxu da, baina era berean, Txanen zorionaren objektua da.

Iholdi dugu Landaren poetikan pertsonaien epizentroa. Haurraren ahotsak hitz egingo du eta lehen pertsona gainera, eta mundua ikusteko foku propioa erabiliko du. Iholdik ikusten duenaren inguruan hitz egingo digu: *Autobus zaharra*, *Marraskia*, *Sikologoa* eta *Marina* ipuinak horren lekuko ditugu. *Marina* ipuinean, Iholdik lagun bat egin duela kontatuko digu: Marina. Iholdik argi erakusten digu helduek eta haurrek oso ikuspegi diferenteak dituztela gauzak ikusteko orduan. Iholdik mutikoen prepotentziaz ere hitz egingo digu, horren adibide *Dilijentzia* eta *Kike* ditugu. Iholdik ez du sobera ulertzen Kike etxean elkarrekin dabiltzanean lagun goxoa izatea, eta eskolan, aldiz, lagunekin elkartzen denean iseka eta hondarra botaz ibiltzea.

Edertasuna, prestutasuna, pasibitatea, amatasuna eta eremu pribatua geratzea ez dira Landaren pertsonaia femeninoen ezaugarri nagusiak izango. Landak, bere pertsonaia femeninoen bidez, giza harreman alternatiboak eta sexuen arteko gatazka beste modu batera konpontzeko aukera eskainiko digu. Aldi berean, emakumearen irudi berriak erakutsi nahiko dizkigu; horretarako, emotibitatea, autokonfiantza eta sentsibilitatea oinarritzat dituzten emakume irudiak azalaraziko dizkigu bere pertsonaia femeninoen bidez. Emakumearen ezaugarri psikologiko izan diren menekotasuna, sufritzeko gaitasuna, jakin-nahi eza, dependentzia... ez dira agertzen Landaren pertsonaia femeninoarengan; are gehiago, ausardia, gizartearen aurrean ikuspegi kritikoa eta aurre egiteko ahalmena azalduko duten emakumezkoak ditugu.

Elaine Showalterrek *A Literature of Their Own* liburu interesgarrian emakumearen irudia literaturan aztertu zuen. Horretarako, emakumezkoek idatzitako literaturan hiru fase bereizi zituen: femeninoa, feminista eta emakumearena. Lehen partean, femeninoan, boterean zeuden ereduak kopia edo barneratzea gertatzen da Showalterren esanetan; bigarren etapan eredu eta balio horien kontra joaten da emakumeen literatur lana eta gutxiengoaren eskubideak eta balioak defendatzen dira; azken atalean, emakumearen literaturan, autoezagutza eta barne-begiratzea hasten da. Showalterrek emakumearen literatura izendatzen duen azken alde hori bereganatzen du Landak bere poetikan eta ondorioz bere pertsonaietan. Landaren pertsonaia femeninoak bere burua ezagutzen eta eraikitzen ari dira. Gizarteak eraikitako estereotipoak uko egiten diete, halere, alderdi positiboak onartu eta ezkorrak baztertu egiten dituzte. Landak roleri ez die buelta ematen (ez ditu neskatoak maskulinizatzen, garai batean haur literaturan egiten zen bezala).

Laburbilduz, lehenik esan behar dugu Landaren pertsonaia femeninoak dinamikoak, sentiberak, etxetik kanpo bizirik direnak direla, baina era berean baita behartsuei harrera egiteko ohitura galdu ez dutenak ere. Oso esanguratsua da Landak alde maskulino nahiz alde femeninoen alderdi baimenkorren uztarketa nola egiten duen. Gainera, esan behar da gizartearentzat emakumeengan alderdi negatibo gisa ikusten dena positibizatu egiten duela Landak; esandako hau dena laburbil dezakeena Iholdi dugu. Bigarrenik, aipatu behar dugu pertsonaia alternatiboak sortzeko Landak agerian duen zaletasuna. Estereotipatu gabe dauden pertsonaia horiek ikuspegi positibo batetik eginak daude. Landaren ipuingintzan inor ez dago sobera, eta egileak behin eta berriro dio gainera sobera daudenak bazterketa eragiten duten jarrera prepotenteak direla. Bukatzeko esango dugu, gizonen protagonismoa jaisteaz gain, sortzen dituen pertsonaia maskulinoak kritikoak eta gizartean integratzeko arazoak dituzten pertsonaiak direla. Landak bere pertso-

naien profilen egokiera ezin hobeto aprobetxatzen du beste sentsibilitate bat proposatzeko, ezarritako desberdintasunak apurtuz eta topikoak irauliz.

Pertsonaia femeninoa euskal eleberrigintza garaikidean (1975-2000)

Pertsonaia femenino protagonistak lantzeko orduan, hamabi pertsonaia femenino subjektu (protagonista) aukeratu ditugu 1975-2000 bitartean, euskal literaturan pertsonaia femeninoak izan duen garapenaren kontu eman asmoz. Erabili diren irizpideak honakoak izan dira. 1) Txuma Lasagabasterrek, Mari Jose Olaziregik, Jon Kortazarrek eta Iñaki Aldekoak hurrenez hurren argitara eman dituzten euskal nobelagintza garaikidearen azterketetan nabarmendu dituzten nobelen hautua egin da. 2) Egile bakoitzetik nobela bakarra aukeratu dugu. 3) Aukeratu ditugun pertsonaiak subjektuak dira, kasu batzuetan protagonistak eta beste batzuetan koprotagonistak. 4) Narrazio motzak edota ipuinak bazter batera utzi ditugu eta eleberrietan murgildu gara, nahiz eta *Zergatik Panpox*, *Hatza mapa gainean*, edota *Edo ni edo zu* eleberriz motzak izan.

Esan behar da literatur kritikari horiek 51 idazle inguru aipatu dituztela euren azterketetan eta idazle horien 80 nobela batez beste nabarmendu dituztela. Nobela horietarik 12 dira aukeratu ditugun pertsonaia femeninoak (subjektuak)⁴; ez dira, beraz, pertsonaia femenino laguntzaileak (Joxepa, *Garoa*) edota objektu gisakoak (Miren, *Leturiaren egunkari ezkutua*). Pertsonaia femenino gatazkatsuak (borobilak), subjektu rolean, fokalizatzaileak eta narrazioaren arreta guztia bereganatzen dutenak dira. Koprotagonista diren kasuetan, errealitatearen bi ikuspegi aldi berean erakusteko formula direlako aukeratu dira. Baina denak ere pertsonaia modernizatuak eta subjektuak ditugu. Azpimarratzekoa da, aukeratutako hamabietatik, sei pertsonaia femininoren egileak

emakume idazleak direla. Pertsonaiaren bilakaeran euskal nobelagintzan sortu diren pertsonaia femeninoetan murgildurik, esan behar dugu hortaz, 80 nobela ingurutik aipaturiko 12 emakumezko protagonista baino askoz gehiago ez dugula topatu aipaturiko tenore horretan.

Pertsonaia femeninoaren garapena landu ahal izateko aukeratutako hamabi protagonista horiek kronologikoki aztertuko ditugu. Lehen protagonista, Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik Panpox* (Hordago, 1979) nobelako *izenik gabeko ama* dugu. Jon Kortazarrek (*Jakin* 12, 1979) ondo dioen bezala, nobela horren berrikuntzarik handiena estreinakoz euskal literaturan pertsonaia femenino protagonista paratu izana da. Eta ez hori bakarrik, bera izatea kontalaria, berak erabiltzea ikuspuntua eta pentsamenduen jarioa «stream consciousness» teknikaren bidez; hau da, protagonista izan ez ezik, pertsonaia modernizatua ere bada. Urretabizkaiaren lanak esperimenduz berria ekarri zuen euskal eleberrigintzara emakumezkoen ahotsaren bidez 70eko hamarkadan (Olaziregi 1999). Nobelako protagonistak 70eko hamarkadan emakumezkoaren askapen mugimenduaren gaiak ditu solasgai: bikote harremanak, amatasuna, emakumezkoen gorputza, emakumezkoen ahotsa, antisorgailuak, egunero-kotasunaren zama...

Biruté Ciplijauskaité (1988) kritikari feministak esanda-koari kasu eginez, amatasunaren inguruan hausnartzen ari da protagonista, edota Kolodny-k dioen modura (Moil 1995: 81), hausnarketa hori eman beharra dauka emakume protagonistak, espero ez zituen egoerei aurre egin behar dielako. Kritika feministaren ikuspegitik bere identitatea berreskuratzen ari den emakume baten aurrean gaude. Lehen pertsonan idatzita dago eta emakumearen gorputza sentitzeko moduak adierazten dira: hilerokoak, semearekin dituen harreman sexualak... Cheri Kramarae-k dio (Moil 1995: 116) gizonezkoena dela esperientziei izena jartzearen boterea; beraz, emakumei dagokie, Kramaraeren ustetan, euren esperientziei izen propioa jartzea eta horixe egiten du

izenik gabeko protagonistak. Protagonistaren estatusaren inguruan, esan behar dugu egun erdia lanean ematen duela; banandua dela eta seme bat duela; gertatzen diren inguruko gaiekin arduratuta bizi dela: *Egineko* editoriala irakurtzen du, adibide bat ematearren; kotxea du eta bere irudia zaintzen duen emakumea dugu.

80ko hamarkada aztertzeko lau emakume protagonista aukeratu ditugu. Lehen emakumea, Juan Mari Irigoienek *Poliedroaren hostoak* (Erein, 1982) nobelako *Martzelina*. *Zergatik Panpoxeko* ama aztertu ostean, zaila da pareko indarra duen emakume protagonistarik topatzea, baina aurrera egin aurretik gurea egin behar dugu Demetrio Estébanez Calderón-ek (1998) egiten duen nobelen sailkapena. Ekintza nobelak, pertsonaia nobelak eta espazio nobelak aipatzen ditu Estébanezek W. Kayserren sailkapena bere eginez. Esan behar dugu *Zergatik Panpox* pertsonaia-nobela dugula eta pertsonaia dela nobelaren indar zentrifugoa nahiz zentripetua. *Poliedroaren hostoak*, ordea, espazio nobela dugu: deskribatzen diren giroak eta gune historikoak nobelaren ardatz bilakatzen dira. Halere, Joxe eta Martzelinak, biak ere protagonistak, indar handia hartzen dute, aipaturiko giro eta gune historikoen erreferentzialtasuna egiteko orduan.

Irigoienek obra historikoetako emakumezko protagonistek aparteko azterketa mereziko luketela dio Mendiguren Elizegik (*Hegats* 12, 1983). Pertsonaia liluragarriak direlako, errealak baino gehiago mitikoak, supranaturalak. Mendiguren Elizegik gogoratzen digu Martzelinak baduela, gure munduko errealitateaz gain, beste errealiterik ere. Kortazarrek uste du (*Jakin* 26/27, 1983) narrazioaren aberastasunaren alde jokatzeko duela emakumeak azaltzeko mitologia eta etnografia erabili izanak, nobelaren fantasia eta irudi-munduak taxutzen dituelako. Baina, kexu da, beste erarik ezean, ez ote duen behin eta berriro erabili teknika hori, sistemaren aberastasuna agortu arte.

Errealismo magikoaren eragin handia du nobela honek, eta zer esanik ez, Gabriel García Márquez-en *Cien años de sole-*

dad eleberrarena. Gure Martzelinak Ursula gogoratzen digu. Martzelinak bost belaunalditako istorioak biltzen ditu, hirugarren instantzia narratiboan agertuz eta etxearen, amatasunaren, lurraren eta bizitzaren sinbolo bilakatuz kontakizunean zehar. Ez hori bakarrik, zuhaitz bilakatuko da Martzelina, *axis mundiren* sinboloa: infernuak, lurrak eta zeruak elkartuko dituen sinboloa (M. Eliade). Pertsonaia sinboliko eta mitiko baten aurrean gaude. Irigarayk (1978) dioenaren arabera, emakumeek publikoan hitz egiteko zuten instantzia bakarraren aurrean geundeke, diskurtso mistikoaren aurrean. Sinbolismotik Martzelinak lehen bi karlistadak eta Gerra Zibila kontatu dizkigu, baina pertsonaiari bolumena, errealitate-falta nabari izan zaio (Kortazar, *Jakin* 26/27, 1983).

80ko hamarkadan aukeratu dugun bigarren protagonista Lertxundiren *Hamaseigarrenean*, *aidanez* (Erein, 1983) nobelako *Martzelina* dugu. Euskal kritikariek (Olaziregi 2002, Kortazar 2000, Aldekoa 2004) Gabriel García Márquezen *Crónica de una muerte anunciada* nobelarekin parekatu izan dute. Bestetik, aipatu izan da ere, *Crónica de una muerte anunciada* nobelaren antzera, errealitatean gertaturiko kronika batean oinarritua dagoela nobela. Datu interesgarriak dira denak ere, pertsonaien izate errealista iradokitzeko. Giroa baserrikoa dugu eta gaia apustuen inguruko gorabeherak; espazio eta gai ezin hurbilagoak euskal literaturaren irakurlearentzat. Eleberrri honetako protagonista gizonezkoa —jokalari amorratua— bada ere, Martzelinaren kontaktak, hausnarketak eta ikuspegiak emango diote nobelari tonua, erritmoa eta dimentsioa; beraz, bera dugu isilpeko protagonista handia. Martzelina istorio honetako heroi isila da. Kortazarrek ondo adierazten duen bezala (*Jakin* 28, 1983), bakarrik utzitako emakumearen ikuspegiaren diskurtsoa dugu: iraganik gabe, maleta bat eskuan, deserriratu bakardadea eta negarra lagun hurkotzat dituela. Lola Lunak (1996: 12), María Zambrano gogoratuz, zera dio, Antígona ezer baino lehen emakume bat dela, Juanak sutan erretzeko bidean negar egin zuen bezalaxe negar egiten duen neska bat. «Como

han llorado sin ser oídas las enterradas vivas en sepulcro de piedra en soledad bajo el tiempo». Euskal Herriko edozein emazte anonimoren irudia da Lertxundik marraztu diguna perspektibismo joko anitzez eta erritmo biziari irudi indartsuak eta bakanak kontrajarriz.

Errealismoa bazter batera utzita subjektibitatea ardatz duen eleberrigintzan, emakumezko unibertsoa edota pertsonaia femeninoak oso kontuan izango dituen beste idazlea Laura Mintegi dugu. Mintegik, *Bai... baina ez* (Susa, 1986) nobelan, gizartearen arauak apurtzen dituen istorioa idatziko digu. Maitasunaren ikuspegi berri bat emango digu Mintegik, euskal nobelagintzara pertsonaia berri bat ekarriz: *Rosa*. Rosa dugu nobela honetako protagonista (Todorov 1972). Nobelan zehar azaltzen diren gizonezko guztiak Rosaz maiteminduko dira. Denak ere gizarte arauetatik at bizi nahi duten pertsonaia bakartien oihuak dira (Olaziregi 2002: 111). Pertsonaia nobela (Estébanez Calderón 1998) dugu Mintegirena, maitasunezkoa, hain zuzen ere, Kortazarri kasu eginez: maitasunaren garapena eta ezintasuna gaitzat izango dituena. Ikuspegi psikologikotik, marxistatik edo feministatik aztertuta, Rosa pertsonaia biribila dela esango genuke. Mintegik adierazi bezala (*Berría*, 2006-03-21), egoera zailak bizi dituzten pertsonaiak lantzen ditu: «Tortura, maitasuna, ausentzia, funtsean ardura existentziala dago atzean».

Rosak, hizpide dugun pertsonaiak, jaiotzen denetik nobela bukatzen den arte, hamazazpi urte biziko ditu. Ciplijauskaitéri kasu eginez, neskaren kontzientziaren jaiotzan kokatu beharko genuke nobela hau. Haurtzaroak eta nerabezaroak osatuko dute kontzientzia jaiotza. Haurtzaroan ama hiltzen zaio Rosari eta aitarekin bakarrik geratuko da. Amaren maitasun ezak eta aita triste ezin ikusteak aitarengana bulzatuko du Rosa. *Haur besoetakoa* nobelan ezaguna genuen Elektra konplexua berragertzen zaigu. Baina Rosak irauli egiten ditu estereotipoak eta aldarrikatzen du ez dela jabea edukitzeko jaioa izan, nagusi gabeko gizakia dela, bere bu-

ruaren jabe, «argoi, inoiz ez morroi» (122). Olaziregik (2002: 116) subjektu nobelatzen hartzen duen kontakizun honetako gizakia, Rosa, hautsia dago: dessubjektibizazio prozesua ezagutu du eta berrosaketari ekiten dio, bersubjektibizazioari alegia. Disidenteeek eta marjinatek osatzen dute Rosaren lagun koadrila. Koadrila horrek nahiz gizarteak diotenari begira elikatuz doa Rosaren autokontzientzia, Virginia Woolf-ek (1981: 58) dioen bezala, emakumeen izatea anonimotasunetik, nahaspilatetik, lurrazpitik aritzea baita.

80ko hamarkadako pertsonaia femeninoekin bukatzeko, Pello Lizarralderen *Hatza mapa gainean* (Pamiela, 1988) nobelako *Beatriz* aukeratu dugu. Euskal literaturan lehen aldia da komikietako marrazkien tankerako pertsonaiak ikusten ditugula. Marrazkien soslaiak imajina ditzakegu, baina horitik aurrera deus gutxi. Ihesean, gauean, basoan eta noraezean dabiltzan pertsonaiak ditugu. Lastategian elkar ezagutu, barrietan barrena janari eske ibili, ehiztarien etxolan lo egin eta hirigunera heltzen dira. Hirian hotela, farmazia eta tren ikusiko ditugu, ondoan hondartza, eta hantxe bukatuko da bidaia: hantxe bukatzen da istorioa. Isiltasuna dute komunikaziorako tresna nagusia (Juaristi, *El Diario Vasco*, 2002-06-02; Kortazar, *El País*, 2002-05-20). Pertsonaien ibilerak du garrantzia, euren ibilera sentitzen da, gorputzaren lengoia. Maite Gonzalezek ondo dioen bezala (*Hegats* 31, 2002), komunikazioa zero graduan dago. Ihesaren odisea honetan ez dago pertsonaien deskribapenik, monosilabiko batzuk, monologorik bat ere ez, eta isiltasuna nagusi.

Izena Beatriz du, begi beltzak ditu, basoan bizi da, eta ihesean dabilen gizonari janaria eta laguntza eskaintzen dio bukaeran diru truke traizionatuko duen arren. Hori da gure Beatriz. Dantek XIII. mende amaieran sorturiko Beatrice mito handiaren aurrean ez gaudela pentsa genezake, jainkozko argiaren isla eta arimaren zintzotasunaren ispilua ez baita Lizarralderen Beatriz hau. Hurbilago geundeke Gabriele Rossetti (1828-1880) aurrerrafaelistak margotutako Beatricetik.

Par ses traits ambigus la Béatrice de Dante Gabriele Rossetti fait aflereur un inquiétant mélange de mysticisme et d'érotisme. [...] À bien la regarder Béatrice apparaît sensuelle et malade, malade de sa sensualité (Brunel 1999: 250).

Bram Dijkstrak (1986: 177) Rossettiren Beatriceren begiradaz zera dio, ikuslearen begirada islatzen duela. Beatrizek duen begirada-ispiluak, narrazioan zehar guk ikusi nahiko duguna irakurri ahal izateko balioko digu. Bere begi beltzetan, beraz, ikus genezake Max-en iragan beltza eta etorkizun beltzagoa. Horren aurrean Beatrizek Max lagundu egiten du. Beraz, gure basanderea ama zintzo baten babes ezaugarriekin hornitua dago. Basoaren aingeru bat dugu eta horren berri ematen digu narrazioak, baina hirira iristen denean narrazioan hutsunea, isiltasun handia dago. Beatrizek basoan aurkitutako iheslaria hiriarri saldu dio diru truke, edota Danteren Beatriz zerutiarra, aingeru salbatzailea, Rossettiren banpiresa bilakatu da. Suge uroborikoa (Dijkstra)⁵.

90eko hamarkadako pertsonaia femeninoak aztertzeko sei emakume protagonista aukeratu ditugu. Lehena Aingeru Epaltzaren *Ur uherrak* (Pamiela, 1993) nobelako *Billie*. Mintegiren Rosaren inguruko gauza asko errepikatu beharko genituzke pertsonaia honen inguruan mintzatzean: pertsonaia periferikoa dela, marjinatua alegia, gaztea, txikitana ama hila, aita mozkorra, nerabezaroan herriko gazteek bortxatua. Beraz, koadro oso bat pertsonaia ezin marjintuagoa izateko eta gizaki hautsiarekin topo egiteko. Halere, Rosaren antzera, Billiek bizitzari aurre egiten dio, berriz ere desubjektibizazioaz nahiz bersubjektibizazioaz hitz egin beharko genuke. Lukacs-en ikasketa-nobela eta kritika feministak neskaren kontzientzia-jaiotza deiturikoa ere aipatu beharko genituzke.

Horiek izango lirateke nolabait esatearren dagoeneko ezagunak ditugun ezaugarriak euskal literaturan, baina badiu berrikuntzarik Epaltzaren Billiek; hasteko esango genuke neska hau beltza dela. Esan behar da nobela hau nolabait pertsonaia nobela eta giro nobela arteko nahasketa dela. Aldekoak berak (2004) aitortzen duen bezala, bi belaunaldi,

eta bi ideologia nahiz bi giro azaltzen zaizkigu. Xabier Mendiguren Elizegik adierazten du (*Euskaldunon Egunkaria*, 1993-07-11) Billie eta Jazintoren porrotarekin nahasian porrot kolektibo baten kontaketa ere badela eleberrri hau. Eta hori beste berrikuntza bat litzateke, izan ere, nobela honetan bi pertsonaia kolektiboren aurrean baigeundeke. Billiek musika du buruan. Musikak jarriko dio erritmoa nobelari. Billiek Toni Morrisonen emakume beltz musikatuak gogoratzen dizkigu. Juaristi (*El Diario Vasco*, 1993-07-31) erritmo motelaz mintzo izan da nobela hau aztertzeko orduan, eta moteltasunaren gaia tratatu beharrari eta pertsonaiengan sakondu beharrari atxiki dio. Pertsonaia bakoitzak bere mundu propioa du, berezkoa eta partikularra. Pertsonaien deskribapenak eta burutazioak sakonak dira. Olaziregik esaten duenez (2002: 170), Jazinto, Billie edo Juanito pertsonaien deskribapen sakonek asko zor diote Faulknerri.

Nobela beltzetik polizia eleberrira jauzi egingo dugu; izan ere, badugu pertsonaia femenino aski interesgarria ezagutzera emateko: *Amaia*. Amaia Ezpeldoi Itxaro Bordaren detektibe da. *Bakean utzi arte* (1994), *Amorezko pena baño* (1996) eta *Bizi nizano munduan* (1996) trilogia osatzen duten hiru nobela horietako detektibe dugu Amaia. Ikertzailearen este-reotipoak apurtzen ditu eta oso emakume sentibera dugu.

Estreinakoz euskal literaturan emakumezko polizia dakarkigu Bordak. Kadet Eiherabideren aburuz (*Argia* 1.508, 1994-12-11), Amaia Ezpeldoi, istorioaren kontatzailea, autobiografikoa da, idazlea bera hein batean ezagutzen. Xabier Aldairen ustez (*Euskaldunon Egunkaria*, 1996-07-06), Amaia ez da Sherlock Holmes edo Monsieur Poirot bezalako detektibe tradizionala. Ez du edan Dashiell Hammett edo Chesterton-en nobela beltzen orrietatik. Gizarte jakin batean bizi den emakumezkoa da Amaia. Gaur egungo emakumeari egin zaion argazkirik bikainenaren aurrean gaude Xabier Aldairen ustez.

Hilzorian dagoen tokiko jendearen lekukotasuna ematea, etengabeko solasaldiak, komunikazio nahia, ahozko euska-

raren denda dira Amaiak Bordaren bidez plazaratzen dituen lanak. Juaristik (*El Diario Vasco*, 1996-11-02) errealitatearen ikuspegi berezia ikustarazten digula dio.

Detektibe lanetan ari den emakumeak, idazleak alegia, errealitatearen ikuspegi berezia plazaratzen digu. Ez dira asko Euskal Herrian literaturgintzan diharduten emakumeak; asko ere ez, pertsonaia emakumezkoak. Eta gizonezko izan ala emakumezko, ikuspegia aldatzen delakoan nago.

Juaristik dioenaren harira, Joseba Gabilondok «Atxagaren psikoanalisi» artikuluan (*Egan* 48/1, 1996) Atxagaren poetikan emakumeen ausentzia hizpide izan zuen, beti ere *Zeru horiek* (Erein, 1995) irakurri aurretik, epilogoan aitorzen duen bezala. «Emakumezko pertsonaia baten aukera ez dut uste zirkunstantziazkoa denik eleberri horretan». Guk ere Bernardo Atxagaren *Zeru horiek* nobelako protagonista femeninoari helduko diogu: *Ireneri*. Irene dugu nobela honetako protagonista, Irene ez da ohiko emakume bat. Helen Jones-ek, 2003an EHUk antolatutako udako ikastaroetan, Atxagaren nobelagintzako ahots politikoak aztertzerakoan ondo adierazi zuen bezala, Irene ez da ohiko emakumea, amari eta ohiko emakumei sorbalda eman die Irenek. Bizitza publikoan leku bat aldarrikatu du eta emakume iraultzaile bat bilakatu da, armen eremuan sartu da: gizonen esparruan alegia. Euskal literaturak eman duen ETako lehen emakume aktibista damutua dugu Irene. Eta ez hori bakarrik, Irene emakume jantzia dugu: Stendhalen *Gorria eta beltza*, Oteizaren *Quosque tandem*, Zavatiniaren memoriak... daramatza esku poltsan. Euskal literaturan orain arte topatu dugun pertsonaia femeninorik jantzienetakoa dugu zailantzarik gabe.

Atxagak Ireneren identitate suntsituaz eta kanpo bidaiaz hitz egiteko espazio hertsia landu digu. Kartzelatik geltokira, geltokitik autobusera eta gero nora? Leku heterotopikoak (Foucault) ditugu denak ere, leku hertsia, etxerik dagoeneko ez duen emakumearentzat, Euskal Herrira itzultzea atzerri itzultzea delako. Maitasunik ez dago, kartzelatik atera

eta hamar ordura gizon batekin oheratu eta puta bezala tratatu eta bortxatu nahi izan du. Kartzela garaian Andoni eduki du maitale gisa, baina «vaite a merda» esanda bidaltzen du kartzelatik atera bezain agudo, bere arteko harremanen mediokritatea argudiatuz. Michelangeloren koadroan elkar ukitzen saiatzen diren hatzen irudi errepikakorra maitasunaren ezintasunaren etengabeko gogoeta bilakatuko da.

Pertsonaiaren formatua hasieratik bukaera arte aldatu egiten da, barne bidaiak ilusioari ate bat irekitzen diolako; horretara dator Atxagak eraiki duen imajinarioaren alde bat: ametsak, koloreak, pintura, Carl Sandburg, D. H. Lawrence, Georges Brassens, Espronceda, Sarrionandia, Emily Dickinson, Violeta Parraren kantu eta literatura beste batzuen artean eta zeruen tonalitateak. Zeru tonalitate horiek Ireneren ispilu dira. Kritika feministarentzat ispilua emakumearen kontzientzia da, emakumearen memoria. Zeruak aldatuz doaz tonalitatez eta Irene aldatuz doa. Bartzelonan zeruak marmolezko tonalitatea izango du, maindire zikin kolorea ere hartuko du, gris eta urdin ikusiko dugu, Bilbon gauak erabat gorrituko duen arte. «Azkenean, ilargia ikus zitekeen bi lainoen artean». Zeruak pertsonaia suntsituari zirrikitu bat irekitzen dio eta horrela amaitzen da nobela. Pertsonaia femenino honek femeninotik zerbait baldin badu barne bidaia hau da eta barruan daroan poesia guztia. Baina zaila egiten zaigu Ireneren bidaia fisikoan gertatzen diren hainbat ekintza ulertzea eta bortxatuegiak direlakoan gaude. Kontradikziorik handiena, ordea, Irenek egiten dituen bi bidaien alderaketan legoke. Kanpora begira egiten duen bidaiaren desubjektibizazioa areagotzen da: Andoniri idatzitako karta... Irenek barne bidaiaren bidez bersubjektibizazioarekin erantzuten dio. Barne bidaiak feminitatearen ezaugarriak ditu eta kanpo bidaiak maskulinitatearenak, horrek ez du esan nahi pertsonaia hibridoa denik, baina bai oso ezaugarri psikologiko ezberdinekin osatua dagoela. Kortazarrek (2000: 204) nobela honen polifonia goraiatu zuen, nobelan azaltzen diren ahots ezberdinak aipatuz; era berean, pertso-

naia protagonistaren konplexutasunaz eta barnean dantzan dituen ahots ezberdinez mintzo zen.

Bi urte geroxeago, Yolanda Arrietak *Jostorratza eta haria* (1997, Kutxa) eman zuen argitara: jostorratzaz eta hariez josiz doan historia-istorio multzoa. Jostunen sendiko idazle horrek ama arketipo bat eskaintzen digu liburuko protagonista gisa, Euskal Herriko *Mari*, *Maritxu* eta *Miren* guztien lekuko. Jung-ek (1981) erabiltzen duen feminitatearen autoritate magikoaren arketipoa darabil Arrietak pertsonaia femenino protagonistaren bitartez. Familia baten barne bizitza kontatzen da, kontzientzia kolektiboaren (Jung) berri emanaz, «istorio-historia horien haziak jaiotzen garenean gurekin doazelako bi begi, bi hanka, bi beso eta bihotz bat doan bezelaxe» (*Jostorratza eta haria*, kontrazala). Ama batek sabelean daraman alabari kontatuko dio familiaren historia. Arrietak haria hartzen du elementu metaforiko bezala, eta hari horren ibilbidea jarraituz, emakumearen gogoeak josten ditu. Kortazarrek dioen modura (2000), adabaki txikiez osaturiko nobela dugu eta literaturaren eta ehunaren arteko metafora azaltzen da, Greziako kultura klasikoan ere agertzen den bezalaxe. Esan behar da Etorkizunaren jainkosek gizakiaren bizitza josten zutela. Mircea Eliadek (1983) kosmosa oihal bat bezala ikusten du.

En el Cosmos, lo mismo que en la vida humana, todo se halla ligado por una textura invisible; y por otra, que ciertas divinidades son las señoras de estos «hilos» que, en última instancia, constituyen una vasta «ligazón» cósmica (1983: 120).

Arrietak, amaren arketipoa erabiltzeaz gain, pertsonaia erreferentzialak (Hamon 1977) sortu ditu belaunaldi berrientzat memoria zatitxo bat eskaini ahal izateko. Estreina-koz, beraz, emakume protagonista batek gure herriaren historia kontatuko digu, modu metaforikoan bada ere, jostearen inguruko tresnekin eta semantikarekin josiz historiaren aldian aldiko gertaerak. Historia aldatuz joan den neurrian jantziak eta lanabesak aldatuz joan dira. Idazleak berak airtortzen duen bezala, oihal eta soineko beltzek garai zaha-

rraren bukaera eta berrien hasiera markatuko dute. Esan bezala, jostearen semantikak osatuko du gure protagonisten lehena eta oraina: soineko, oihal txatal, titare, jostorratz, patrioi, adabaki, albainu....

Urtebete beranduxeago Pako Aristik *Urregilearen orduak* (Erein, 1998) eman zuen argitara. Dikotomiaz jositako nobela dugu berau: herria/hiria, eguna/gaua, taberna/*puba*, tradizioa/modernitatea, Fermin/*Luisa*. Dikotomia aipatu dugu: izan ere, Luisa, subjektu protagonistetako bat, hiri, gau, *pub* eta modernitatearen anafora bilakatzen baitzaigu; aldiz, Fermin herri txiki bateko taberna batean diharduen gizasemea dugu.

Narra la vida de unos personajes que amalgaman modernidad y tradición. Mientras la taberna se hace eco de los relatos más arriesgados en la mentalidad más profunda del país, el *pub* acoge en su regazo la juventud y el vapor amoroso de la nocturnidad (Aldekoa 2004: 211).

Luisaren inguruan dakigun guztia, berak esanda, zazpi anai-arrebetatik (zenbaki simbolikoa, zazpi baitira kosmosaren zatiak) zazpigarrena, gaiztoena, sorginena dela bera. Berak aitortzen duen bezala, bere bizitza ipuin txar bat zen, fikziozkoa izateari utzi eta haragizkoa bihurtu zen hilerozkoa etorri zitzaionean. Lehen pertsona eta hirugarren pertsona erabili dira narrazioan zehar, zehar estiloa ere ikusi dugu Luisaren pentsamenduak ezagutzeko orduan, baina teknikarik garatuena elkarriketarena da. Komunikazio beharra aldarrikatzen du Luisak.

Luisa, ikuspegi marxista batetik (Goldmann 1970), tokatu zaion moralari, gizarteari oldartzen zaion heroia da; ez du onartzen informazioa eta jakin beharreko guztia botere guzueetatik etortzea eta bereganatzea. Berak, tokatu zaion gizartearen aurrean, informazioa eztabaidatzea, auzitan jartzea, kritikatzeko eta batez ere istorioak kontatzea proposatzen du. «Istorioak ondo kontatzen jakitea, berdin dio hitzez edo idatziz, hori da gure urrea, eta hori egiten dakiena aberatsa da. Hori da eskimalen urrea» (358). Aldarri horre-

tan Luisak gauaren semantika eta estetika eskainiko dizkiugu. Bere lagunak (Yolo, Dylan, Asier...) homosexualak, drogazale ohiak, gauean mugitzen dira. Euren kontzientzietatik edaten du Luisak. Berriro ere Goldmannek aipatzen zuen gizarte egitura mentaletik urrundu eta bere kontzientzia beste lagunaren kontzientzietatik hornitzen da (Bakthin 1979). Pertsonaia erreal, borrokalari eta boterearekin ados ez dagoenaren aurrean gaude. Ez da feminismoaren ikuspegitik bere burua emakume bezala eraikitzen duen protagonista bat, ezta ere emakume ideal bat Dultzinea edota Beatriz bezala, edota Salome edota Lilith bat, Euskal Herriko gauean mugitzen den haragizko gazte baten argazki bat baizik.

90eko hamarkadari amaiera emateko, Lourdes Oñederraren *Eta emakumeak sugeari esan zion* (1999, Erein) eleberriko *Teresa* aipatuko dugu. Izenburuak berak mito femeninorik esanguratsuenetakoa iradokitzen du, izan ere, sugeak esan baitzion Evari sagar hartatik jaten bazuen Jainkoen gisara betiko jakituria eskuratuko zuela. Teresa ere bere paradisutik botatako edo ihesean doan emakumea dugu; azken finean, Gorka Urbizuk esaten duen bezala (*Euskaldunon Egunkaria*, 2002-12-26), lanpostu eta senar egokiak ditu Teresak, gizartean arrakasta lortua du, zorion estandarrean bizi da, baina bere baitatik ihes egiteko, edo bestela bere burua aurkitu ahal izateko bidaiari ekiten dio. Dena den, Evak bezalaxe Teresak, transgresioaren ideia bere baitan daroa. Teresak hamar urte daramatza ezkondata. Aspertuta. Senarra utzi eta ihesi doa bere buruaren bila, munduan ez dagoen norbaiten, zerbaiten bila. Engainatua, beti bila ibiltzera kondenatua, ez dagoena ez baita inoiz aurkitzen. «Sagar debekatua jan izanagatik ezarririko zigorra. Evak ezin izan zuen orduz geroztik Adanen anima ukitu» (27).

Kanpora eta barrura egiten duen bidaian memoria izango du lagun. Memoria, oroitzea, hori da bizitza, biziera bakarra, batak bestean izan dezakeen lekua. Maitasuna ez al da memorian leku on bat ematea, beste bati tarte bat irekitzea. Zer da bestela maitatzea (84). Teresak Vienara egiten duen

bidaiak fisikoa da emakumezko horren barne-bidaia irudikatzen oinarri nagusia (Olaziregi 2002). Teresak leihotik begira egunak ematen ditu, etxearen edo oroimenaren zaindari. Etxeko leihotik, autobuseko leihotik, metroko leiho zirkulatik beti so. Leihotik kalera begira egon gabeko denbora zulo bat baita. Idazkera femeninoak bereak dituen leihotik ateratzeko beharra eta bakardadean nitasun sakona deskubritzeko beharra batzen dira biak ere Teresarengan. Iñaki Torre Fidak «'La mujer ventanera' en la poesía de Carmen Martín Gaité» artikulua interesgarrian esaten zuen leihoak begiratzeko era baldintzatzen zuela, ikusi gabe begiratzea posizio estrategiko berria zela. «Símbolo de lo fronterizo, límite entre el espacio cerrado y el abierto, entre lo familiar y lo inexplorado, [...] entre la guarida y la aventura del raso» (*Espéculo. Revista de estudios literarios* 19, 2001-2002: www.ucm.es/info/especulo/numero19/ventana.html). Bilakaera horretan zaila egingo zaie eleberriko pertsonaia maskulinoei Teresarengana hurbiltzea, urruti, oso urruti baitago Teresa. Eleberriri honen erdigune tematikoa hauxe dugu: emakumezko eta gizonezkoen arteko urruntasuna, bizitzeko eta sentitzeko era ezberdinak, hitz batean, ezin ulertua. Eta hori ere bada beste berrikuntza bat pertsonaia femenino horrek euskal literaturara ekarri duena.

Lehenbizikoz azaltzen zaigu euskal literaturan dena utzita Euskal Herritik doan emakume protagonista. Olaziregik esaten duen moduan (*Euskaldunon Egunkaria*, 2000-03-25), kontua ez da bakarrik pertsonaia nagusiaren baitan gertatzen den bilakaera testuratzea, aldaketa hori deskribatzeko behar diren ohiko tresna narratiboak iraultzea ere bai, bigarren pertsonaren erabilera edo nobelaren kronologia linealaren apurketa, fokuarien etengabeko aldaketa. Eta hori da, hain zuzen ere, Teresak berritik duena.

Olaziregik (2002), Oñederraren nobelaren inguruan, artifizio literario gutxikoa baina forma literario aldetik trinkoa zela esan zigun. Gauza bera gertatzen zaio Teresari, artifizio gutxi baina dudatu ezineko trinkotasuna duela, eta azken

adibide gisa aukeratu dugun Ixiar Rozasen *Edo zu edo ni* (Erein, 2000) nobelako *Grazianari* beste horrenbeste gertatzen zaio. Laburtu beharko bagenu, Grazianak aztertu ditugun beste hamaika pertsonaia femeninotatik ikasi egin due-la esan beharko genuke, eta, batez ere, *Zergatik Panpoxeko* ama edo Teresatik. Emakume hau adinean aurreratua dugu, eta bizitzarekin solasean egiteko beta gutxi izanik, gehiago dago zirt edo zart egiteko. Oñederraren Teresa eta Urretabizkaiaren maiuskulazko amaren antzera, subjektu kemen-tsua eta indartsua dugu Graziana. Erabaki bat hartu beharretik abiatzen da istorioa. Senarrak «zu edo ni» esaten dio. Eta Grazianak bere bizitzan hautua egin beharko du. Aitor-tu nahi ez duen amodioaz, bakardadearen beldurraz, ihes egiten ari zaion bizitzaz pentsatu behar du (Olaziregi 2002).

Forma eta egitura berritzaile aldetik Martzelina (Lertxundi) eta Irenerekin alderatuko genuke; izan ere, bi pertsonaie-tan foku erabilpena zinez interesgarria egiten da, eta Grazia-naren bizipenak kamera batez bezala jasoak daude. Esan behar da Grazianak bi denbora bizi dituela, senarraren enbidori «ni» erantzun osteko narrazio denbora eta erabakia har-tu aurrekoa. Denboraren nahiz espazioaren jarraipena ka-mera baten gisara jarraitua dago, lehentxeago esan bezala, eta azpimarratzekoa da Irenerekin nahiz Martzelinarekin gertatu bezala Grazianarekin lortzen den perspektiba abera-tsa. Zazpi kapitulutan banatua dago nobela eta kapitulu ba-koitza hitz batekin identifikatzen da. Elipsiek eta irudiek be-rebiziko garrantzia dute. Kapitulu eta ideia bakoitza irudi ez-berdin bat da, elementu bakoitza sinbolo bat. Lehen eta sei-garren kapituluan azaltzen den kaia niaren eta erroen irudia da; bidaia, askatasunaren imajina (Ana Urkiza, *Euskaldunon Egunkaria*, 2000-12-02). Bachelard-en etxea bilgunea da, baina, Grazianaren kasuan, utzi beharreko kartzela; argazkiak oroimena, bizitza eta heriotza: bere lagun minaren akabera, bere nahasmenduan konplize zuen bakarraren heriotza.

Bukatzeko, esan dezagun hamabi pertsonaia femenino ja-rri ditugula mahai gainean euskal literaturari ekarri diotena

kontatzen: sei protagonista emakume idazleenak eta beste seiak gizonaenak. Subjektuak denak eta gure literaturan espazioa nahiz denbora emakumezko ikuspegi batetik interpretatu dutenak; Lucia Guerra-Cunningham-i kasu eginenez, emakumeen sinbologia eta izatea berreskuratzen lagunduko digutenak. Guk hamabi pertsonaia femenino horiek nabarmendu ditugu gure literaturako subjektu femenino protagonistak direlako; baina ezin dugu ahaztu aukeraturako 25 urte horietan zienta bat nobela argitaratu dela eta protagonista femenino subjektu gehiago aurkitzea lan nekeza izango litzatekeela. Geratzen zaigun kezka —eta beste artikulua baterako gaia— hauxe da: zergatik gertatzen da euskal literaturan pertsonaia femenino subjektuen eskasia.¶

-
1. Eustatek 1989 eta 1994an egindako Bizi Kondizioen Inkesta, edo Siadecok 1996an *Euskaldunon Egunkariarentzat* eginikoa (*Jakin* 96, 1996, 29-42).
 2. Maite Nuñez Beteluk *Género y construcción nacional en las escritoras vascas* doktorego tesia egina baina argitaratu gabea du.
 3. Foucaultek erabiltzen du termino hori leku hertsia, baztertuak... adierazteko: hilerriak, zaharretxeak, gaztetxeak...
 4. Greimasek pertsonaiak unitate sintaktiko gisa ikusten zituen, eta sei funtziotan banatzen zituen: *subjektuak* (protagonista) *objektu* bat desiratzen du, desira horrek normalean *eragile* bat izaten du, eta objektua lortu ahal izateko *laguntzaileak* eta *aurkariak* azaltzen dira.
 5. Emakumearen eraikuntza eta independentzia ispiluaren osaketarekin ezaugarritzen zen XIX. mendean. Ispilua hausteak independentzia galdu eta gizonari entregatzea esan nahi zuen, baina ispilua hautsi eta gizonik ezean emakumea erotu eta suge uroboriko bilakatzen omen zen Lombroso eta Ferreroren hitzetan.

Bibliografía*Teoria liburuak*

- Aldekoa, I., 2004, *Historia de la literatura vasca*, Erein, Donostia.
- Bakthin, M., 1979, *Teoría y estética de la novela*, Taurus, Madril.
- Brunel, P., 1999, *Dictionnaire des mythes féminins*, Editions du Rocher, Paris.
- Ciplijauskaité, B., 1984, *La novela femenina contemporánea (1970-1985)*, Anthropos, Bartzelona.
- Dijkstra, B., 1986, *Idolos de perversidad. La imagen de la mujer en la cultura de fin de siglo*, Debate, Madril.
- Eliade, M., 1983, *Imágenes y símbolos*, Taurus, Madril.
- , 2000, *Aspectos del mito*, Paidós, Bartzelona.
- Estébanez Calderón, D., 1998, *Diccionario de términos literarios*, Alianza, Madril.
- Goldmann, L., 1970, *Pour une sociologie du roman*, Gallimard, Paris.
- Hamon, P., 1977, «Pour un statut sémiologique du personnage», in R. Barthes, W. Booth, W. C. Kayser, P. Hamon (arg.), *Poétique du récit*, Seuil, Paris.
- Irigaray, L., 1978, *Speculum: espéculo de la otra mujer*, Saltés, Madril.
- Jung, C. G., 1981, *Arquetipos e inconsciente colectivo*, Paidós, Bartzelona.
- , 1992, *Psicología y simbólica del arquetipo*, Paidós, Bartzelona.
- Kortazar, J., 2000, *Euskal Literatura XX. mendean*, Prames-las Tres Sorores, Zaragoza.
- Lasagabaster, J. M., 2002, *Las literaturas de los vascos*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- Lukacs, G., 1963, *Le roman historique*, Payot, Paris.
- Luna, L., 1996, *Leyendo como una mujer la imagen de la mujer*, Anthropos-Instituto Andaluz de la Mujer, Sevilla.
- Moil, T., 1995, *Teoría literaria feminista*, Cátedra, Madril.
- Olaziregi, M. J., 1999, *Intimismoaz haraindi: emakumezkoek idatzitako euskal literatura*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- , 2002, *Euskal eleberraren historia*, Labayru Ikastegia, Bilbo.
- , 2005, «Comentario cara á formación lectora. Un cocodrilo debaixo da cama, de Mariasun Landa», in G. Lluc, B. Roig (koord.), *Para entenderte mellor. As literaturas infantís e xuvenís do marco ibérico*, Servizo de Publicacións da Universidade de Santiago de Compostela, Santiago.
- Showalter, E., 1977, *A Literature of Their Own. British Women Novelists from Brontë to Lessing*, Princeton University Press, Princeton.
- Todorov, T., 1972, *Poétique*, Seuil, Paris.
- Woolf, V., 1981, *Las mujeres y la literatura*, Lumen, Madril.

Literatur lanak

- Aristi, P., 1998, *Urregilearen orduak*, Erein, Donostia.
- Arrieta, Y., 1997, *Jostorratza eta haria*, Kutxa, Donostia.
- Atxaga, B., 1995, *Zeru horiek*, Erein, Donostia.
- Borda, I., 1994, *Bakean utzi arte*, Susa, Zarautz.

- , 1996, *Amorezko pena baño*, Susa, Zarautz.
 —, 1996, *Bizi nizano munduan*, Susa, Zarautz.
 Epaltza, A., 1993, *Ur uherrak*, Pamiela, Iruña.
 Irigoien, J. M., 1982, *Poliedroaren hostoak*, Erein, Donostia.
 Landa, M., 1982, *Amets uhinak*, Elkar, Donostia.
 —, 1982, *Kaskarintxo*, Elkar, Donostia.
 —, 1983, *Elixabete lehoi domatzailea*, Elkar, Donostia.
 —, 1984, *Partxela*, Elkar, Donostia.
 —, 1984, *Txan Fantasma*, Elkar, Donostia.
 —, 1985, *Josepi dendaria*, Elkar, Donostia.
 —, 1985, *Izar berdea*, Elkar, Donostia.
 —, 1988, *Errusika*, Elkar, Donostia.
 —, 1988, *Iholdi*, Erein, Donostia.
 —, 1988, *Izeba txikia*, Erein, Donostia.
 —, 1988, *Maria eta aterkia*, Elkar, Donostia.
 —, 1988, *Aitonaren txalupa*, Elkar, Donostia.
 —, 1990, *Irma*, Elkar, Donostia.
 —, 1990, *Alex*, Erein, Donostia.
 —, 1990, *Kleta bizikleta*, Elkar, Donostia.
 —, 1992, *Potx*, Elkar, Donostia.
 —, 1994, *Julieta, Romeo eta saguak*, SM, Arrigorriaga.
 —, 1995, *Nire eskua zurean*, Erein, Donostia.
 —, 1997, *Ahatetxoa eta sahatz negartia*, Elkar, Donostia.
 —, 1997, *Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean*, Anaya Haritza, Bilbo.
 —, 2000, *Sorgina eta maisua*, Elkarlanean, Donostia.
 —, 2000, *Amona, zure Iholdi*, Erein, Donostia.
 —, 2001, *Elefante txori-bihotza*, Anaya Haritza, Bilbo.
 —, 2001, *Galtzerdi suizida*, Elkarlanean, Donostia.
 —, 2002, *Krokodiloa ohe azpian*, Alberdania, Irun.
 —, 2002, *Marlene eta taxizapata*, SM, Bilbo.
 —, 2003, *Marina*, Elkar, Donostia.
 —, 2004, *Inurri bitxia*, Erein, Donostia.
 —, 2005, *Haginak eta hilobiak*, Erein, Donostia.
 Lertxundi, A., 1983, *Hamaseigarrenean, aidanez*, Erein, Donostia.
 Lizarralde, P., 1988, *Hatza mapa gainean*, Pamiela, Iruña.
 Mintegi, L., 1986, *Bai... baina ez*, Susa, Donostia.
 Mirande, J., 1983, *Haur besoetako*, Erein, Donostia.
 Oñederra, L., 1999, *Eta emakumeak sugeari esan zion*, Erein, Donostia.
 Rozas, I., 2000, *Edo zu edo ni*, Erein, Donostia.
 Urretabizkaia, A., 1982, *Zergatik Panpox*, Hordago, Donostia.

Eskola-liburutegien egoera Hego Euskal Herrian

KARLOS SANTIAGO
JOSE FRANCISCO LUKAS
OLAIA JIMENEZ

K. Santiago eta J. F. Lukas EHUko Hezkuntzarako
Ikerkuntza eta Diagnosi-Metodoen Saileko irakasleak dira.
O. Jimenez Sail horretako Ikertzaile Laguntzailea da.

Sarrera

Testuingurua

Hego Euskal Herriko eskola-liburutegien ikerketa 2004-05 ikasturtean gauzatu da. Germán Sánchez Ruipérez Fundazioak babestu eta IDEAk —Hezkuntzarako Ebaluazioa eta Aholkularitza Institutua— gauzatu du Estatu mailako ikerlan hau. Artikulu honetarako oinarria *Las Bibliotecas escolares en España. Análisis y recomendaciones* (Marchesi eta Mirret, 2005) izenburupean argitaratutako liburua izan da. Estatuko zenbait Autonomia Erkidegok parte hartu dute ikerlanean, eta, gure kasuan, Hego Euskal Herriko lau lurralde historikoek.

Orotara, Hego Euskal Herriko lau lurraldeetako 24 ikastetxek parte hartu dute. Horietako zortzi Nafarroan, sei Bizkaian eta Gipuzkoan eta lau Araban.

Ikerketa honen aurretik, azken hamarkadan eginikoak hain zuzen, badira eskola-liburutegien egoeraren diagnostikoa egin eta administrazioaren esku-hartzea orientatzeko egin-

dako zenbait ikerketa. Horien artean, honako Autonomia Erkidegoek sustatutakoak daude: Gaztela-Mantxa (Ortiz-Repi-so eta Camacho, 2004), Nafarroa (Gobierno de Navarra. Departamento de Educación y Cultura, 1999) eta Katalunia (Baró, Mañà eta Roig, 1990 eta Baró, Mañà eta Comalat, 2002); eta Estatu mailakoa, berriz, 1995-96 ikasturte bitartean egini-koa (ANABAD, FESABID eta Ministerio de Cultura, 1997).

Nahiz eta eginiko ikerketek zabaltasun eta metodologia ezberdintasunak izan, guztietan ondorio berera iritsi ziren, alegia adituek oinarritzko eta kalitatezko zerbitzua eskaintzeko proposatzen dituzten eredu eta baldintzetatik oso urruti gelditzen dela espainiar Estatuko errealitatea.

Zehazkiago aipatuz, 1997an Estatu mailan eginiko ikerlana jotzen badugu, eskola-liburutegien horniduran eta funtzionamenduan hainbat hutsune antzeman zirela esan daiteke. Bide batez, honako hauek azpimarratzen dira:

- Nahiz eta oro har liburutegiaren funtzioa betetzen duen espazio bat izan, Lehen Hezkuntzan (LH) batez ere, ez zuten gutxieneko liburutegi zerbitzua emateko behar besteko espaziorik.
- Fondoetan, fikziozko eta ezagutza eta informazio dokumentuak aurkitzen ziren, nahiz eta nazioarteko erakundeek aholkatzen dutena baino gutxiago izan. Desberdintasunak agertzen ziren Lehen eta Bigarren Hezkuntza-koen artean, lehenaren kalterako.
- Fondoak berritu eta eguneratzeko eta liburutegian zerbitzua eskaintzeko aurrekontu urria antzematen zen.
- Nahiz eta liburutegiko arduradun funtzioak egiten dituen norbait egon, hark kudeaketa eta dinamizazio ego-
kia egiteko ez zuen ez prestakuntza teknikorik ez eta pe-
dagogikorik ere.
- Liburutegiaren ordutegia ez zen ikastetxearentzako zer-
bitzu egoia emateko adinakoa. Liburutegi gehienek or-
dutegi finkoa bazuten ere, etapa bakoitzerako desberdi-
na zen. LHko liburutegien %40 baino gehiagok astean
10 ordu baino gutxiago izaten zuten zabalik.

- Liburutegiko fondoan antolakuntzek ez zituzten katalogiaziorako normalizatutako arauak jarraitzen.
- Etapa bakoitzeko liburutegietako automatizazioa desberdina zen. Ahalegin nabarmena ikusi izan da katalogioaren digitalizazioan, baina LHkoak askoz gutxiago informatizatuak daude.
- Gehien erabiltzen den zerbitzua mailegua da; badira beste jarduera batzuk, informazio bilaketa, lan monografikoetarako laguntza, irakurketa sustatzeko saioak edota liburutegia eta informazio iturriak erabiltzeko formazioa, maiztasun gutxiagorekin agertzen direnak.
- Liburutegiaren proiektua curriculum proiektuaren baitan oso gutxitan agertzen da eta, batzuetan, ikastetxeko agiria izan behar zuenik ere ez zuten uste.
- Ikastetxeen portzentaje handi batean, laguntza eza eta kanpoko liburutegiekin lotura falta antzematen ziren (liburutegi publikoak, irakasleentzako zentroak eta baliabideak).

Emaitza horiek ikusirik, eskola-liburutegiak dauden egoera, bete beharreko oinarriko baldintzei dagokienez behinik behin, urria zela antzematen zen.

Eskola-liburutegien egoerara hurbiltzeko autonomia erkidego mailan lan ugari egin izan diren arren, espainiar Estatu egoera bere osotasunean inork ez zuen hartu.

Eguneratutako diagnostikorantz

Testuinguru honetan, gaurkotasunezko diagnostikoaren beharra ikusi zen, baina ez soilik datuak eguneratzeko, baizik eta ikuspegi osatuago batetik (liburutegien erabilera, IKTen—Informazio eta Komunikazio Teknologia— eta informazio iturri digitalen presentzia) errealitatea arakatzeko.

Beraz, ondorenean aurkezten den landa-azterketaren helburua da orain arte ebaluatutako funtzionamendu alderdien ikusmira bat lortzea eta gaur egunean garrantzia duten beste alderdi batzuk gehitzea.

Laburki, hauek dira egindako lanaren helburuak:

- Estatu mailako eskola-liburutegien ikuspegi gaurkotua ematea eta gurera etorrira Hego Euskal Herriko eskola-liburutegiena, kontuan harturik hutsuneak dituzten alderdiak, horien garapen potentziala edota etorkizunean esku hartzeko beharra izan dezaketzen zenbait alderdi.
- Orain arte planteatutako ebaluazio prozedura osatzea, alegia izaera kuantitatiboa duen azterketari prozedura kualitatiboak erantsi, datuak bildu eta kontrastatzeko.
- Eskola-liburutegien dinamikan, erabileran eta sorreran parte hartzen duten pertsonaiak ikerketara gehitzea: zuzendaritza taldeak, liburutegiko arduradunak, ikasleria eta irakasleria.
- Ebaluaziorako irizpide berriak aintzat hartzea bereziki, ikasleek eta irakasleek egiten duten liburutegien erabileran, informazio iturri digitalen eta beste baliabide teknologikoen erabilera (hornidura, jasotako eta eskainitako formazioa, erabilerak...).

Diagnostikoa eta gomendioa

Las Bibliotecas escolares en España. Análisis y recomendaciones (Marchesi eta Miret, 2005) egoeraren diagnostiko osatua eta gaurkotua egiteko, liburutegien funtzionamendu eta erabilera alderdiak kontuan hartzeko eta ikastetxeko jarduera pedagogikoaren baitan atxikitzeko asmoz sortu zen.

Xede nagusiak hauexek dira: analisirako eta hausnarketarako tresna izateaz gain, esku hartzeko eremuak zehaztea eta eskola-liburutegien hobekuntzarako neurri eta ekimen berriak ahalbidetzea.

Ikuspegi horretatik, ikerlana eskola-testuingururako laguntza gisa aurkezten da, egoeraren ikusmira gaurkotua emanez, iradokizunak eskainiz eta garapenerako bultzada emanez.

Erantzukizun eta eskuduntza era askotako eragileak aintzat hartu dira. Norabide horretan, hezkuntza administra-

zioa (zentrala eta autonomikoa), ikuskaritza, pedagogia-taldeak (zuzendaritza, irakasleak, liburutegiko arduraduna), elkarte espezializatuak, fundazioak, ikerketa erakundeak eta unibertsitate mailako formazioak elkarren artean arituz eta koordinatuz, eskola-liburutegiak beharrezko dituzten tresnez hornitzeko eta informaziorako, ikasketarako, kulturarako eta formaziorako zentro bihurtzen laguntzeko bidea dela ikusi da.

Eboluzioa

Ikerlan honek nazioartean gauzatu diren ikerketa-ildoak hartu ditu erreferentziatzen. Horrek ebaluazio praktika desberdinak alderatzeko eta etorkizunean egin daitezkeen lanak ikusteko aukera eman du.

Erreferentziatzen hartutako ildoak hauek lirateke:

- Eskola-liburutegien baldintzak eta funtzionamendua ikusteko azterketa kuantitatiboak. Horien artean bereizgarrienak, AEBetako *Department of Education* eta *National Center for Education Statistics* (Holton, Bae, Baldrige, Brown eta Heffron, 2004), Erresuma Batuko *Chartered Institute of Library and Information Professionals* (CILIP, 2002) eta Kanadako *National Library* (Durand eta Waltmann Dashko, 2001) eginkoak.
- Australiako (Lonsdale, 2003) eta Eskoziako (Williams, Wavell eta Coles, 2001) ikerketak: eskola-liburutegiak ikasleen lorpenetan zer-nolako eragina duen ikusi zuten, ikasleen zenbait konpetentzia aztertuz.

Eskoziako gobernuak, *How Good is Our School? Self-Evaluation Using Performance Indicators* (SCCC/HMI, 1999) ekimenarekin, ikastetxeentzako auto-ebaluaziorako tresnak sortu eta auto-diagnostikoa egiteko bidea eman du. Horrekin batera egoera ezberdinetako kasu praktikoak ere eskaintzen ditu.

Aurreko ikerketa ildoen haritik honako hiru lan eremu hauek irekitzen dira etorkizunerako:

- Espainiar Estatuko eskola-liburutegien aldian behingo diagnostikoa egitea, eta gure kasuan Hego Euskal Herriko eskola-liburutegiena, aztertutako adierazleen bilakae-ra ikustea ahalbidetuko duten prozedura eta tresnak erabiliz.
- Ikasleek euskarri ezberdinetako informazio iturriak erabiltzeko beharrezko dituzten konpetenzien azterketa (bilaketa, aukeraketa, egiaztatu, berregituraketa...) eta eskola-liburutegiek duten eragina formazio eta erabilera gune gisa.
- Ikastetxeentzako orientagarriak izango diren tresnak eta materialak sortu. Horien artean auto-diagnostikorako tresnak eta eskola-liburutegien hobekuntzarako jarraibideak eskaintzen dituen plana.

Europako egoera

Europako hainbat herrialdetako legedia aztertu ostean horien arteko konparaketa egin zen, eta zenbait ondoriotara iritsi. Horietako batzuk aurkeztuko dira.

Europan aztertu diren herrialde guztietan eskola-liburutegien sustapenerako politika bat badute, nahiz eta kasuan kasuko garapen egoera eta eskolako bizitzan duen integrazio maila ezberdinak izan.

Hedatuen dagoen eskola-liburutegi eredua irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua laguntzeko multimedia baliabideak dituen aretoa da.

Eskola-liburutegia informazio gizartean beharrezkoak diren konpetenziak eta ikaskuntza autonomia garatzeko beharrezko baliabidea dela uste da.

Herrialde gehienetan, eskola-liburutegiak, IKTen sarrerarekin, euskarri berrietan dagoen informazioa lortzeko eta informazio sareetara hurbiltzeko bidea izan dira.

Kooperatiba sareen atal izaten dira eskola-liburutegiak eta funtzionamendua bermatzen duten kanpoko laguntza zerbitzuak dituzte.

Legedia

Euskal Autonomia Erkidegoa

Euskal Eskola Publikoaren 1/1993 Legeak zenbait jardue-
ra eta zerbitzu proposatzen ditu, eta hezkuntzaren kalitatea
hobetzeko konpromisoa eta lege markoa eskaini. 4. artiku-
luan, e) atalean, hauxe zehazten da:

Hezkuntzaren helburuak erdiesteko [...] euskal eskola publi-
koak [...] ikastetxe bakoitzaren hezkuntza-proiektuari ego-
itutako instalazioak eta hornidurak izango ditu.

Eskola-liburutegien funtzionamenduari dagokionez ez da
horrelako araurik zehaztu.

Ikastetxeko lanpostuen artean, RPT edo LPZren arabera
(Lanpostu-zerrenda) ez dago liburutegiko arduradun pos-
turik, eta gehienetan bi irakasleren artean banatzen da ar-
dura hori.

Batxilergoko ikastetxe batzuetan PEAKo kideren batek be-
tetzen du ardura. ACEX (Actividades Complementarias y
Extraescolares) programak babestutako zenbait eskola-libu-
rutegietan arduradunak badaude. Dena dela, tutoreek eta
irakasleek beren beharren arabera eskuratzen dute materia-
la eta ondoren, gelan, mintegian edo liburutegian utzi.

Bestalde, urriaren 1eko 228/2002 Dekretuak, Euskal Auto-
nomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzio-
narioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena onartzen
duenak, bere 6. artikuluan hainbat bide irekitzen ditu:

CTP edo PBTak (Plangintza Batzorde Teknikoa) ikastetxee-
tan zenbait lanpostu berri sortzea aztertuko du (eskolaz kan-
poko jardueren dinamizatzailea, Zuzendaritzari laguntza, IKT
arduraduna, liburutegiko arduraduna, kirol jardueren ardura-
duna...). [...] hezkuntza administrazioak lanpostu hauek bete-
tzeko konpromisoa hartzen du ikastetxe bakoitzean, baliabide
pertsonalen arabera (EHAA 204, 2002-11-25).

Eskola-liburutegiak ez dira liburutegi autonomikoen sis-
teman sartzen, baina etorkizunean aurrera eramandako eki-
menak direla-eta loturak egiteko aukerak daude. Ikusi bes-

terik ez dago liburutegietako arduradunen eta erabiltzaileen (ikasleak, irakasleak eta gurasoak) formazioa liburutegi autonomikoen sistema ezagutzeko pentsatua dagoela.

Ekimenak

Hezkuntza Sailaren arabera, ikastetxe bakoitzak bere baliabideen, beharren eta zerbitzuaren balorazioaren arabera antolatzen du eskola-liburutegia.

Ez dago eskola-liburutegientzako diru-partida zehatzik, ikastetxe bakoitzak funtzionamendurako edo ekipamendurako jasotzen duen diru-partidatik antolatzen du. Kasu horretan udaletxeen laguntzak, lekuan lekuko desberdintasunekin, ikastetxeen premiak estaltzeko eta instalazioak eta altzariak hobetzeko berebiziko garrantzia dauka.

Ikastetxeen gain dago fondoak eskuratzeko ardura ekonomikoa. Tarteka, erakunde publikoen (udaletxeak, aldundiak eta jaurlaritza bera) ekarpenak ere izaten dituzte.

ACEX Programak eta ondoren egin diren deialdiek, eskola-liburutegien proiektuak egitea ahalbidetu dute. Ikastetxe bakoitzeko lanpostuei dagokien zerbitzu batzordeak irakasle-liburuzain postua dedikazio bakar eta lanaldi osorako esleitzeak liburutegiak bultzatzeko aukera eskaini du.

1995-96 ikasturtean Bizkaian egindako esperientzia pilotuaren balorazio positiboak Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurraldeetara hedatzea ekarri zuen 1996-97 ikasturtean. Honako bi helburu nagusi hauek lortu ziren:

- Baliabide pertsonal eta materialak optimizatzea.
- Hezkuntza erkidegoaren erabilera aukerak zabaltzeko, eskola instalazioak ordu gehiagoz irekita edukitzea aurreikusitako eskola ordutegiaren barnean.

1997an, ACEXen deialdi publikoa Haur Hezkuntza (HH), Lehen Hezkuntza (LH) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako (DBH); eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriek funtzio orokor hauek bete ditzakete hezkuntza sistemaren barruan:

- Ingurune kulturalera eta sozialera errotu.
- Parte hartzeko aukerak sortu.
- Desberdintasunen konpentsazioa.
- Aniztasunaren integrazioa, hezkuntza sistemaren kalitatea hobetuz.

Eginiko deialdian, bost eremu proposatzen dira:

- Eskola-liburutegiak.
- Komunikazioa, prentsa eta irratia.
- Arte plastikoak eta adierazpen artistikoa.
- Ingurumena.
- Eskola kirola.

Proiektu honekin lortu nahi diren helburuek aldi berean liburutegiko arduradunaren jardun eremuak adierazten dituzte:

- Lanpostu honen profila besteetatik bereizi bai gai labo-
raletan eta baita pedagogikoetan ere.
- Erabiltzaileak formatu, ikasleak eta irakasleak, autono-
miaz informazioa bilatu ahal izateko bai eskola-liburute-
gian zein publikoan.
- Liburutegiaren erabilera sustatu, euskarri ezberdinetako
informazio iturriak erabiltzeko.
- Irakurketa sustatu eskolan zein hemendik kanpo mur-
gildu ahal izateko.

Eskola-liburutegietako egitasmoak gauzatuz joan diren heinean, alderdi garrantzitsua izan da arduradunaren irakasleentzako ordutegia eta funtzioak zehaztea: batetik, asteko lanorduetatik heren bat, 10 ordu, irakasleekin koordinatze-ko eta urteko planean jarduera programa prestatu eta txertatzeko; bestetik, lanorduen bi herenak eskolaz kanpoko ordutegian, planifikazio malgua.

1998tik aurrera, proiektuaren arduradunarentzako eta parte hartzen duten irakasleentzako derrigorrezkoa da formazio ikastaroetara joatea. 2002, 2003 eta 2004ko ebazpenek aurrekoetatik desberdintasunak ekarri dituzte, batez ere hizkuntza eskakizunari eta eskolak ematen dituen etapari

dagokionez. Hau da, LHko eta DBHko lehen ziklokoek parte har dezakete, baina 2. HE (Hizkuntza Eskakizuna) izan ezean.

Formazio plan pilotuak 240 orduko ikastaroak eskaintzen ditu, bi urtetan egitekoak. Lurraldeetako koordinatzaileak egiten ditu jarraipena, ebaluazioa eta proposamenak. Liburutegiko arduradun guztiek oinarrizko hiru ikastaro egiten dituzte, Bibliotekonomia eta liburutegira egokitutako baliabide informatikoak, kokapena eta konfigurazioa, erabiltzaileen formazioa, ikastetxeko proiektuan eta urteko planean txertatzea, baliabide didaktikoen kontrola eta kudeaketa, eta abar.

Gaur egun 144 liburutegi-mEDIATEKA daude, HHTik DBHra bitartean. Horietatik 26 Araban, 72 Bizkaian eta 46 Gipuzkoan. Proiektuen arduradun kopurua 148 da.

Arduradun bakoitzak jarduera plan bat osatu behar du; klaustroan eta eskola kontseiluan onartuz gero, urteko planean txertatuko da:

- Liburutegiko arduradunaren ordutegia, eskola ordutegia eta eskolaz kanpokoa.
- Ordu eremu bakoitzeko jarduna.
- Ikasleekin egingo dituen jarduerak: ipuin kontaketa, irakurketa sustatu, literatur berbaldiak, erabiltzaileen formazioa, eta abar. Horiek ez dira eskola orduak izango.
- Jarduera orokor zein espezifikokoak: liburuaren eguna, ipuin lehiaketak...

Nafarroako Foru Erkidegoa

Nafarroako Liburutegi Sistema arautzen duen 32/2002 Foru Legeak honela definitzen du eskola-liburutegia:

Eskolako liburutegiak oinarrizko baliabide-zentroak dira, ikastetxe bakoitzaren hezkuntza eta curriculum proiektuetan erabateko txertatuak, eta informazio zerbitzu aktiboa ere badira, betekizun funtsezkoa duena ikasleek ikasketekin, irakaskuntza lanekin eta ikastetxearen gizarte eta kultura ingurunearekin loturik.

Gaineratzen du:

Hezkuntza sistemari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoak ezartzen du ikastetxe guztietan egon behar dela liburutegi bat, irakaskuntzaren parte bezala, ikasle eta irakasleei irekia eta foru legeak emandako eginkizunak betetzeko behar adinako baliabide dokumentalak, tokiaren aldetikoak zein langileenak izanen dituen (32/2002 Foru Legea, NAO 142, 2002-11-25).

Liburutegi publikoen eta eskolakoen arteko harremana ere arautzen du:

- a. Liburutegi publikoek laguntza emanen diete eskola liburutegiei liburutegien arteko maileguaren bitartez. Halaber, aholkularitza tekniko, erabiltzaileentzako prestakuntza, eta elkarren arteko programetan parte hartzeko aukera ere emanen diete.
- b. Nafarroako liburutegi publikoen sistemaren eta Foru Komunitateko eskola liburutegien eta irakasleei laguntzeko zentroen arteko harremanak hitzarmen bidez ezarri eta erregulamentuz garatuko dira.

Eskola-liburutegien antolakuntza, funtzionamendua, ekin-tzak eta finantziazioa eta liburutegi sistemarekiko lankidetzara oraindik egin gabe dauden beste lege batzuek arautuko litzukete.

Liburutegiak eskaini beharreko baliabide pertsonal eta zerbitzuei buruz, ikastetxeetako antolakuntza eta funtzionamendu arauen bitartez erregulatzen dira, eta hauek dira eskola-liburutegiari dagokionez jasotzen diren erreferentziak (172/2004 Foru Agindua, NAO 91/2004, 2004-07-30): «Arlo guztietako programazioek eskola liburutegiko baliabideen erabilerari buruzko atal bat izanen dute».

Eskola-liburutegiko koordinatzaile bat ezartzen da, idazkariaren baitan eta astean bi orduko dedikazioarekin bai Lehen Hezkuntzan eta bai Bigarren Hezkuntzan ere. Beraren funtzioak ekainaren 29an MECek (Ministerio de Educación y Ciencia) ateratako aginduekin bat datoz: liburutegiko baliabideak familiei irekitzea eta liburutegi publikoaren eta eskola-liburutegiaren arteko komunikazioa mantentzea fondoak eta esperientziak partekatzeko.

Ekimenak

1998an eskola-liburutegien onurarako formazio eskaintza eta *Abies* programa zabaltzeko aukerak eman ziren. Horren ondorioz, ikastetxe askotan liburutegia antolatzeke eta fondoak zabaltzeko ardura hartu zuten. Orduan sortu zen eskola-liburutegi eredua.

1999an, Berrikuntza Pedagogikorako Zerbitzuak eskola-liburutegiak hobetzeko errealitatea ezagutzeko diagnosa egin zuen (Gobierno de Navarra. Departamento de Educación y Cultura, 1999). 2002-03 ikasturtean, ebaluazio berbera egin zen horien bilakaera ikusteko.

2000. urteko martxoaren 27an, Foru Parlamentuak eskola-liburutegien berrikuntzarako plana onartu zuen. Hauek dira biltzen dituen erabakiak:

- Plana aurrera eramateko egutegia egitea, hartu beharreko neurriak, aurrekontuak eta baliabide tekniko eta pertsonalak zehazteko.
- Irakurketa sustatzeko benetako politika aurrera eramateko eskola-liburutegien berrikuntzarako planak eta irakurketa planak ardatz berbera izateko bitartekoak ezartzea.
- Eskola-liburutegi bakoitzean irakurketa sustatzeko plana sortzea, curriculum arlo guztiak kontuan hartzen dituen eta ikaskuntza laguntzen duena.
- Liburutegi guztiak beharrezko euskarri teknologikoez hornitzea.
- 2001-02 eta 2003-04 ikasturteen bitartean liburutegi guztiek berrikuntza eginga izateko bitartekoak jartzea.
- Irakasleentzako prestakuntza antolatu eta mintegi iraukorak bultzatzea.
- Katalogo kolektiboa osatzea.

2001ean, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak irakurketa sustatzeko plana osatu zuen. Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako Printzipioetako bat honako hau du: «Eskola-liburutegia beharrezko tresna da irakurketa

planak arrakasta izateko. Ikastetxeko irakasleek ongi antolatu eta dinamizatu egon behar du» (583/2002 Ebazpena eta 527/2002 Ebazpena, NAO 110, 2002-09-11).

Beste ekimen batzuk:

- Atlante Plana: LHko ikasleen oinarrizko kompetentziak hobetzeko plana; eskola-liburutegien erabilerari eta irakurketari buruzko 14 neurri ditu.
- Fondoan antolakuntzarako eta dinamizaziorako aholkularitza, Berrikuntza Pedagogikoko Zerbitzuaren eskutik.
- Irakasleentzako prestakuntzarako zentroetako liburutegien prestaketa, eredu bihurtu ahal izateko. CAP (Certificado de Aptitud Pedagógica) bakoitzean liburutegiei buruzko mintegi iraunkorra osatu dute.
- Irakurketa eta liburutegiko proiekturik onenarentzako sariak.
- Eskola-liburutegien kanpaina bultzatzeko, *Blitz* liburutegiko arratoiaren irudia sortu zen; hortik materiala sortu zen euskaraz eta gaztelaniaz: liburuxkak, horma-irudiak, ikurrak, liburuak, eta abar, irudi horrekin (Nafarroako Hezkuntza Saileko web orria).

Metodologia

Ebaluazio ereduaren ondoko elementu hauek osatzen dute:

- Eskola-liburutegien funtzionamenduan eragiten duten aldagai multzoak biltzen dituen dimentsioen ezarpena: liburutegiaren funtzionamenduaren ikusmira deskriptiboa izateko aldagaiekin batera (instalazioak eta ekipamendua, bilduma, pertsonala, kudeaketa eta funtzionamendua), erabilerari, balorazioei eta erabiltzaileak asebetetzeari dagozkien aldagaiak.
- Liburutegien kudeaketan, dinamizazioan eta erabileran parte hartzen duten eragileen ikuspegiaren bilketa: zuzendaritza taldeak, liburutegiko arduradunak, irakasleria eta ikasleria.

- Datu kuantitatiboak lortzeko tresna aproposak (berariazko galdera-sortak) erabiltzea batetik eta datu kualitatiboak eskuratzeko prozedurak (behaketa sistematikoa eta elkarrizketa) bestetik.

Ondorengo taulak laburtzen digu arestian aipatutako elementuen arteko lotura:

1. taula. Ebaluazio eredua

| | Zuzendaritza taldeak | Arduradunak | Irakasleria | Ikasleria | Kanpo-behátzaileak |
|--|----------------------|-------------|-------------|-----------|--------------------|
| Ikastetxeko liburutegia | ▲ ● | | ▲ | | |
| Ekipamendua, instalakuntzak eta teknologia | | | | | ■ |
| Bilduma | | ▲ | ▲ | ▲ | ■ |
| Langileak | ▲ | ▲ | | | |
| Kudeaketa eta funtzionamendua | ▲ | ▲ | ▲ | ▲ | |
| Erabilera eta erabiltzaileak | | ▲ | ▲ | ▲ | ■ |
| Balorazioak | ● | | | | |

▲ Berariazko galdera-sortak ● Elkarrizketa ■ Behaketarako protokoloa

Dimentsioak

Aurreko taulan ikus daitekeenez, zazpi dimentsioz osutako ebaluazioa da, eta bakoitzak bere berariazko ebaluazio irizpideak biltzen ditu. Artikulu honetan zazpi dimentsio hauetatik lehenengo lauak aztertu dira, hala nola, Ikastetxeko Liburutegia; Ekipamendua, instalazioak eta teknologia; Bilduma eta Pertsonala.

- I. *Ikastetxeko liburutegia*. Badagoen edo ez dagoen eta erabiltzaileek hura ezagutzen ote duten. Beste liburutegiakin (gelakoa, mintegikoa) duen harremana eta haren lotura funtzionala. Liburutegiaren ibilbidea (funtzionamendu urteak, berrikuntza eta hobekuntza proiektuak, antzemandako bilakaera). Liburutegiaren proiektua (elementuak, arduraduna, asebetetze maila eta eraginak).

- II. *Instalazioak, ekipamendua eta teknologiak*. Kokapena, sarbidea eta seinaleak. Azalera eta ahalmena. Irakurketarako eta lanak egiteko antolamendua eta baldintzak. Telekomunikazioak eta ekipamendu informatikoa. Segurtasuna.
- III. *Bilduma*. Tipologia eta dokumentu kopurua. Behar desberdinak estaltzeko nahikotasuna. Fondoan jatorria. Eragileak, aukeraketarako irizpideak eta iturriak. Ordenatzeko irizpideak. Fondoak eguneratzea. Tratamendu teknikoa. Iresgarritasuna.
- IV. *Langileak*. Arduradunaren profila (titulazioa, etorkizko ziklo eta arloak, antzintasuna postuan, izendapenerako irizpideak, lotura funtzionala, oinarrizko formazioa, formazio beharrak eta eguneratzea). Dedikazioa. Liburutegiko funtzioak betetzen dituzten beste langileak (profila eta dedikazioa). Liburutegiko batzordea (badagoen edo ez dagoen, osaketa, funtzioak).

Eragileak

Ebaluazioan parte hartu duten eragileak hauek izan dira:

- Zuzendaritza Taldea, ikastetxeko arduraduna eta lan-programa ezberdinen sustatzailea den aldetik.
- Liburutegiko arduraduna, liburutegiko kudeatzailea eta dinamizatzailea delako.
- Irakasleria, liburutegiko erabiltzailea eta planifikazio, kudeaketa eta dinamizazioko parte-hartzailea den neurrian.
- Ikasleria, erabiltzailea eta kudeaketarekin eta dinamizazioarekin zerkusia duten jardueretako parte-hartzailea delako: Lehen Hezkuntzako 4. eta 6. mailakoak; Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailakoak eta Batxilergoko 2. mailakoak.

Tresnak

Datuak jarraian azaltzen diren zazpi ebaluazio-tresna bidez jaso dira:

- Bost berariazko galdera-sorta:
 - Zuzendaritza Taldearentzako.
 - Liburutegiko arduradunarentzako.
 - Irakasleriarentzako.
 - Lehen Hezkuntzako ikasleentzako.
 - Bigarren Hezkuntzako ikasleentzako.
- Zuzendaritza Taldea elkarrizketatzeko protokoloa, hainbat aldagai deskribatzailearen kontrastea egiteko proposatua eta erabileraren eta liburutegiaren errendimenduari buruzko balorazioa ezagutzeko.
- Behaketa sistematikoa egiteko protokoloa, instalazio, ekipamendu, teknologia eta bildumaren deskribapena egiteko aldagaietan oinarritua.

Datu teknikoak

Hauek dira azterlan honetako datu teknikoak:

- Lagina: 24 ikastetxe; 197 irakasle, zenbait probintzia eta ikasmailatako Bigarren Hezkuntzako 515 eta Lehen Hezkuntzako 225 ikasle.
- Datak: tresnen proba pilotua (2004ko ekaina); datu bilketa (2004ko azaroa).
- Eremu geografikoa: Hego Euskal Herria.
- Ikastetxe mota: publikoak (LH eta BH) eta kontzertatu/pribatuak.
- Ebaluazio-tresnak:
 - Zuzendaritza Taldeari elkarrizketa (ikastetxeko bat).
 - Zuzendaritza Taldearentzako galdera-sorta (ikastetxeko bat).
 - Liburutegiko arduradunarentzako galdera-sorta (ikastetxeko bat).
 - Irakasleentzako galdera-sorta (ziklo eta mintegi guztietakoak).
 - Ikasleentzako galdera-sorta (ikasmailaren arabera).
 - Behaketa protokoloa (ikastetxeko bat).

Emaitzak

Azterlan honetan lortutako emaitzak era honetan aurkezten dira: lehenik eskola-liburutegiari dagozkionak, ondoren instalazio eta bildumari buruzkoak eta azkenik liburutegien arduradunari dagozkionak.

Azterketa honetan Hego Euskal Herriko lau lurralde historikoetako ikastetxeek parte hartu dute. Baina lagin hori Estatu osoan egindako azterketaren zati bat besterik ez da. Horrek esan nahi duena zera da: Hego Euskal Herriko datuak izateaz gain, Estatu osoan lortutako emaitzak ere badi-tugula. Beraz, nahiz eta azterketan gure testuinguruan ger-tatutakoa azaldu, lortutako emaitzak Estatukoekin aldera-tzerakoan desberdinak direnean, diferentzia horiek aipatu-ko ditugu.

Ikastetxeko liburutegia


Dimentsio horrek zuzendaritza talde, irakasle eta ardura-dunek eskainitako ikuspegia biltzen du. Zehazki, honako al-derdi hauei buruzko informazioa jaso da: ibilbidea, liburu-tegi-proiektua eta beste erabilerak. Ikus ditzagun banan-ba-nan emaitza esanguratsuenak.

Liburutegien ibilbidea

Lortutako emaitzak 1. irudian aurkezten dira. Kontuan hartu behar da ikastetxeen %17,4k ez duela informazio ho-ri eskaini.

Datuen arabera, gutxi gorabehera liburutegien herenak (%30,4) bost eta hamabost urte bitarteko antzinasuna duela esan daiteke. Horretaz gain, liburutegien laurden ba-tek azkeneko bost urteetan abiarazi du zerbitzua eta beste laurdenak orain hamabost urte baino lehenago ireki zuen liburutegia.


1. irudia. Liburutegia funtzionatzen hasi zen urtea (ikastetxeen %)



Atal honen barruan aztertu den beste alderdia izan da azken lau urteetan liburutegiak hobekuntza edo berrikuntza egitasmoren batean parte hartu ote duen. Bigarren irudian ikus daitekeenez, ikastetxeen %73,9k egitasmoren batean parte hartu duela dio eta %21,7k, berriz, ezetz.

Estatu mailan jasotako datuekin erkatuz gero, zera antze-man daiteke: Hego Euskal Herriko eskola-liburutegietan berrikuntza egitasmoetan parte-hartzea (%73,9) handiagoa dela Estatuan baino (%21,7).

2. irudia. Azken lau urteetan hobekuntza edo berrikuntza egitasmoetan parte hartu (ikastetxeen %)




Liburutegi-proiektua

Ikastetxeen %47,8k liburutegiak urteko lan-plangintza daukela adierazten du. Estatu mailan, datu hori %62,6ra igotzen da.

Plangintza hau egitean eta jarraipenean parte hartzen dutenen artean, *liburutegiko irakasle arduraduna* da gehien sartzen dena (ikastetxeen %47,8), *Zuzendaritza Taldea* (%21,7) eta *Hizkuntza eta Literaturako Mintegia* hurrengoak izanik. Hirugarren irudian, parte-hartzeari dagozkion emaitzak behatu daitezke.

3. irudia. Urteko lan-plangintzaren definizio eta garapenean partaideak (ikastetxeen %)




Espainiako Estatuko datuekin alderatuz, antzeman daitezkeen desberdintasun nabarmenenak honako kasu hauetan azaltzen dira: *liburutegiko irakasle arduraduna* (%64), *Zuzendaritza Taldea* (%36), *liburutegiko batzordea* (%21,2) eta *beste arloetako Mintegiak* (%5,7)

Liburutegi-proiektuarekiko asebetetzeari begiratzuz, jasotako emaitzak honako hauek dira: ikastetxeen %43,5ek asebetetze-maila handia erakusten du, %34,8k asebetetze nahikoa eta %21,7k asebetetze eskasa.

Beste erabilerak

Laugarren irudian, liburutegiari ematen zaizkion erabilerak azaltzen dira. Ikus daitekeenez, ikastetxeen %23,5ek bakarrik erabiltzen du liburutegia zerbitzu horretarako soilik. Gainerakoek beste erabilera batzuk ere ematen dizkiote liburutegiari.


4. irudia. Liburutegiari ematen zaizkion beste erabilera batzuk (ikastetxeen %)



Ekipamendua, instalazioa eta teknologiak

Dimentsio horri dagozkion datuak kanpo-eragile batek behaketa zuzenaren bitartez jasotakoak dira. 5. irudian, dimentsio horren alderdi bakoitzaren datuak aurkezten ditugu. Bertan ikus daitekeenez, *lanerako baldintzak* alderdia da ikastetxeetan era positiboagoan nabarmentzen dena.

5. irudia. Ekipamendu, instalazio eta teknologiak (kategoria bakoitzean baloraturako ikastetxeen %)



Aldiz, *segurtasuna* alderdiari begiratzuz gero, ikastetxe guztien erdia baino gehiagok ez dauka oinarrizko segurtasun neurririk, hala nola, ebakuazio-plangintza eta larrialdi-irteera. Halaber zera aipatu behar da: material eta pertsonen segurtasunerako gomendatutako neurriak dituen ikastetxerik ez dago.

Ildo beretik doa *telekomunikazio eta informatika-hornikuntza* alderdia. Datuen arabera, ekipamendu teknologikoa eskasa da. Ikastetxeen %43,5ek ekipamendu eskasa dauka; besteak beste, liburuzainarentzat ordenagailu bakarra dago gehienez eta interneterako sarbiderik ez dago. Ikastetxeen %8 soilik baloratu da positiboki alderdi honetan, alegia, ikasleen ikaskuntza eta informazio beharrentzako hornikuntza egokia erakusten dutela.

Azkenik, *kokapena, sarbidea eta seinaleak* eta *lekuen banaketa* aldagaiak tarteko balioetan lekutzen dira: liburutegiaren kokapena erdialdekoa da, kanpotik sarbiderik gabekoa, ez dago seinaleztatua ikastetxeko errotuluetan, espazioak legedia betetzen du baina aldi berean zenbait jarduerara (mailegua, irakurketa informala, talde-lanak, eta abar) egitea ez du baimentzen.

Bilduma


Bildumari dagozkion emaitzen aurkezpenean honako atal edo alderdi hauek azalduko ditugu: lehenik, liburutegiko osaketari buruzko datuak, dokumentu-mota eta kopuruaren arabera; ondoren, euskararen inguruko datuak, dokumentuen jatorria, hautaketan zerikusia duten aspektu guztiak, bilduma gaurkotzea, bildumaren tratamendu teknikoaren maila, antolaketa eta eskuragarritasunari buruzko emaitzak.

Osaketa eta kopuruak

Bilduman egon daitezkeen euskarri guztien artean *liburuak* dira ikastetxe guztietan protagonista nagusiak. Hala-


ber, *aldizkari, egunkari eta ikus-entzunezkoen* presentzia (bideoak, diapositibak, diskoak eta zintak...) garrantzizkoa da (%70,6). *Dokumentu elektronikoak* (CD-Romak, CDak eta DVDak...) ugaritzen hasiak dira liburutegietan (%47,1). Azkenik, *jokoak eta beste objektu batzuk* ikastetxeen %23,5ek begiesten ditu.

6. irudia. *Liburutegian dauden material motak (ikastetxeen %)*




Materialak nori zuzenduak diren begiratzen badugu, zera nabarmentzen da: liburutegien %58,8k *irakasleriarentzako dokumentuak* dituela, hala nola, aldizkari profesionalak, legeria, didaktikako eskuliburuak, eta abar. Atal honetan, Estatu mailan egindako ikerketatik ateratako portzentajea %70,9 izan da. Beste materialen banaketa 7. irudian ikus daiteke.

7. irudia. *Liburutegian dauden beste materialak (ikastetxeen %)*



Dokumentuen kopuruari dagokionez, nabarmendu behar den datua da ikastetxeen %35,3k ez duela bolumenen kopurua eskaini. Datu hori eskaini duten ikastetxeen artean dituzten dokumentuen kopuru banaketa 8. irudian ikus daiteke.

8. irudia. Liburutegiak kudeatzen duen dokumentu-kopurua (ikastetxeen %)



Azkenik, dokumentuen kopurua zenbait saili begiraturaz era honetan banatzen da:

2. taula. Sailen arabera dokumentuen banaketa (nahikoa edo oso ongi hornitutako ikastetxeen %)

| Saila | % | Saila | % | Saila | % |
|---------------------|------|----------------------|------|---|------|
| Gorputz Heziketa | 5,9 | Musika | 11,8 | Hizkuntza | 41,2 |
| Matematika | 5,9 | Heziketa Plastikoa | 11,8 | Natur Zientziak | 47 |
| Hizkuntza Klasikoak | 5,9 | Atzerriko Hizkuntzak | 11,8 | Gizarte Zientziak, Historia eta Geografia | 70,5 |
| Teknologia | 11,8 | Filosofia | 23,5 | Literatura | 76,4 |

Euskarazko materialak

Liburutegietako bildumen inguruan, euskarazko materialeri buruz ikastetxeetako hainbat eragilek zein iritzi duten jakin nahi izan da. Hain zuzen ere liburutegiko arduradunen, ikastetxeko irakasleen eta zuzendarien erantzunak jaso dira. Horretarako, liburutegietan dauden euskarazko eleberri, hiztegi, entziklopedia eta abarren kopuruen egokitasunarekiko adostasun edo desadostasunaren mailaz galdetu zaie.

Hirugarren taulan dauden datuak aztertuz gero, askotariko eragileen artean iritzi desberdinak daudela ikus daiteke. Oro har, arduradunek egiten dute ebaluazio baikorrena, ira-

kasle eta zuzendarien artean antzekotasun handiagoak izanik. Hona hemen balorazioetan egiten dituzten desberdintasun handienak.

- Arduradunaren iritziz, euskarazko eleberrien kopurua nahiko egokia da, baina gainerako euskarazko materialen kopuruarekiko adostasun maila jaisten da.
- Irakasleentzat, berriz, euskarazko materialen egokitasunarekiko adostasun maila jaisten da, eta haientzat ez dago desberdintasunik euskarazko eleberrien eta hiztegi edo entziklopedien kopuruen artean.
- Zuzendarien iritziz, euskarazko materialen artean hiztegi eta entziklopediek nahiko kopuru egokia erakusten dute.

3. taula. Euskarazko materialen kopuruaren egokitasuna (ikastetxeen %)

| | | Arduradunak | Irakasleak | Zuzendariak |
|--|---|-------------|------------|-------------|
| <i>Eleberriak</i> | 1 | 0 | 16,8 | 5,6 |
| | 2 | 28,6 | 32,1 | 44,4 |
| | 3 | 35,7 | 43,1 | 38,9 |
| | 4 | 35,7 | 8 | 11,1 |
| <i>Hiztegiak Entziklopediak</i> | 1 | 0 | 13,9 | 0 |
| | 2 | 33,3 | 34,3 | 31,5 |
| | 3 | 43,3 | 41,6 | 63,2 |
| | 4 | 13,4 | 10,2 | 5,3 |
| <i>Ikus-entzunezkoak Elektronikoak</i> | 1 | 33,3 | 27,9 | 22,2 |
| | 2 | 33,3 | 48,1 | 50 |
| | 3 | 16,7 | 18,6 | 22,2 |
| | 4 | 16,7 | 5,4 | 5,6 |
| <i>Aldizkariak Egunkariak</i> | 1 | 36,4 | 25,6 | 22,2 |
| | 2 | 18,1 | 37,2 | 44,4 |
| | 3 | 36,4 | 31,8 | 27,4 |
| | 4 | 9,1 | 5,4 | 5,6 |

1 Erabat desados

2 Desados


3 Ados

4 Erabat ados

Jatorria

Ikastetxeek nagusiki beren bildumen osaketa dokumentuen erosketaren bitartez egiten dute (%58,8). Aipatzekoa da ikastetxeen %17,6k eskusiboki oparitutako materialez osatzen duela bilduma. Gainerako datuak 9. irudian ikus daitezke.

9. irudia. Liburutegiko materialen jatorria (ikastetxeen %)



Hautaketa

Materialen aukeraketari buruz, honako hiru alderdi hauei buruz jaso dira datuak: aukeraketan parte hartzen duten eragileak, aukeraketarako irizpideak eta erabilitako iturriak.

4. taula. Materialen aukeraketan eragileak, irizpideak eta iturriak (ikastetxeen %)

| Eragileak | % | Irizpideak | % | Iturriak | % |
|-----------------------------------|------|---|------|---|------|
| Familiak | 11,8 | Zaharkitutako eta hondatutako materialak birjartzea | 17,6 | Liburutegi publikoak | 11,8 |
| Koordinazio Pedagogikorako Taldea | 17,6 | | | Haur eta gazteen-tzako web orri espezializatuak | 17,6 |
| Liburutegiko Batzordea | 17,6 | Egitasmo zehatzetako gaiekiko erlazioa | 17,6 | Prentsako aipamenak eta aldizkari espezializatuak | 23,5 |
| Ikasleak | 29,4 | | | Mintegi edo elkarte espezializatu gomendioak | 23,5 |
| Zikloko edo Mintegiko Taldea | 58,8 | Fondoko gaiak osatzea | 23,5 | Liburu dendak | 35,3 |
| Zuzendaritza Taldea | 64,7 | Curriculumarekin erlazioa | 41,2 | Argitaletxetako ordezkariak | 35,3 |
| Irakasleak | 64,7 | Fondoaren gaurkotzea | 70,6 | Liburu dendatako edo argitaletxetako katalogoak | 88,2 |
| Liburutegiko arduraduna | 70,6 | | | | |

Goiko taulan ikus daitezke alderdi bakoitzari dagozkion datuak. Datu hauen iturria irakasle eta arduradunek emandako erantzunak dira.

Laugarren taula horretan ikus daitekeenez, aukeraketan gehien esku hartzen duten eragileak liburutegiko arduraduna, irakasleak, zuzendaritza taldea eta ziklo eta mintegiko taldeak dira, ordena horretan. Espainiar Estatuan jasotako datuen arabera, eragileen ordena eta portzentajeak bestelakoak dira: irakasleak (%71,3), zikloko edo mintegiko taldeak (%59,4), liburutegiko arduraduna (%49) eta zuzendaritza taldea (%39,8). Nabarmendu behar da Hego Euskal Herriko eskola-liburutegietan zuzendaritza taldeek eta liburutegiko arduradunek duten esku-hartzea materialen aukeraketan.

Bilduman ebaluatzeko beste alderdi interesgarria da materialen aukeraketarako erabiltzen diren irizpideak. Aukeraketan erabilitako irizpide ohikoenak honako hauek dira: fondoaren gaurkotzea (%70,6) eta curriculumarekiko erlazioa (%41,2).

Aukeraketan hirugarren elementu garrantzizkoa dira erabilitako iturriak. Laugarren taulan ikus daitekeenez, iturri ugari erabiltzen dira, baina proportzio oso desberdinetan. Pisu handiena duten iturriak komertzialak dira. Ikastetxeen %80,5en liburu denda edo argitaletxetako katalogoak erabiltzen dira eta %35,3n argitaletxetako ordezkariak. Aldiz, iturri kritiko espezializatuak oso gutxi erabiltzen dira: ikastetxeen %35,3k bakarrik erabiltzen ditu liburu dendak eta %23,5ek prentsako aipamenak, aldizkari espezializatuak edo elkarte espezializatuen gomendioak.


Gaurkotzea

Liburutegiko bilduma ebaluatzeko beste alderdi bat da materialen gaurkotzearen maila. Zentzu horretan, zaharkitutako materialak kentzeak praktika sistematikoa izan behar luke. Praktika horrek, material berriak sartzearekin batera, bilduma egunean mantentzea ekarriko luke.

Zentzu horretan, eta datuek erakutsitakoari begiratu, Hego Euskal Herriko eskola-liburutegietan, ikastetxeen erdia baino gehiagotan (%58,8) kentze praktika hori egiten da. Espainiar Estatuko ikastetxeetan portzentaje hori %38,8ra jaisten da. Praktika hori egiten ez duten ikastetxeen portzentajea %35,3 da (espainiar Estatuan %56,7).

Azken ikasturtean eskuratutako materialak

10. irudia. Azken ikasturtean erosi diren materialak (ikastetxeen %)



10. irudiak erositako material berrien banaketa erakusten du, material-motaren arabera.

Edozein materialen gainera liburuak dira gehien erosi diren baliabideak: ikastetxeen %82,4k azken ikasturtean liburuak erosi ditu. Ondoren ikus-entzunezkoak (%47,1) eta dokumentu elektronikoak daude (%41,2). Nabarmendu behar da, eta hau gertakizun berria da, erositako ikus-entzunezko eta dokumentu elektronikoak kopuruek egunkari eta aldizkariak gainditzen dituztela. Gertaera hori espainiar Estatuan jasotako datuek ere azaltzen dute.

Azken ikasturtean erositako materiala nori zuzendu zaion erreparatu gero, zera esan daiteke: erositako materialen %64,7 ikasleria soilari zuzendu zaio, %23,5 ikasle eta irakasleei, eta %5,9 irakasleria soilari.

Fondoaren gaurkotzea sailka

Bosgarren taulan aurkezten diren datuei erreparatu gero, gaurkotze-maila oso baxuak antzeman daitezke, ezer edo

gutxi gaurkotu diren fondoek datuak direla kontuan hartzen badugu. Bertan ikus daitekeenez, literatura da arlo bakarra dokumentuen gaurkotze nabarmena erakusten duena, alegia, ikastetxeen %53k arlo horretan gaurkotze nahikoa edo altua du. Dokumentu nahikoa gaurkotuak dituen beste arlo bat da Gizarte Zientziak, Historia eta Geografia; %50era hurbiltzen da portzentaje hori.

5. taula. Sailen araberrako dokumentuen gaurkotzea (ezer edo gutxi gaurkotutako ikastetxeen %)

| Saila | % | Saila | % | Saila | % |
|---------------------|------|----------------------|------|---|------|
| Hizkuntza Klasikoak | 82,3 | Musika | 70,6 | Natur Zientziak | 58,8 |
| Heziketa Plastikoa | 76,5 | Teknologia | 70,6 | Hizkuntza | 52,9 |
| Gorputz Heziketa | 76,5 | Atzerriko Hizkuntzak | 64,7 | Gizarte Zientziak, Historia eta Geografia | 41,1 |
| Matematika | 76,5 | Filosofia | 64,7 | Literatura | 29,4 |

Tratamendu teknikoak

Liburutegietako materialen tratamenduari dagokionez, nabarmendu daitezkeen datuak honako hauek dira:


- Ikastetxeen %39,1ek tratamendu osoa eta zuzena egiten duela azaltzen du, alegia, ezarritako arautegiarekin bat datorren katalogazioa eta sailkapena egiten duela. Ikastetxeen %39,1ek osoa ez den tratamendua egiten dela azaltzen du eta %21,7k dio ez duela dokumentuen inongo tratamendurik egiten. Azken datu hori altuagoa da espainiar Estatukoaren ondoan. Kasu horretan, tratamendurik egiten ez duten ikastetxeen portzentajea %13,4koa da.
- Materialen tratamendu teknikoak egiten duten ikastetxeen %64,7k informatizatutako sistemaren bat erabiltzen duela azaltzen du.

Antolaketa

Liburutegietako bildumarekin zerikusirik duen beste aspektua da material horiek antolatzeko erabilitako prozedura.


Antolatze-sistema teknikoena ikastetxeen %64,7k erabiltzen du ezagutzako materialak antolatzeko. Curriculumarekin lotutako irizpideak era desberdinean banatzen dira. Horrela, ikastetxeen %35,3k erabiltzen du *ikasgaiak* irizpide gisa; %23,5ek *zikloak edo kurtsuak* eta %11,5ek *adinak*. Badago ikastetxeen %35,3 *material mota* edo *euskarria* erabiltzen duena. Gainerako datuak 11. irudian ikus daitezke.

11. irudia. Ezagutzazko materialen antolaketa (ikastetxeen %)



Fikziozko materialak antolatzeko erabilitako metodoak 12. irudian aurkezten dira.

12. irudia. Fikziozko materialen antolaketa (ikastetxeen %)



Material horien antolaketan *bilduma* irizpidea da nagusia (ikastetxeen %52,9) eta ondoren *CDU* irizpidea. Ordena ho-

ri eta portzentajeak aldatu egiten dira espainiar Estatuko datuetan. Kasu horretan *CDU* irizpidea ikastetxeen %38,3k darabil eta *bilduma* irizpidea %37,5ek.

Eskuragarritasuna


Bildumen eskuragarritasunari dagozkion datuak behaketa zuzenaren bitartez jaso dira. Datu horien arabera, bildumen eskuragarritasuna, kasuen %30,4n, *eskas* baloratu da. Horrek esan nahi du dokumentuen zati bat bakarrik eta ez guztiak daudela irakurleen eskura edota seinaleztapena ez dela egokia bildumaren erabileran ondo orientatzeko. Ikastetxeen %60,9k *egokia* gisa baloratu du eskuragarritasuna. Espainiar Estatuan lortutako datuen arabera, ikastetxeen heren batek bakarrik (%36,6) lortzen du *egokia* kalifikazioa.

Arduraduna

Arduraduna izendatzea eta antzintasuna

Liburutegiaren ardura gehienetan irakasleriari egokitzen zaio. Arduradunak izendatzeko erabiltzen diren irizpideen artean, borondatez aurkeztea da hedatuena, bigarrena espezializazio ikastaroak egin izana eta hirugarrena orduak libre izatea (ikus 13. irudia). Aipatzekoa da kasuen %4,3n soilik hartzen dela kontuan Zuzendaritza Taldeko kide izatea.

13. irudia. Arduraduna izendatzeko irizpideak (ikastetxeen %)



Arduradunaren antzinakotasunari dagokionez, esan behar da kasuen %47,1en arduradunak hiru urte baino gehiagoko

antzinatasuna duela eta kasuen %52,9n hiru urte baino gutxiagokoa.

Arduradunaren prestakuntza

Irakasle-jarduera burutzen duten mailari dagokiona da liburutegiko arduradunen oinarrizko prestakuntza. Arduradun horiek jaso duten prestakuntza osagarria honako alderdi hauetan zentratu da: *Liburutegiaren Ekonomia* (%58,8), *Oinarrizko Informatika* (%47,1), *Haur eta gazteen irakurketa eta literatura* (%35,3) eta *Pedagogia eta Didaktika* (%17,6). Espainiako Estatuan arlo horretan jasotako emaitzekin alderatuz gero, desberdintasun nabariak azaltzen dira Liburutegiaren Ekonomian jasotako prestakuntzan. Kasu horretan, arduradunen portzentajea %28,7 da.

14. irudia. Arduradunek sumatu dituzten prestakuntzarako beharrak (arduradunen %)




Hala ere, 14. irudian ikus daitekeen moduan, arduradunen %70ek Liburutegiaren Ekonomia eta Haur eta gazteen irakurketa eta literaturan prestakuntza beharko luketela pentsatzen dute. Beharra duten beste prestakuntza arloak Informatika (%41,2) eta Pedagogia eta Didaktika (%29,4) direla diote.

Arduradunaren arduraldia


Arduradunen %64,7k bat eta bost ordu bitarteko arduraldia dauka. Guztietatik, %11,8k bakarrik dauka arduraldi osoa.

15. irudia. Arduradunak eskainitako ordu kopurua (ikastetxeen %)



Arduradunaren funtzioak

16. irudia. Liburutegiko arduradunaren funtzioak (arduradunaren %)



Liburutegiko arduradunaren funtzioen artean orokortue-
na da liburutegiaren erabilera eta funtzionamendu politika
ezartzea (%82,4). Espainiako Estatuan egindako ikerketan,
aldiz, funtzio orokortuenak lan teknikoak egitea eta erabil-
tzaileenganako arretaz arduratzea dira. Gure ikerketa hone-
tan funtzio horiek ere nahikoa orokortuak daude, eta ardu-
radunaren portzentajea %76,5 da.

Gainontzeko funtzioen banaketa 16. irudian beha daiteke.

Konklusioak

Hona hemen ikerketa honetan ateratako konklusio garrantzitsuenak:

1. Ikastetxeetako liburutegiek ibilbide zabala dute, liburutegi gehienek urte batzuetako funtzionamendua erakutsi baitute. Horretaz gain, liburutegi-proiektuarekiko asebetetzea ere altua da.
2. Ikastetxeen gehiengo handiak hobekuntza edo berrikuntza egitasmoetan parte hartzen du.
3. Oro har, liburutegiaren erabilera ez da soilik mugatzen liburutegiaren zerbitzuetara. Horretaz gain beste erabilera ere badira, hala nola, bilerak, zigorrak betetzea, ikasgela...
4. Lanerako baldintzak (argia, tenperatura, altzariak...) dira positiboen baloratzen diren alderdiak. Aldiz, gutxien baloratzen dena segurtasuna (segurtasun-neurriak, materialen segurtasuna...) da.
5. Nahiz eta aldizkari, egunkari eta ikus-entzunezkoen presentzia gero eta garrantzizkoagoa izan, liburuak dira liburutegietako protagonistak.
6. Kopuru onargarria duten sail bakarrak Literatura eta Gizarte Zientziak dira. Aldiz, gutxien hornituak daudenak Gorputz Heziketa, Matematika eta Hizkuntza Klasikoak.
7. Arduradun, irakasle eta zuzendarien iritzien arabera, euskarazko materialen kopurua ez da egokia.
8. Materialen aukeraketan askotariko eragileek parte hartzen dute, ez bakarrik liburutegiko arduradunak.
9. Liburutegiko fondoak gaurkotzea da aukeraketarako erabilitako irizpide nagusia.
10. Aukeraketarako erabilitako iturri nagusiak dira liburu-dendetako eta argialetxeetako katalogoak.
11. Liburutegiko gaurkotze praktika hedatua dagoela esan daiteke. Gaurkotze hori gehienbat liburuetara eta irakasleriarentzako materialera mugatzen da. Sailei begi-

ratuz, literatura da dokumentuen gaurkotze nabarmena erakusten duena.

12. Sistema teknikoak dira materialak antolatzeko gehien erabiltzen diren sistemak (CDU, OPAC...).
13. Bilduman ondo orientatzeko seinaleztapena ez da ego-kia.
14. Liburutegiaren arduraduna irakaslea izaten da, eta hura izendatzeko irizpide nagusiak, berriz, borondatea eta espezializazio ikastaroak egin izana.
15. Liburutegiko arduradunen funtzio orokortuenak ondoko hiru hauek dira: liburutegiaren erabilera eta funtzio-namendu politika ezartzea, erabiltzaileei arreta ematea eta lan teknikoak (katalogazioa, forratzea...) egitea.¶

Bibliografía

- ANABAD, FESABID eta Ministerio de Cultura (1997): *Las bibliotecas escolares en España: análisis de resultados del estudio sobre la situación*, Madrid, Ministerio de Cultura.
- Baró, T., Mañà, M. eta Roig, A. M. (1990): *Les biblioteques a les escoles públiques de Catalunya*, Bartzelona, Diputació de Barcelona, Area d'Educació.
- Baró, T., Mañà, M. eta Comalat, M. (2002): «Las bibliotecas de los centros públicos de Educación Secundaria en la ciudad de Barcelona», *Anales de Documentación* 5, 59-71.
- Chartered Institute of Library and Information Professionals (2002): *Survey of Secondary School Libraries. Main Findings. A Report Prepared for CILIP*, Londres, CILIP.
- Gobierno de Navarra. Departamento de Educación y Cultura (1999): *Una aproximación al estudio de las bibliotecas escolares en Navarra. Claves para su mejora*, Iruña, Nafarroako Gobernua.
- Durand, M. eta Waltmann Dashko, M. (2001): *Elementary and Secondary Schools: The Role, Challenges and Financial Conditions of School and School Library Resources in Canada*, Kanada, Culture, Tourism and the Centre for Education Statistics.
- Holton, B., Bae, Y., Baldrige, S., Brown, M. eta Heffron, D. (2004): *The Status of Public and Private School Library Media Centers in the United States 1999-2000*, AEB, National Center for Education Statistics.
- Lonsdale, M. (2003): *Impact of School Libraries on Student Achievement: a Review of the Research*, Melbourne, Australian Council for Educational Research.
- Marchesi, A. eta Miret, I. (2005): *Las bibliotecas escolares en España. Análisis y recomendaciones*, Madrid, Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- Ortiz-Repiso, V. eta Camacho Espinosa, J. A. (2004): «La radiografía de las bibliotecas escolares de Castilla-La Mancha. La biblioteca escolar central», *Educación en Castilla-La Mancha* 22.
- SCCC/HMI (1999): *Taking a Closer Look at the School Library Resource Centre: Self-evaluation Using Performance Indicators*, Dundee, SCCC/HMI Audit Unit.
- Williams, D., Wavell, C. eta Coles, L. (2001): *Impact of School Library Services on Achievement and Learning*, Aberdeen, School of Information and Media, Faculty of Management, The Robert Gordon University.

Legeak

- 32/2002 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako liburutegien sistema arautzen duena (NAO 142, 2002-11-25).
- 172/2004 Foru Agindua, ekainaren 28koa, Hezkuntza Kontseilariak emana, Haur Hezkuntzako bigarren zikloa, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapenerako Programak ematen dituzten ikastetxe publikoen antolaketa eta jar-

duna 2004-05 ikasturtean arautuko dituzten jarraibideak onesten dituen (NAO 91, 2004-07-30).

Departamento de Educación y Cultura. Centro de Documentación del Servicio de Renovación Pedagógica (1999): *Una aproximación al estudio de las bibliotecas escolares en Navarra*, Bibliotecas Escolares. Blitz, ratón de biblioteca, Iruña, Nafarroako Gobernua. Euskarazko eta gaztelaniazko bertsioak PDF formatuan ikusteko: www.pnte.cfnavarra.es/publicaciones/aprox.html

583/2002 Ebazpena, uztailaren 15ekoa, Hezkuntza Zuzendari Nagusiak emana, Lehen Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak ematen dituen (NAO 110, 2002-09-11).

527/2002 Ebazpena, ekainaren 27koa, Hezkuntza Zuzendari Nagusiak emana, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako curriculumean ulermenezko irakurketa lantzeko jarraibideak eta orientabideak ematen dituen.

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saileko argitalpenak PDF formatuan: www.pnte.cfnavarra.es/profesorado/recursos/biblioteca/coleccion blitz.php
1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa (EHAA 38, 1993-02-25).

228/2002 Dekretua, urriaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen hitzarmena onartzen duena (EHAA 204, 2002-11-25).



LITERATURA 123

Gaur irakurtzeko etzi idatzia
Izan ala ez izan
Inbidia sano bat
Zer irakurtzen da udan?

JON BENITO

SOZIOLINGUISTIKA 127

«Erotuta egotetik» emozioen ekologiaren
bidera
Euskarako teknikariak eta guraso «normalak»
«Arima berri bat» nahi?

PABLO SUBERBIOLA

TELEPOLIS 131

Euskarazko komunikabideen kezak
Milioi bat pezeta egunero
Euskararen papera
Hamaika ikusteko jaiok
Euskal Herria 2.0

PATXI GAZTELUMENDI

Gaur irakurtzeko etzi idatzia

Eslovenian, Vilenicako Literatur Jaialdian euskal ordezkaritza zabala izan da aurten. Ez da sarritan gertatzen. Izaten dira notiziak tantaka-tantaka: Bernardo Atxaga Habanan izan dela, Kirmen Uribe New Yorken... baina gehiago da ekimen indibidual edo pribatua, ekimen kolektiboa baino. Euskal literatura den desertu honetatik norberaren ahalegina, antolatutako ezer baino.

Horrek harritu nau Esloveniara egindako espediziotik. Mari Jose Olaziregi, Bernardo Atxaga, Rikardo Arregi Diaz de Heredia, Juan Ramon Makuso, Harkaitz Cano, Kirmen Uribe eta Miren Agur Meabe izan dira Vilenican. Euskal idazle garrantzitsuenetako batzuk. Eta kopurua: ez bat, ez bi. Euren izenean joan dira, bai, baina beste jende bat ere ordezkaturik. Beste askotan ez bezala, delegazio bat izan da Esloveniara hurbildu dena.

Han, beste hainbat ekimenen artean, irakurri ahal izan dugunez, Esloveniako idazleen elkartean *Etzikoak: to write in euskara, the basque language, today and tomorrow* tituludun mahai-inguruan parte hartu zuten. Euskal Idazleen Elkarte webguneko (www.idazleak.org) kronikan irakur daitekeenez,

jakin-mina eta harrera beroa eragin zuen saioak, aretoa gainezka baitzegoen eta jendeak hainbat galdera ere egin baitzuten ordu eta erdi iraun zuen saioan. Euskal literaturaren nazioarteko promozioa, itzulpengintzaren egoera, gure literaturaren joera eta gai nagusiak, euskal errealtate politikoak literaturan duen presentzia/edo presentziarik eza izan ziren, besteak beste, mintzagai nagusiak.

Ez nintzen ni Vilenican izan, baina galdera interesgarriak ziren inondik inora galde-erantzunen atalean egindakoak. Zein dira «gure» literaturaren joera eta gai nagusiak? Zer-no-

lako presentzia edo presentzia eza du errealitate politikoak gure literaturan? Konpromisoa? Idazleen Elkarteko kronikan irakur daitekeenaren arabera...

euskal idazleek gaur egun duten konpromiso nagusia literaturarekikoa dela azpimarratu zen, sortzaile eta irakurle on izateko ahaleginak eragindako konpromisoa hain justu.

Ez dira ezer berria esaten ari. Oinarrizko konpromisoa da «sortzaile eta irakurle on izateko» hori.

Baina gehiago zer?

Izan ala ez izan

Gustura jakingo nuke jardunaldietara hurbildu ziren esloveniarrak euskal literaturaren ezagutzarik bazuten, eta ez izatekotan nola aurkeztu zuten euren burua euskal idazleek. Gustura jakingo nuke bazen euskal literaturarekiko interesik. Bazekiten euskara bazenik ere? Euskaraz idazten zuen idazlerik bazela ba al zekiten euskal idazleen espedizioa baino lehen? Eta Euskal Herria, Basque Country, Pays Basque deitzen duten hau existitzen zenik?

Etzikoak titulatu duten antologia bat prestatu zuten okasiorako. Nola aurkeztu euren eta gure burua bestela? Nork argitaratu du? Nola? Noren erabakimenez? Gero eta nabarmenago ari da geratzen euskal literatura nazioartean behar bezala promozionatzeko politika definitu bat behar dela. Zer itzuli eta nola erabakiko duena. Nola eta nora. Kontaktuak egin, bitartekoak lortu. Hori guztia. Unibertsitateekin elkarlanean edo ez. Idazleen beraien ekimen eta gogoaren menpe utzi gabe.

Eta Vilenicara egin behar zuten espedizioa baino egun batzuk lehenago Etxepare Institutuaren sorreraren notizia eman zuten egunkariak. Etxepare Institutuak, Jaurlearitzako ordezkarien hitzetan, «euskara eta euskal kultura nazioartean hedatzen laguntzeko xedea» izango du. Aurreproiektua onartu berri da. *Berria* egunkarian (2006-09-09) egindako erreportajearen irakurri ahal zenez, literaturari gagozkiola,

besteak beste, Frankfurtoko (Alemania) liburu azokara ordezkari bat bidaltzen du Kultura Sailak urtero, idazleek eta argitaletxeek osatzen dutena. Gauza bera egiten da Madrilgo Liber azokarekin. Etxepare Institutuaren bidez «presentzia handiagoa eta bermatuagoa» ziurtatu ahalko dela usate du Gurutz Larrañagak, Kultura sailburuordeak.

Ikusteke dago Gurutz Larrañagak aurreratu zuen «presentzia handiagoa eta bermatuagoa» zer den. Ekimenak zehaztea falta da oraindik.

Baina aspalditik hasi ziren bidea urratzen batzuk. Urteak daramatza Idazleen Elkartek itzulpenerako programa orokor bat aztertzen. Itzulpengintza izan zen 2002an Mallorcan egin zen Galizia, Katalunia eta Euskal Herriko idazleen Galeusca jardunaldietako gai nagusia. Hainbat herritako esperientzien berri jaso zen han: zer itzultzen den, nola itzultzen den, itzulitakoa zabaltzeko oztopoak eta baliabideak...

Balioko ote du Mallorcan entzundakoak, munduan zehar ikusitakoak, Esloveniako esperientziak. Ikasiko ote dugu zer bait katalan, norvegiar, alemaniar, estoniarrengandik... inoiz?

Inbidia sano bat

Baina, nago, ez dela liburuaren kontua bakarrik. Ez dela liburuaren kultura bakarrik. Nago, gehiago dela, giro kontua ere badela atzerritik jaso beharrekoa. Literaturarenganako beste afektibitate bat. Vilenicako kronikak irakurtzen, honakoa esaten da:

Esloveniar Idazleen Elkartearen egoitzak duen lorategian euskal idazleek poesia irakurketa egin zuten. Harkaitz Cano, Miren Agur Meabe, Kirmen Uribe eta Rikardo Arregik euskaraz irakurri zituzten euren poema batzuk eta Marjeta Prelesnik Drozg itzulitzaileak eslovenierara itzulita. Giro beroa, entzuleen irribarre eta konplizitatea azpimarratuko genituzke eta oraingoan ere bertaratutakoen kopurua.

Hori bera berretsi zuen Rikardo Arregi Diaz de Herediak bere kronika ederrean. Eta kronikaren amaiera aldera konparazioa egiten du. Giroarena:

Harriturik nago. Atzoko ekitaldia, lehena, irudikatzen nuen Euskal Herrian, irudikatu nahi nuen Euskal Herrian, baina ezin. Hemen literaturari ematen zaion garrantzia ez dakit guk ezagutuko dugun inoiz. Central Europe Initiatives erakundeak Mazedoniako idazle gazte bati beka bat ematen dio ekitaldiaren baitan; Goce Smilevski du izena eta mazedonieraz irakurtzen digu nobela izango denaren kapitulu bat (ingelesezko itzulpena dut orain esku artean). Idazle gaztearen aurrean makurtzen dena Esloveniako Atzerrirako Ministroa al da? Bai. Gauzak horrelakoak dira hemen. Gauean lehen irakurraldian basoaren erdian poesia, narrazioa eta saiakera tartekatzen dira. Hizkuntzak: euskara (Atxaga), alemaniera, italiera, serbokroaziera, esloveniera. Ingelesezko itzulpenak esku artean ditut. Euskaldunok etsiturik begiratzen diogu elkarri afalostean. Horrelakorik Euskal Herrian?

Literaturarekiko errespetua. Badugu nondik zer ikasia, ezta?

* * *

Zer irakurtzen da udan?

Udan ez da euskal literaturan nobedade askorik egoten, eztabaida handirik ere ez eta, interesgarria iruditu zait Patxi Gaztelumendik bere blogean (www.gaztelumendi.org) irakurleoi egin digun galdera. Zer irakurtzen dugu udan?

Lerrook idazten ari naizela 17 erantzun jaso ditu Gaztelumendik.¶

«Erotuta egotetik» emozioen ekologiaren bidera

Hizkuntz teknikari katalan bat alboan genuen lehen aldiz Buruntzaldean transmisioa zela eta martxan jarri nahi zuten esperientzia pilotuaz hitzaldi batean entzun genuenean. Asmoa edo helburua honakoa omen zen...: guraso gazteen «*bikoteko hizkuntz ohituretan eragitea*». Hitzaldiaren amaieran, gure alboan entzuten ari zen katalanak argi zeukan: horretan saiatu nahi dutenak «erotuta daude»... Lortu edo ez, helburua bera erabat lekuz kanpokoa egiten zitzaion hari.

Kontua da, Buruntzaldeko euskara teknikariek landutako «erokeria» horri ekin eta nolabait forma eman zaiola joan den ikasturtean Buruntzaldeko sei udalerritan. Hainbat erakunderen artean antolatu da, eta Buruntzaldeko, HABEko eta HPSko teknikariek eta ikastetxeetako arduradunekin batera, SL Klusterrekoek ere izan dugu erokeria hori aurrera ateratzearen arduraren zati bat.

Ikasturtean zehar egindakoarekin, ikasturte hasieran airean zeuden zenbait galdera erantzun dira, eta berriak ere sortu dira, nola ez?? Aipatu dudan egitasmoak atal ezberdinak zitu. Atal horietako batek horrela zioen: «*Euskaraz jakin bai, baina beren artean hitz egiten ez duten bikoteen hizkuntza ohiturak aldatzen laguntzeko gida metodologikoa*» egitea. Buruhausterik gehien eman duen ataletako bat izan da, noski. Delako gida metodologikorako materiala egitearen ardurari HABEek erantzun dio. Tartean, lantalde bat eratu zen lan hori bideratzeko, eta bertan HABEko bi teknikarik egindako planteamenduek gainerako lantaldekideon ikuspegiak zalantzan jartzeko, berritzeko eta aberasteko bide eman dute.

Hausnarketa hauen berri zehatzago jakin nahi duenak, *Hizkunea* agerkarian Xabier Elortza eta Alex Mungia HABEko teknikariek ateratako artikulura jo dezake (www.euskara.eus/kadi.net/r593693/eu/contenidos/informacion/artik8_1_buruntzaldea_06_06/eu_buruntza/artik8_1_buruntzaldea_06_06.html).

Euskarako teknikariak eta guraso «normalak»

Gai honetan, esango nuke askotan egiten den hausnarketa horrelako zerbait dela: *baldin badaude guraso euskaldunak beraien artean erabat edo nagusiki gaztelaniaz egiten dutenak, beren «ohitura» hori aldatzeko laguntza eskaintzen badiegu, euskararen erabilera gehitu egin daiteke gurasoen arteko harremanetan.*

Ja, baina... kontua hain sinplea al da? Ezetz esango nuke. Aipatu lantalde horretan egin da ahalegin bat nolabait «guraso normal» edo «euskararekin bereziki kontzientziatu gabeko» gurasoen lekuan jartzeko. Horrela diote, gorago aipatutako artikuluko zati batean Alex Mungiak eta Xabier Elortzak:

[...] hau da, gutxi batzuegana ailegatuko zela mezua, baina gehiengoa «euskara-euskara-euskara» mezuaren aurrean ez zela inplikaturik eta, are okerrago, kontrako efektua lortzeko arriskua ere indar genezakeela horrela. Beste modu batera esateko, hizkuntzaren gorabeherekin sentsibilizatuta zeudengana ailegatuko ginela berriro ere baina albo batean geratuko zitzaizkigula hain sentsibilizatuta ez zeudenak —ustez, gehienak—. Bi hitzetan laburtzeko, arriskuak aurreikusituen, eta erabaki genuen merezi zuela beste ahalegin bat egitea.

Oso gauza sinplea ematen duen arren, askotan zaila izan daiteke justu «euskara gaietan» lan egiten dugunontzat guraso «normalen» lekuan jartzera iristea. Norberaren gaiarekiko bizipen, ikuspegi, motibazio eta abarretatik urruntzea eskatzen du horrek, jasotzailearen ideia erreal xamar bat egin nahi badugu, eta hori ez da hain erraza.

Esate baterako, euskara normalizatzaile batentzat normala izan daiteke pentsatzea, euskaraz dakien baina gutxi erabiltzen duen jendeak (bikoteek, kasu honetan) «nahiagoko lukeela» harreman hori euskaraz izatea, baina traba, zailtasun edo ohituraren batengatik ezin duela. Baina hala al da? Hartu «tipologia» horretako zuen inguruko bikote erreal bat... nahiagoko luke? Nahi luke? Tira, «sozialki» oso ondo geratzen da esatea beste zera hura «*jo, ya me gustaría, pero tenemos la ohitura en erderas y...*», baina hori esaten duenak, badu nahi hori? Bere buruarekin gusturago legoke hori lortuko balu? Planteatu du inoiz?

Noski, oso kasuistika zabala dago aipatzen ari garen bikote gazteen artean, bai gaitasun eta bai ohitura aldetik, eta, urruntze ariketa hori egin nahian, goian aipatutakoen tankerako galdera asko jarri dira mahai gainean aipatu lantaldean. Eta bertako ondorioetako bat izan da, han bildutakoen ustez orokorrean gai honetan hobe zela eguneroko hizkuntz jokaeraz, horiekin gustura dauden edo ez, «hobetu» nahi luketen... pentsaraziko duen dinamika bat sortzen saiatzea, zuzenean «bere ohiturak» aldatu nahi dituenari begira material edo gida bat eskaintzen saiatzea baino.

Horrekin batera, beste puntu nagusi batean ere joan da aldatuz abiapuntuko planteamendua, kasu honetan ere, HABEko teknikarien proposamenen ildotik. Egokiago baloratu da hizkuntzaren, euskararen edo hizkuntza ohituren gaia, bere horretan, berariaz eta espresuki gurasoei planteatu beharrean, gurasoen interesekoa izan daitekeen gai bat lantzea, eta hizkuntza erabileraren edo hobekuntzaren aukera lanketa horretan txertatzea.

Kasu honetan Emozioen ekologiaren gaia hautatu da. Antza, gaur egun ikastetxeetan eta gurasoen artean gero eta zabalpen eta eskari gehiago duena. Goiz da oraindik hausnarketa eta planteamendu hauek guraso gazteen arteko hizkuntza erabileran edo ohituretan aldaketarik ekar dezaketen esateko, baina egindako hausnarketek emankorrak suertatzeko itxura izan dute behintzat!

«Arima berri bat» nahi?

Hizkuntz ohiturak aldatzearen eta euskararen aldeko «hautua» egitearen kontua askotan aipatzen da bai euskararen aldeko kanpainak egiten direnean eta baita erabilera bultzatzeko planak eta antzerakoak diseinatu eta inplementatzen direnean ere.

«Hautu» hori euskararen aldekoa izan dadin bultzatzeko, horretara gonbidatzeko, horretara erakartzeko, mila modu ezberdin daude, segun non eta norentzat une jakin batean motibagarri suerta daitezkeenak. Ea ondorengo hau zer iruditzen zaizuen:

The Language Revolution (2004) izeneko liburuan David Crystalek aipatzen du, eta Eslovakiar Errepublikako esaera bat omen da: «*Ikasten duzun hizkuntza berri bakoitzarekin, arima berri bat eskuratzen duzu*».

Beste edozein mezuk bezala, honek ere ez du noski euskararen aldeko hautua egin dezakeen edonorentzat balioko, eta ezta edozein egoeratarako ere, baina jasotzaile eta egoera jakin batzuetara egokituta, seguruenik bai.

Tira, gurea bezalako gizarte materialista eta «gauzak» pilatu eta kontsumitu-zale batean, «makillaje» pixka bat behar du ideiak kalera atera ahal izateko, baina esango nuke baduela bere potentziala, hizkuntza batean baino gehiagotan hitz egiten duenak bizipen mailan bere barruan dabilen hori eta askotan hori probatu ez duenari adierazteko hain zail egiten zaiguna, hitz gutxitan adierazteko.¶

Euskarazko komunikabideen kezak

Udaberrian, komunikabide euskaldunen gaia afera gai bihurtu zen. Iritzi artikuluak, kronikak, eztabaidak, hari luzea. Eta orain; uda igarota, urak igarota, gauzak bere beran. Patxi Baztarrika eta euskaraz diharduten komunikabideen arteko joan-etorriko mezuak entzun eta irakurri genituen. Nork zer baino gehiago. Non noiz baino gutxiago. Dirua hizpide, betiko lez. Euskarazko komunikabideen baloraziorik apenas egiten da gurean. Euskaraz dira? Bon, ondo daude orduan. Kalitateari, maiztasunari, hizkuntzari, komunikatzeko gaitasunari, hedapenari arreta gutxiegi ez ote zaion jartzen. Ez gara atzo goizean hasiak, eta horregatik, aztertzeko ikuspegia aldatu beharko genukeela aldarrikatu gura dut. Jasangarriagoak diren komunikabideak aldarrikatu gura ditut, irakurle berriak eskuratuko dituzten edukiak eskainiz, diseinu berri eta modernoagoak, interaktibitatea bultzatuko duten komunikabide multimedia berriak. Belaunaldiz belaunaldi, batetik bestera igaroko diren medioak, hizkuntza tresna izango dutenak eta ez helburu. Hori maiz eztabaidatu dugu gurean, eta oraindik euskararen alde ari gara esaten zaigu, euskaraz ari garenean. Edo herriaren alde. Edo gramatikaren alde. Komunikazioaren alde egiten dute besteek, diruaren alde ere sarritan, baina guk oraindik 68ko Arantzazun jarrita dauzkagu aingurak. Ematen du. Pello Zabalak berak satellite gehiago ditu piztuta, Interneteko konexio hobeak, euskarazko komunikabideetako langile eta arduradunek baino. Han, Arantzazun.

Batetik Patxi Baztarrika eta bestetik euskalgintza delakoa aldarrika. Eusko Jaurlaritzako Kultura sailetik zein euskarazko prentsaren orrietatik, gu, irakurleok, modu pasiboan

hartu gaituzte. Ohituak gaude, baina ez dago eskubiderik. Gure iritzia? Guk zer esan eta pentsatu behar dugu honetaz guztiaz. Maila batean, guk behar genuke helburu, eta maila batean ere, arrakastarik izango badute hizkuntza politikak batetik eta komunikabideon jardunak bestetik, guk —irakurle, entzule, erosle, ikusleok— beharko genuke tresna izan ere. Helburuak eta tresnak ondo berdefinitzeko garaia dela iruditzen zait. Munduan oro har, aldaketak datoz komunikabideen zereginari buruz. Komunikabideen papera —batez ere— aldatzen ari den honetan. Kontsumo ohitura berriak datoz, eta horiek gurean ere badute eraginik. Zelan ez. Beraz, kezkatzeko garaia bada. Baina ez soilik sosei begira. Beste hamaika puntu gehitu behar dira hor. Berandu baino lehen.

Miloi bat pezeta egunero

Eta horrelakoetan, denbora pasatu ahala. Orriok inprimatu eta irakurri eta azpimarratzeari ekiten diozu. Baten eta bestearen berotasunetik distantzia hartu eta ariketa hori egiten duzu. Zer eskatzen du batek, zer eskaini bestek. Baten eta bestearen tesiak ondorioztatu, sintesi bat egin... eta agian antitesi bat ere proposa dezakegu. Eta hori izan da, hain zuzen ere, neure udako ariketa. Baztarrika eta aldarrika batu, edo segi dezatela harrika. Bitartean, entzuleak geldi, eta geldo karrika. Eta subentzioen gaian ere murgiltzen zara. Eta konturatu ere, *Berriak* adibidez, miloi bat pezeta jasotzen dituela egunero egunkari bakoitzagatik. Ez dago txarto gero. Gehiago behar dutela? Ados. Baina ez dago txarto ia 6.000 euro jasotzea egunkariko, ezta? Euskaraz izateagatik jasotzen baitu. Ondoan diren gainontzeko egunkariak —euskaraz ez izanda ere— ez dute hori jasotzen egunero balizko merkatu erdaldunetik adibidez. Ala bai? Gipuzkoako edo Arabako egunkari sortu berri batek —*Diario de Noticias*— ze merkatu kuota dauka? Zenbat irakurle eta erosle gehiago ditu *Garak* adibidez, subentzio barik ere au-

rrera egiteko? Publizitatea? Argi dago penetrazio asko daukaten egunkari historikoak —Vocento taldearen ingurukoak Hego Euskal Herrian, eta *Sud Ouest*— bakarrik salbatzen direla merkatu legeei erreparatuta. Horretan, zortedun gara euskarazkoak kontsumitzen ditugunak, gureak labela izateagatik laguntza jasotzen duelako. Urte eta eskaera askoren ondorio dira. Baina betikotu egin ditugulakoan nago. Eta euskaraz berez ere konpetitiboagoa behar lukeela. Eta telebista egunero zenbat kostatzen zaigun, esango didazue albotik. Baina erantzuna ere prest daukat, telebista publikoa da, euskarazkoa eta gaztelaniazkoa. Eta hori beste eztabaida bat da. Izatekotan.

Euskararen papera

Inoiz ez bezala inprimatzen da euskaraz gaur egun. Inoiz baino paper txatal gehiago dauzkagu pilatuta gure apaletan. Herri aldizkari, herrietako egunkari, aldizkari —nahi beste, denak antzeko—, koloredun gehigarri, liburu, komiki... zer dakit nik zenbat publikatzen den. Artxiboren batean egongo da datu estatistikoren bat, zenbat orri euskaraz publikatzen diren urtean. Baina, hala ere, beste bat da nire galdera? Zenbat irakurle ditu euskarak? Gehitu al dizkiogu irakurle berriak euskarari? Eguneroko eta aldizkako prentsak kultur kontsumo joera berriak sortu al ditu? Gure kultura lagunduago sentitzen al da paperezko prentsa honi guztiari esker? Euskarazko liburu bat, irakurriagoa al da orain, duela 20 urte baino? Diskogintzaz ez naiz mintzatuko. Antzerkira jende gehiago joaten al da? Euskarazko bideorik sortzen al dugu?

Kezkak dira. Bata bestearen atzean jarrita. Erantzunak kolektiboa behar luke. Nork bere txokotik. Baina inpresioa daukat, euskaraz inoiz baino gehiago inprimatzen dugun arren, euskararen papera ez dela asko aldatu. Diot nik. Eta eztabaidarako prest nago. Paperik gabe.

Hamaika ikusteko jaioak

Uda osteko argazkia bestelakoa izan da ordea. Hiru komunikazio taldetako ordezkariak —EKT, EKHE, CMN—, Euskaltel, Baint eta Elkar batera ikusi ditugu, bostekoa ematen. Euskal Herri osoko egunkari ezberdinetako komunikazio taldeen batuketa izan da hau. *Le Journal*, *Gara*, *Berrria*, *Diario de Noticias* guztiak eta *Deiako* enpresetako arduradunak, kulturgintza, zinemagintza eta telekomunikazio alorreko eragileekin batera. Hamaika. Bai, hamaika inpresio ezberdin, hamaika poz, hamaika susmo eta hamaika iritzi sortuko zuen argazkiak berak. Oraindik argazkia da, letra batzuk... baina ikus-entzunezko sektorea astindu dezakeen ekimena ere izan daiteke Hamaika. Telebista lokaletan, euskara digitalizazioaren garaian jarriko lukeen ekimen honek, aurki Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban lehia publikora aterako diren herri telebisten eskaintzan parte hartuko du. Jokoan daude 15 telebista lokal berri osatzeko aukerak. Eta Hamaikak aukera politak dauzka. Ikusteko dago, baina guk ikusi gura dugu. Eta, ziur naiz, denbora gutxi barru, herrietan euskarazko telebista lokalen sarea ikusteko moduan egongo garela. Orain arte, oso herri gutxitan dago euskarazko telebista lokala, baina egon diren esperientziak sano aberatsak izan dira, eredu-garriak esango nuke, eta esperientzia horietatik ere asko dauka oraindik ikasteko Hamaika proiektu honek.

Euskal Herria 2.0

Euskal Herria eta Internet. Bi kezka. Baditugu, baina jende asko ez da kezkatzen. Hala dirudi. Baina batzeko gai izan gara, eta eztabaidatzeko. Ideiak amankomunean jarri eta berba egiteko. Web 2.0 kontzeptuaren estalpean, gauza, jarrerak eta ekimen ugari sortzen ari da, munduan bezala gurean ere. Eta Artelekuko mintegiko jardunaldiak horren ispilu izan dira. Euskal Herriak Interneten izan beharreko jarreraz mintzatuz, Interneten eta oro har Informazio eta Ko-

munikazio Teknologia Berrien (IKT) gainean Euskal Herrian zelan jokatu. Lokalizazioa eta Internazionalizazioa. Bi kontzeptu baino, bi ildo. Nazioarteko joerak zelan gauzatu gurean, eta gure sorkuntza zelan erakutsi nazioartean. Balio luke ekonomiarako, balio du kulturarako, jendartean eztabaidatzea da orain kontua. Eta horretan gabiltza.

Eta bien bitartean, katalanen adibideak balio digu. Sor-tzaileak, garatzaileak dira. Gogor ari dira mundu digitalean ere, eta beraien adibideetatik guk ere egin dezakegu aurre-ra. Euskarak, kulturak, Euskal Herriak baduelako zer eskaini, zer ikasi eta zer egin franko gainean dugun mundu berri honetan.¶